

txanela

Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

7

Naturaren sekretuak

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

TXANELA 1

7. unitate didaktikoa

NATURAREN SEKRETUAK

LABURPENA

Maddalenek, Ferminen, Urdintxok eta Poxek birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren Denboraren makina konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaia egin, informazioa bildu eta jarduera asko eginda, museorako piezak eskuratuko dituzte. Unitate honetan, Maddalenen eta Ferminen abenturari jarraituta, egungo naturagune baten azterketa egingo dugu.

Herri guztien inguruan badago mendi, mendixka edo naturaguneren bat. Horren azterketa bideratuko dugu. Naturaren gaia landu bitartean, inguruko naturagune batean dauden izaki bizidunen azterketa eginez eta haiei buruzko fitxak edo azalpen-testuak idatziz, ikasle bakoitzak aldizkari edo txosten bat osatuko du. Txanela liburua, naturagunea aztertzeko beharrezkoak diren irizpideak eskuratzeko tresna gisa baliatuko duzue. Hau da, aukeratu duzuen naturagunearen behaketa bideratzeko irizpideak liburuan azalduko dira. Behaketaren ondorioak berriz, txanela liburuaren erdialdean dagoen aldizkarian edo txostenean idatziko dituzte. Era honetan, behaketarako irizpideak barneratuz, behaketa eginez eta azalpen-testuak idatziz, pixkana-pixkana aldizkaria osatuko duzue.

Beraz, unitatea garatzeko, aldizkaria osatzeko, ezinbestekoa izango da naturagune bat osatzen duten elementuak behatzeko irtenaldi bat egitea. Gertu dagoen naturagune bat aztertuz gero, liburuan ikasitakoa, egunean bertan zuzenean behatzeko aukera izango duzue. Era honetan lana egiten baduzue, lau bat aldiz joan beharko duzue parkera landutakoa aztertzeko. Aztertuko duzuen naturagunea gertu ez badago, irtenaldia unitatearen hasieran egin beharko duzue eta irtenaldian egindako argazkiak behatuz, azalpen-testuak idatziko dituzue.

Aldizkaria egiteaz gain, interesgarria litzateke unitatean zehar burutuko duzuen prozesuan egindako eta bildutako material guztiarekin erakusketa antolatzea. Erakusketa, jakina, ez dugu bukaeran antolatuko, baizik eta prozesuan zehar bildutakoa, gure gelan edo erakusketarako erabil dezakegun beste gela batean, pixkana-pixkana erakusgai jartzen joango gara. Honetarako interesgarria litzateke unitatean zehar burutuko duzuen prozesu guztiaren dokumentazio grafikoa biltzea (argazkiak, grabazioak...).

Bestalde, gida honen bukaeran, sekuentzia tematiko berririk ez duen atala aurkituko duzue. Hau da, ikasturtean zehar ikusitakoaren berrikuspena eta oporren eta garraioen inguruko hainbat jardura aurkituko dituzue. Besteak beste, lehen mailan gure istorioaren ardatza izan den azken komikia, gai guztiak gogoratzeko aukera emango digun ardatz kronologikoaren horma-irudia, ikasturtea baloratzeko galdetegia, oporretako marrazkia eta elkarriketa, garraioen olerkia...

MATERIALA

- Unitate honen gida:
 - *Jarduera-zerrenda sekuentzien arabera sailkatuta*
 - *Unitateari dagozkion ziklo-amaierako helburuak*
 - *Unitateko ebaluazio-irizpideen taula*
 - *Unitatea bost astetan egiteko planaren proposamena*
 - *Jardueren azalpena eta helburuen eta ebaluazio-irizpideen arteko lotura*
 - *Eranskinak*
- Ikaslearen liburua, liburuaren erdialdean dagoen aldizkaria, irakurgaiak, abestien CDa, jardueren CDa, lan-koadernoa, material osagarria, Birraitonaren museoa 1 CD-ROMa eta Birraitonaren museoa bideoa.
- Liburu digitala (zoom-liburua)
- Argazki makina, lupak, tximeletak harrapatzeko sarea, ikasleen nortasun-agiri tamainako argazkiak, sustrai lurduna duten landareak.
- Gaiari buruzko web-orri interesgarriak. Informazio orokorra.
 - <http://kids.nationalgeographic.com/kids/>
 - <http://www.damisela.com/zoo/>
 - <http://www.marenostrom.org/vidamarina/index.htm>
 - <http://www.arkive.org/>

7. UNITATE DIDAKTIKOA
ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUEREN ARTEKO HARREMANA
HIZKUNTZA ARLOA (1)

HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuaren esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzeekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gai buruzkoak).	31, 34, 36, 61, 69
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	10, 18, 23, 30, 32, 33, 39, 50
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 2, 5, 6, 8, 10, 28, 31, 34, 46, 47, 51, 56, 59, 61, 62
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntza.	4, 26, 70
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	2, 9, 11, 12, 15, 16, 19, 20, 21, 25, 27, 33, 34, 36, 39, 40, 47, 48, 49, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 60, 61, 63, 64, 71
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	2, 10, 30, 38, 41, 42, 48, 49, 50, 56
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	23, 26, 28, 64, 65, 66, 67
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	3, 7, 9, 22, 26, 38, 40, 41, 42, 44, 47
1.9 Testu, perpaus eta hitzaren eremuko elementuen ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak erabiltzea, norberaren zein besteen testuen sortze- eta berrikuste-prozesu gidatuetan.	13, 29
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	11, 12, 21, 23, 25, 33, 34, 36, 55, 57, 61, 64, 69, 71
INGURUNEAREN EZAGUERA ARLOA (2)	
2.1 Inguru fisikoko oinarrizko elementu eta baliabideak pertsonen bizitzarekin duten harremana ezagutzea eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharrez jabetzea.	10, 14
2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.	15, 17, 19, 20, 22
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartzeko eta errespetatzeko, bereizkeriarik gabe.	46, 58
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonen eta emakumeen batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	51, 57, 59
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	4, 17, 18, 19, 22, 26
ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)	
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.	43, 58
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	21, 55, 62, 71
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	37
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	18, 25, 37, 43, 58, 61, 70
HELBURU METADISZIPLINARRAK (4)	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	1, 3, 8, 14, 30, 32, 45
4.3 Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.	8, 9, 45
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	47, 59

1.7 U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK		1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.	1.1.2 Elementuen esanahia interpretatzen du.	1.1.4 Testu baten oinarritzko ideiak gogoratzen ditu.	1.2.1 Jarraibideen arabera jokatzeko du.	1.2.2. Datuak zeregina burutzeko erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.2 Esandakoari buruzko galderei erantzuten die.	1.3.6 Zuzentasunez hitz egiten du.	1.4.2 Koherentziak adierazten ditu ideiak.	1.4.3 Era ulergarria adierazten ditu ideiak.	1.5.1 Idatziaren behaketan aktiboki parte hartzen du.	1.6.2 Testu genero sarrienak bereizten ditu.	1.6.3 Hitzekoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.	1.7.1 Galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du.	1.7.2 Erantzunen artean zuzena aukeratzen du.	1.8.1 Eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du.	1.8.3 Testua egoki aurkezten du.	1.8.6 Zuzentazunez adierazten ditu ideiak.	1.8.8 Ikasleekin testua sortzean parte hartzen du.	1.9.3 Testu edo perpeus atalak ordenatzen ditu.	1.13.1 Literaturaz gozatzen du.	
JARDUERAK	34 61	31 69	34 36 61	32	10 15 18 23 30 33 39 46 47 50	1 2 5 6 8 10 46 47 51 56 59 62	28 31 34 46 61	31	70	4 26	2, 9, 11 12, 15, 16 19, 20, 21 25, 27, 33 34, 36, 39 40, 47, 48 49, 52, 53 54, 55, 56 57, 60, 61 63, 64, 65 66, 67, 71	10 30 38 41 42 50	2 48 49 56	26	24 28 64	3 22 26 38 42 47	7 13 40 41 44	7 9	13 22 26 44	29	11, 12 21, 24 25, 33 34, 36 55, 57 61, 64 67, 69 71		
IKASLEAK																							
1.																							
2.																							
3.																							
4.																							
5.																							
6.																							
7.																							
8.																							
9.																							
10.																							
11.																							
12.																							
13.																							
14.																							
15.																							
16.																							
17.																							
18.																							
19.																							
20.																							
21.																							
22.																							
23.																							
24.																							
25.																							

1.7 U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2.1.2 Gizakiok ingurumenaren aldaketan dugun eragina identifikatzen du.	2.2.1 Ohiko animalia eta landareak izendatzen ditu.	2.2.2 Animaliak eta landareak sailkatzen ditu.	2.2.3 Biziduneko ardura eta jakin-mina agertzen du.	2.3.4 Emozioak identifikatzen ditu.	2.5.1 Kideen arteko harremanetan parte hartzen du	2.5.6 Bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da.	2.6.2 Trafiko seinaleak errespetatzen ditu.	2.6.3 Garraiobideen arauak errespetatzen ditu.	2.9.1 Ingurugiro gertakariak ezagutzeko interesa du.	2.9.2 Erregistroak egiten ditu.	2.9.3 Informazioa bilatzeko iturriak erabiltzen ditu.	3.1.4 Musikako konposizio laburrak aktiboki entzuten ditu.	3.1.9 Entzunaldietan egoki jokatu du.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.6 Dantza eta joko errazen teknikak praktikatzen ditu.	3.3.3 Artearekiko errespetua adierazten du.	3.3.4 Arte objektuak era bideratuan aztertzen ditu.	3.4.1 Marrazkiak egiten ditu.	3.4.8 Materialak manipulatzeko gozatu du.	4.1.1 Talde lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1.3 Berdintasunez aritzen da lankidetzan.	4.1.10 Laguntzen die gainerakoei.	4.4.1 Landutako ideiak hainbat tresnen bidez biltzeko gai da.	4.4.2 Egindako aurrerapena balioesteko gai da.				
JARDUERAK	10	17 20 22	17 22	15 19	46 58	57 59	51	14	14	14 17 18 19 22 23	59	4 17 22 26	43	43 58	21 55 62	71	37	37	25 37 43 58 61 70	18	1 3 8 14 30 45 50 51	45	32	47	47 59				
IKASLEAK																													
1.																													
2.																													
3.																													
4.																													
5.																													
6.																													
7.																													
8.																													
9.																													
10.																													
11.																													
12.																													
13.																													
14.																													
15.																													
16.																													
17.																													
18.																													
19.																													
20.																													
21.																													
22.																													
23.																													
24.																													
25.																													

TXANELA 1.7 : NATURAREN SEKRETUAK

Unitatea lau astetan garatzeko plangintza

Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Azalari behatzea eta elkarrizketa Komikia	Zer dakizu naturari buruz? Naturaren txokoa	Proiektuaren aurkezpena Aldizkaria: hizki-tortilla	Zer ikasi behar dugu aldizkaria egiteko? Irtenaldia: jokabide egokiak	Olerkia: Jokabide egokiak eta desegokiak (Irakurgaiak 87) Irtenaldia: jokabide egokiak (lan-koadernoak 31-32-33 or.) Gurasoentzako oharra
Bizidunak: landareak (liburua aztertu eta bideoa ikusi) Urtaroak: mezu sekretua	Hostoen eta enborren behaketa zuzena Zuhaitzaren zatiak (lan-koadernoak)	Zuhaitz bat nola landatu Zuhaitzak: letra-zopa	Loreen behaketa zuzena Belarren eta landareen zatiak (lan-koadernoak) Abestia: <i>Mendian larrartean</i>	Abestia: <i>Naturaren sekretuak</i> Loreak: koplak osatu (lan-koadernoak)
Animalien behaketa zuzena. Sugandila: azalpen-testua	The speedy snail Animalia bakoitza bere lekuan edo animalien hitz gurutzatuak (lan-koadernoak)	Igarkizunak Hitzak ordenatu	Ipuina: <i>Arrotza parkean</i> Parkean dauden pertsonak	Artelana Erakusketaren inaugurazioa
Parkeko bizigabeak Lorezainen tresnak Erakusketarako gonbidapena	Aldizkariaren aurkibidea Testua berridatzi	Aldizkarirako biografia Entzunaldia: <i>Erakusketa</i>	Erakusketa eta balorazioa	Zer dakizu orain naturari buruz? Komikia
Komikia Berria Hitz gurutzatuak edo testuak ordenatu	Historiaren horma-irudia Abestia: <i>Atzera begira</i> Letra-zopa: Hilabeteak	Komikia: <i>Txalo zaparrada</i> Entzunaldia	Ikasturtearen balorazioa Agurra: mezu sekretua	Ipuina: <i>On Josepek...</i> Abestia: <i>Laster oporrak</i> Letra-zopa: munduko herrialdeak
Olerkia Garraioak	Olerkia: <i>Helioautotrenbuskin</i> Nora joan dira lagun hauek oporretan?	Means of transport board game Curro se va de vacaciones	Nuestra actividad favorita en vacaciones Agurra	

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatzutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartea garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak kompetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT kompetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartea eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzigailu, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.


TXANELA 1

IKASLEAREN LIBURUA - 7. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0	 IRAKASLEA	Baliabideen taula	3	127	
1		Azalari behatzea	3	127	
2		Komikia	4-5	128-129	
3		Zer dakizu naturari buruz?	6	130	
4		Gurasoentzako gutuna	6	130	
5		Proiektuaren aurkezpena	7	131	
5		Naturagune baten azterketa	7	131	Liburuko 16. eta 17. orrialdeak
5		Eskema	7	131	
7		Hizki-tortilla	7	131	Lan-koadernoa 2, 30. or.
15		Bizidunak: landareak, zuhaitzak	8	132	
15		Naturaren sekretuak	8	132	
16		Urtaroak: mezu sekretua	8	132	Lan-koadernoa 2, 35. or.
17		Zuhaitzak: hostoen eta enborren behaketa zuzena	9	133	
21		Naturaren sekretuak	10	134	

21		<i>Naturaren sekretuak</i>	10	134	
22		Loreak: behaketa zuzena	11	135	
23		<i>Loretxin loretxo</i>	11	135	
24		<i>Ikusi nuenean doinua</i>	11	135	Lan-koadernoa 2, 36. or.
25		<i>Loretxo</i>	11	135	
26		Animalien behaketa zuzena	12-13	136-137	
26		Erakusketa antolatzen	12	136	Liburuko 16. eta 17. orrialdeak
27		Animalien musikak	13	137	
29		Hitzak ordenatu	13	137	Lan-koadernoa 2, 40-41 or.
32		<i>Rana saltarina</i>	13	137	
35		<i>Speedy the snail</i>	14	138	
35		Animalien irudiak	14	138	
37		Artelana	15	139	
37		Erakusketa osatzen	15	139	Liburuko 16. eta 17. orrialdeak
38		<i>Zabuan</i>	15	139	
38		Parkeko aldizkaria	15	139	Liburuko erdiko gehigarria
40		Testua berridatzi	15	139	Lan-koadernoa 2, 43. or.
41		Irakurgaien aurkibidea	15	139	Irakurgaiak 1, 4-5 or.

43		Mussorgski Modest Petrovitx 1	15	139	
43		Mussorgski Modest Petrovitx 2	15	139	
43		Entzunaldia: <i>Mussorgski Modest Petrovitx</i>	15	139	
45		Erakusketaren inaugurazioa: antzerkirako gidoia	15	139	
47		Zer dakizu orain naturari buruz?	18	142	
48		Komikia	19	143	
49		Komikia	20-21	144-145	
51		Historiaren horma-irudia	22-23	146-147	
51		Historiako irudiak	23	147	
54		<i>Hilabeteak</i>	23	147	
55		Atzera begira	24	148	
55		<i>Atzera begira</i>	24	148	
56		Komikia	25	149	
57		<i>Zeru altuan zegoen jaunak</i> doinua	26	150	
57		<i>Txoriak eta txoriburuak</i> doinua	26	150	
57		<i>Loriak udan ihintza bezela</i> doinua	26	150	
57		Bertsoa	26	150	Lan-koaderno 2, 52. or.
58		Entzunaldia: <i>Aita Donostia</i>	26	150	

58		Aita Donostia	26	150	
59		Ikasturtearen balorazioa	26-27	150-151	
60		Agurra: mezu sekretua	30	154	Lan-koadernoa 2, 53. or.
61		<i>On Josepe inventaterek oporrak behar ditu</i>	31	155	
62		<i>Laster oporrak</i>	31	155	
62		<i>Laster oporrak (letra)</i>	31	155	
64		Olerkia	30	154	Lan-koadernoa 2, 48. or.
67		<i>Helioautotrenbuskin</i>	30	154	Irakurgaiak 1, 104. or.
68		<i>Means of transport board game</i>	28-29	152-153	
71		Agurra	32	156	
71		<i>Airetun txikitun... doinua</i>	32	156	

JARDUERAK

1. JARDUERA SEKUENTZIA. Gaiaren aurre-ezagutzak aktibatu, motibazioa sustatu eta aurreikuspen-estrategiak landu.

1. jarduera	AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i></p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrekin aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.4 Elkarrizketaren oinarriko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Taldea txikian eta talde handian	
MATERIALA	Liburuaren azala eta talde txikiko partaideei beren funtzioa gogorarazteko irudia	
AZALPENA		

Gelako arduradunek liburuak banatuko dituzte eta ikasleei denbora tarte bat eskainiko diegu liburua ikusteko eta beren izena idazteko. Ondoren, unitate osoari eta, batez ere, azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Haurren interesari jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiak motibatzea izango dugu helburu.

- Ikasleak talde txikian jarriko ditugu (3 edo 4 ikasle). Behaketa bideratzeko talde bakoitzari, galdera bat luzatuko diogu. Galderak honako hauek izan daitezke:
 - *Zer jartzen du liburuaren azalean? Denboraren makinan egingo dugun hirugarren bidaian, nora joango garela uste duzue? Agian, liburuan idatzita egongo da nora joango garen.*
 - *Imajinatzen al duzue nolako izango den bidaia? Zer ikusiko dugu?*
 - *Zer egingo dugu ikasitakoarekin? Aurreko unitatean bezala, proiektu bat egingo dugu. Zer izango da?*
 - *Begira azalari. Zer ikusten duzue liburuaren azalean?*
- Azken galdera horri erantzuten saiatzen den taldearekin bideratuko dugu nagusiki azalaren inguruko elkarrizketa, nahiz eta beste ekarpenak egiteko aukera eskaini.
- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeke kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diogu:
 - Moderatzailea.* Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.
 - Denbora kontrolatzailea.* Irakasleak denbora muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio; adibidez, denbora erdia pasatu denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu.
 - Esataria(k).* Taldean pentsatutakoa adieraziko diote talde handiari.
 - Idazkaria.* Taldean esandakoak idatzi egingo ditu.

Talde txikiko lana bideratzeko komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraraziko dion irudia ematea. Irudi horiek plastifikatu, goiko aldea zulatu eta soka jartzen badiogu, lepotik zintzilikatu ahal izango dituzte ikasleek. Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Ondoren, talde handiari ekarpenak egiteko txanda emango diogu. Irakasleak ikasleen interesari jarraituz eta curriculumaren beharrak aurreikusiz, azalari buruzko elkarrizketa bideratuko du (Ikus *Elkarrizketa bideratzeko irizpideak* dokumentua). Azala aztertu duen taldearekin, honako hauek izan daitezke elkarrizketa bideratzeko galderak:
 - *Zer ikusten duzue hemen? Ikusten al duzue ezaguna egiten zaizuen zerbait? Eta ezagutzen ez duzuen zerbait? Zertarako izango da makila baten gainean dagoen etxetxoa?*
 - *Azalari begiratu eta... gure pertsonaiek urrutira edo antzinako garaietara joan beharko dutela uste duzue? Zergatik?*
 - *Zer da natura? Zer dira sekretuak? Eta zer esan nahi ote du izenburu horrek "Naturaren sekretuak"? Loturarik ba al dago izenburuaren eta irudien artean? Zer izen jarriko zenioke irudi horri?*
 - *Zer ikus dezakegu irudian? Horrelako edo antzeko tokirik ezagutzean al duzue? Gure herrian ba al dugu horrelakorik? Zer egin daiteke horrelako tokian?*
 - *Gustuko gaia izango dugula uste duzue?... Eta Urdintxok zer pentsatuko ote du jarraian datorren gaiari buruz?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .
1.6	Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.
1.6.3	Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta talde handian
MATERIALA	Liburuko 4-5 orrialdeak
AZALPENA	

- Aurreko komikietan zer gertatu zen gogoratuz hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko komikietan? Zer ekarri zuten Maddalenek eta Ferminek Erromatik museoa jartzeko?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei, "natura" hitzari erreparatuko diogu:
 - *Zuen ustez zer da natura? Zer dago naturan? Zer egin daiteke naturan? Zuek zer egiten duzue naturan?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Maddalen eta Fermin zertan ari direla uste duzue?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zer gertatu ote da Urdintxok papera hartu duenetik Poxek mina hartu duen arte? Zer gertatu ote da Maddalen eserita zegoen unetik haserretu den arte?*
 - *Ikusten al duzue Pox jantzita? Ezagutzen al duzue horrela janzten den pertsonaiarik? Zuen ustez zertan ari da?*
 - *Zertarako beharko dute Maddalenek eta Ferminek argazki-makina? Zer aterako diote argazkia? Zuek zerbait gehiago sartuko zenukete motxilan? Itzultzean zuen ustez zer egingo dute argazkiekin?*
 - *Komiki honetan ezagutzen ez duzuen hitzen bat agertzen al da? Zein?*
 - *Aurkitu al dugu izenburuaren jarraipenik? Zein da? Beste jarraipenik proposatuko al zenukete? Errimatuz? Errimari gabe?*
- Haurrek, elkarren artean, irakurketa mailan aldeak izango dituztenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu bi irakurketa egin.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Egin zuten azkeneko bidaiari Greziara eta Erromara joan ziren. Orain berriz, nora joango dira? Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin?*
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
 - *Zer uste duzue gertatuko zaiela gure pertsonaiei naturan pasatuko duten denboralditxoan?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (UDABERRIA, PIEZAK, NATURAGUNEA, NATURA, ANIMALIAK, LANDAREAK, BIZIGABEAK, TRASTEAK...) eskatu, eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzeko). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. jarduera	ZER DAKIZU NATURARI BURUZ?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea	
AZALPENA		

Beste sekuentzietara jo aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena plazaratuko dugu. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea ikasleen arteko eztabaidarako unea dela, eta ez erantzun guztiak ematekoa.

- Ezertan hasi aurretik, liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: goian eta ezkerrean azaltzen den galderaren esanahia eta galdera-ikurra, orrialdearen ezkerrean azaltzen den txartela, lauki horietan dauden testuak eta marrak dituzten lauki grisak. Inguruan dauden lerroetan naturari buruz dakitena idatziko dugula esango diegu.
- Ikasleei esango diegu mapa kontzeptual hori, aurrekoak ez bezala, ezkerretik eskuinera irakurriko dugula eta ez erdian dagoen kontzeptutik hasita. Beraz, ezkerrean dugun kontzeptutik (hitz bat irakurri edo entzuten dugunean gure buruan osatzen den irudia) hasita irakurriko dugu. Inklusiboagoak diren kontzeptuak, irudiak sortzen dituzten kontzeptuak ezkerreago egongo dira. Zenbat eta zehatzagoak izan, zenbat eta irudi gutxiago sortu, orduan eta eskuinerago egongo dira.
- Kontzeptuak eta horien arteko loturak nola adierazten diren, ez diegu, oraingoz, azalduko. Unitatearen bukaeran denon artean kontzeptu-mapa osatuko dugu eta orduan izango dugu aukera kontzeptu-mapa zertan datzan era xume-xumean lantzeko. Beraz, une honetan, ezta bukaeran ere, ez gara arituko, kontzeptu-mapen eraikuntza sistematikoki irakasten.
- Ikasleak launaka jarriko ditugu eta ikasleei naturari buruz zer dakiten jakiteko galdeketa bat antolatuko dutela esango diegu. Irakasleak lehenengo galdera idatziko du arbelean, hitz gakoa azpimarratuz. Ondoren, irakasleak talde guztiei galdera luzatuko die. Ikasleek, orduan, denbora-tartea izango dute beren artean erantzuna adosteko. Erantzuna ez badakite, egiazat har daitekeen hipotesia asmatu dezakete. Talde guztiek, txandaka, talde txikian adostutakoa talde handian plazaratuko dute.
- Bukatzeko, hurrek banaka beren liburuetan taldean entzundakoa edo beraiek pentsatzen dutena idatziko dute.
- Beraz, ikasleek hitzak edo hitz pareak idatziko dituzte.
- Galdera guztiek in jarraituko dugun prozesua honako hau izango da: galdera irakurri, hitz gakoa biribildu, galdera luzatu talde txikiei, talde txikietan erantzunak adostu, talde bakoitzeko erantzuna entzun eta banaka edo binaka erantzunak idatzi. Talde txikietan dauden bitartean, irakaslea inguruan ibiliko da zer dakiten eta zer interesatzen zaien identifikatzeko.
- Bukatzeko, idatzi ez dugun zerbait ote dakiten galdetuko diegu. Ikasleen ekarpenak arretaz entzun eta positiboki balioetsiko ditugu.
- Liburua itxi aurretik txoko zuriaren ikurrari erreparatuko diegu. Zertarako? Gehiago ikasteko eta gehiago jakiteko. (Ikusi hurrengo jarduera)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

4. jarduera	NATURAREN TXOKOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskaintako jarraibideen laguntzaz.		
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.		
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea, eranskinetan aurkituko duzun familientzako gutuna eta gaiaren inguruko materiala (liburuak, posterrak, argazkiak, puzzleak, bideoak, panpinatxoak, landareak...)	
AZALPENA		

Oraingo honetan txoko zuria, naturaren txokoa bihurtuko dugu. Beraz, txokoa antolatzen hasiko gara.

- Ikasleekin batera izenburua idatzi, apaindu eta zintzilikatuko dugu. Bestalde, irakasleak ekarritako zerbait txokoa kokatuko du, ikasleek txokoaren izaera irudikatzen has daitezen.
- Gurasoei gutun bat idatziko diegu Maddalen eta Ferminen izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutuna gidaren bukaeran, edota liburu digitalean, aurkituko duzue.
- Hainbat material jar dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikoak, ipuinak, argazkiak, posterrak, landareak, etab.).
- Txoko honetara hainbat hizkuntzatan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia dagoen tokietan, ekartzen dituzten ipuinez, bideoez, etab. balia zaitezke, baita ere, proposamena indartzeko. Ingeleseko kasuan beste hainbeste egin daiteke.
- Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela, batez ere, taldeko lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala irakasleak bideratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Horrela, ekarritako materiala besteen eskura jarriz eta azalduz, txokoa eratzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da.
- Ikasleek, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle guztiek ezingo dute aurkeztu txokora ekarritako materiala. Hala ere, aurkezpenak egin dituzten ikasleen izenak idatziz jasoko ditugu. Ikasleek, irakasleak aurrez prestatutako tresnak erabiliz, ekarritako materialaren eta aurkezpenen kontrol idatzia jasoko dute. Bestalde, arratsaldero, etxera joan aurretik, arduradunak txokoa txukuntzeaz arduratuko dira.
- Informazio ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, edo gehiago jakin nahi dugunean, naturaren txokora joko dugu, informazio bila eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

5. jarduera	PROIEKTUAREN AURKEZPENA: NATURAGUNE BATEN AZTERKETA (Aldizkaria eta erakusketa)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 7. orrialdea, hainbat aldizkari eta animaliei edo landareei buruzko informazio-liburu bat. Liburuko 16-17 orrialdeak	
AZALPENA		

Naturaren gaia landu bitartean, inguruko naturagune batean dauden izaki bizidunen azterketa eginez (bizilekua, bizimodua, ezaugarriak...), eta haiei buruzko fitxak edo azalpen-testutxoak idatziz, ikasle bakoitzak aldizkari bat osatuko du. Bizidunen inguruko ezagutzak martxan jarri eta proiektua proposatu ondoren, aldizkariaren edukiak adostu, baliabideak aurreikusi, lanak banatu eta irtenaldia planifikatu dugu. Irtenaldia egin eta gero, hautatutako landare eta animalien fitxak osatuko ditugu, bizidunei buruzko informazioa aztertuz eta hizkuntzaren ekoizpen eta ulermen estrategiak landuz. Ebaluazioan, egindako lana (prozesua, planifikazioa, gogoa, zailtasunak, gozamina...) bakarka balioetsi eta ondorioak aterako dituzte.

Gida honen sarreran esan genizuen bezala, Txanela liburua, informazioa eskuratzeko tresna gisa baliatuko duzue. Hau da, bizidunen behaketa bideratzeko irizpideak liburuan azalduko dira, baina ikasleek bizidunei buruzko azalpen-testuak aldizkarian idatziko dituzte. Era honetan, behaketarako irizpideak barneratuz, behaketa eginez eta azalpen-testuak idatziz, pixkana-pixkana aldizkaria osatuko duzue. Beraz, unitatea garatzeko, aldizkaria osatzeko, ezinbestekoa izango da naturagune bat osatzen duten elementuak behatzeko irtenaldi bat egitea. Gertu dagoen naturagune bat aztertuz gero, liburuan ikasitakoa, egunean bertan zuzenean behatzeko aukera izango duzue. Horrela lana egiten baduzue, lau bat aldiz joan beharko duzue parkera landutakoa aztertzeko. Aztertuko duzuen naturagunea gertu ez badago, irtenaldia unitatearen hasieran egin beharko duzue eta irtenaldian egindako argazkiei behatuz, azalpen-testuak idatziko dituzue.

Aldizkaria egiteaz gain, interesgarria litzateke unitatean zehar burutuko duzuen prozesuan egindako eta bildutako material guztiarekin erakusketa antolatzea. Erakusketarako pista batzuk izan ditzazuen, hona hemen liburuko 16-17 orrialdeetan agertzen den erakusketaren irudikapena aztertzeko gidoia:

- Aztertutako parkearen planoak.
- Birraitonaren sailkapenaren posterra.
- Landareen txokoa:
 - Zuhaitzak.* Zuhaitz erraldoia egin zatiak adieraziz. Bildutako zuhaitzen hostoekin egindako fitxak (hostoa eta zuhaitzaren izena)
 - Zuhaixkak eta belarrak.* Zuhaixken fitxak. Belarren eta loreen fitxak.
- Animalien txokoa:
 - Ornodunen sailkapena.* Argazkiak, edota haurren marrazkiak, erabiliz horman itsasteko fitxak.
 - Ornogabeak.* Argazkiak, edota haurren marrazkiak, erabiliz horman itsasteko fitxak.
 - Pertsonen txokoa.* Erabiltzaileak, lanbideak...
- **Bizigabeen txokoa:** estatua/eskulturen bat landu badugu, horren inguruko materiala, parkeko hiri-altzariak...
- Unitatearen zehar egindako **argazkiak, bideoak**...
- Haurren **aldizkariak** ikusgai jartzeko txokoa.
- Bisitarien iritziak jasotzeko **koadernotxoak**.

Proiektua garbi edukitzea eta lana burutzeko ideiak botatzea da gure gaurko lana. Proiektuaren garapenerako lehen urrats nagusia da. Hau da, hurrek zer egin behar duten jakin eta haren inguruan pentsatzen jartzeko lehen unea da. Aurrerago proiektua planifikatu, ekin, komunikatu eta balioetsiko dugu.

- Liburuak ireki, eman denbora orrialdeari eta elementu guztiei (argazkiak, marrazkiak, ikonoak, globoak...) ondo behatzeko. Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu.
- Bonbillari beharazi eta zer adierazten duen galdetu. Esan ikasleei, aurreko unitateetan bezala, proiektu bat egingo dugula. Gogora ekarriko dugu denboraren makina egiteko, dinosauroen garaiko maketa eraikitzeke, lehen gizakiaren antzerkia prestatzeko eta hamaietako osasuntsua eta olinpiadak antolatzeke eman genituen urratsak. Hau da, proiektuaren aurkezpen-orriari behatu eta antolaketarako ideia sortu (planifikatu), liburuan ikusitakoa edota ikasitakoa gure proiektuan erabili edo aplikatu (ekin), gure lana beste batzuei erakutsi (komunikatu) eta egindako lanari buruzko iritzia jaso (balioetsi).
- Maddaleneke ematen digun informazioa aztertuko dugu:
 - Zer esaten ari zaigu Maddalen? Esaten duen horretan hitz guztiak ezagutzen al ditugu? Behatu globoko 9. hitzari. (Irakasleak AZTERTU hitza arbelean idatziko du). *Nola hasten da? Zer jartzen ote du? Zer esan nahi du? Eskuinean badago beste globo bat. Irakurriko al dugu? Aztertzea zer den badakigu, baina zer ote dira ALDIZKARIA eta ERAKUSKETA?*
- Globoen ondoren, irudiak aztertuko ditugu:
 - Zuen ustez zertan ari dira argazkietako haurrak? Zertarako egiten dute hori? Nola sentitzen dira? Zuek nola sentitzen zarete eginkizun horren aurrean?

- Galderari erantzunez, interesgarria litzateke denon artean aldizkaria zer den aurreikustea eta hitz egitea gurea nolako izango den. Orrialde horretan agertzen zaizuen eskema bat dator ikasleek egingo duten aldizkariaren aurkibidea eta gure unitatearen ikasnorabidearekin. Nahi izanez gero, taldean irakurri ondoren elkarriketa bat bultza dezakegu, hurrek aldizkariaren gaia aurreikus dezaten. Eskema Txanela.neteko 7. unitateko 3. jardueran eta liburu digitalean aurkituko duzue. Eskema inprimatu eta naturaren txokoa jar dezakezue.
- Segidan, unitatearen ardatza izango den aldizkaria aurkeztuko diegu haurrei, hainbat aldizkariri behatuko diegu azaletik hasi eta bukaeraraino. Haurrak hiruak bildu eta talde bakoitzari aldizkari bat eman. Arbelean behaketarako atalak idatziko ditugu: azala, izena, gaia, aurkibidea, barneko orrien edukia... Amaitzeko elkarriketa bideratuko dugu elementu adierazgarriak taldean aurkeztuz.
- Gure aldizkaria liburuan gratututa dagoela esango diegu ikasleei. Parkeko aldizkariari behatzeko minutu batzuk utzi ondoren, liburu guztiak bilduko ditugu. Izan ere, irakasleak, Txanela liburuaren erdialdean dagoen aldizkaria, liburitik atera eta grapatu egingo du. Lan hori egiteko, denbora arazoa baldin baduzue, ikasleek etxera eraman dezakete beren liburua eta gurasoek erraz askatuko dute erdiko liburuxka. Bestela, goiko mailetako ikasleen laguntzaz egin dezakezue.
- Informazio ikurra orrialdean bertan jartzea erabaki dugu, aldizkaria osatzeko guztiz beharrezkoa izango delako naturaren txokoa ondo hornituta egotea. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala irakasleak bideratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleak zientzia-dibulgazioko liburuak zein liburu mota diren eta non aurki daitezkeen (liburutegian, Interneten...) esango die ikasleei. Irakasleak zientzia-dibulgazioko liburu bat erakutsiko die ikasleei eta horrelako liburuak ekartzera animatuko ditu.

Aldizkaria egiteaz gain, interesgarria litzateke unitatean zehar burutuko duzuen prozesuan egindako eta bildutako material guztiarekin erakusketa antolatzea. Erakusketa, jakina, ez dugu bukaeran antolatuko, baizik eta prozesuan zehar bildutakoa, gure gelan edo erakusketarako erabil dezakegun beste gela batean, pixkana-pixkana erakusgai jartzen joango gara. Horretarako interesgarria izango litzateke unitatean zehar burutuko duzuen prozesu guztiaren dokumentazio grafikoa biltzea (argazkiak, grabazioak...).

- Beste egun batean, 16-17 orrialdeetan azaltzen den horma-irudia aztertuko dugu ikasleekin, unitatea garatzen dugun bitartean, biltzen dugun materiala erakusgai jartzeko modua irudika dezaten.
- Ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesen eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.
 - *Zer ikusten duzue hemen? Ikusten al duzue ezaguna egiten zaizuen gauzaren bat? Eta ezagutzen ez duzuen zerbait? Zenbat txoko ikusten dituzue marrazkian? Ikusten al duzue landareen txokoa? Ikusten al duzue animalien txokoa? Ikusten al duzue krokisa, plana eta eskema dauden txokoa? Ikusten al duzue gelaren erdian dagoen mahaiaren gainean dauden aldizkariak? Ikusten al dituzue helduak eta haurrak?*
 - *Zertan ari dira haurrak eta helduak? Zer gertatu ote zen erakusketa dagoen gelako atea ireki dutenetik bikote bakoitzak txoko bat behatzen ari den arte?*
 - *Zertarako uste duzue jarri dietela txoko bakoitzari eta elementu guztiei izena?*
 - *Zer izen jarriko zenioke marrazkiari?*
 - *Etorri al dira inoiz zuen etxeokoa gelara zuek egindako lanen bat ikustera? Eta ondo ala gaizki pasa zenuten?*
 - *Arraroa irudituko al litzaizueke erakusketan dauden guztiak txoko batean elkartzea? Zer egin beharko genuke hori gerta ez dadin?*
 - *Zer uste duzue gertatuko zaiola mahaiaren azpian dagoen haurrari burua jaso eta kolpea hartzen badu?*
 - *Erakusketa honetan ageri diren haurrak gustura daudela iruditzen al zaizue? Zer esaten ari dira? Zer pentsatzen ari dira? Zergatik?*
 - *Imajina ezazue erakusketa egiteko beste modu bat. Zer aldatuko zenukete? Zer jarriko zenukete? Zer kenduko zenukete?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

6. jarduera	ZER IKASI / EGIN BEHAR DUGU ALDIZKARIA EGITEKO?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Ikasleen galderak eta proposamenak idatziz jasotzeko paper zuria (1 m x 75 cm ingurukoa)	
AZALPENA		

Jarduera honetan, beste aldagai bat sartu dugu. Alegia, unitatearen sekuentziak berak proiektuarekin duen mendekotasuna tarteko, ikasi beharrekoak lotura hertsia du burutu beharreko eginkizunarekin. Beraz, proiektua gauzatzeko, ustez, zer ikasi beharko dugun plazaratuko dugu jarduera honetan. Tresna horrek, ondorioz, bi zati izango ditu: bat, proiektua gauzatzeko jakin beharrekoak eta bigarrena ikasleen interesei erantzuteko, gaia hedatzeko eta curriculumaren beharrak asetzeko ikasleek ikasi edo jakin nahi dutena.

Lehenengo atalari dagokionez (*Zer ikasi behar dugu aldizkaria egiteko?*), egin beharrekoak planifikatzen hasi beharko dute. Kontuan hartu aurreikusi daitezkeen hainbat lan: irtenaldia egin, behaketa lana egiteko ardurak banatu, bizidunak aztertze baliabideak aurreikusi, informazio-liburuak eskuratu... Erantzunak eta galderak idatziz jasoko ditugu ikasleen begi-bistan egongo den poster handi batean, nola hala, ikasnorabidea antolatuz. Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea da. Landuko dutena alde aurretik ezagututa, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, landu ostean, ikasitakoari beste zentzu bat emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da. Edozein une izan daiteke egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko.

- Herriko parke edo naturagune bat aztertuko dugunez, taldeko elkarrizketa bultzatuko dugu, haur bakoitzak herrian edo inguruan ezagutzen dituenak agertzeko eta denon artean zein aztertu behar duzuen erabakitzeke. Bakoitzaren bizipenak adierazteko tarte bat ere uztea egokia litzateke. Gogorarazi txiki-txikitatit gurasoek edo besteren batek parkera eramaten zituela: zabuan, etab. ibili zireneko lehen aldiak, beldurrak, erorketak, lagunak, askaria...
- Liburuaren orrian azaltzen den bezala, biribilean eseriko gara eta ikasleei bi galdera hauek luzatuko dizkiegu:
 - *Zer ikasi /egin behar dugu aldizkaria egiteko?*
 - *Zer ikasi nahi duzue animaliei eta landareei buruz?*
- Ikasleei denbora-tarte bat isilean pentsatzeko eman ondoren, beren ekarpenak idatziz jasoko ditugu. Lehen esan bezala, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusiaren arabera eta xehetasunak galdera horien azpial moduan hierarkizatzea. Unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nola nahi ere, gidaren hasieran, egileok proposatzen dugun ibilbidearen edo sekuentzia tematikoaren eskema aurkituko duzue. Beraz, haurren ideiak horren arabera bideratu eta antolatu ditzakezue.

Ikasnorabidearen bigarren atala, hau da, ikasleek ikasi nahi/behar dutena, gaia jorratzen ari garen bitartean garatzeaz gain, unitatearen bukaerako kontzeptu-mapa eraikitzeke ardatz moduan erabiliko dugu. Bukaerako lan hori osatzeko haurrak bizpahiru lagunek osatutako taldetan elkartuko ditugunez, komeni da orain aurreikustea talde bakoitzak ikasnorabideko galdera bati erantzuna eman beharko diola. Horren ondorio zuzena da, galdera kopurua eta talde kopurua bat izaten ahalegintzea. Galdera kopurua oso ugaria bada, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera, eta xehetasunak galdera horien azpial moduan hierarkizatzea.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

7. jarduera	HIZKI TORTILLA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...		
1.8.6 Zuzentasun-maila onargarriarekin adierazten ditu ideiak, landutako arauak errespetatuz: fonema-grafia korrespondentzia, puntuazio-markak (puntu, galdera- eta harridura-ikurra), hitz banaketa, letra larriak.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 30. orrialdea	
AZALPENA		

Hurrek hitzak behar bezala bereizten badituzte, orrialde horretan agertzen den esaldia ulertzeko moduan idatzi ahal izango dute. Horretarako hitzak ondo banatu beharko dituzte.

Esanahia duten oinarrizko unitateaz (hitzak) ohartzeko gaitasunari, kontzientzia lexikoa deritzogu. Beraz, segmentazio lexikoa lantzeko ariketa dugu hori. Idazketaren urrats silabiko-alfabetikoan eta alfabetikoan dauden ikasleen produkzioetan, hipo eta hiper segmentazioak maiz agertzen dira. Hiposegmentazioak ohikoak dira ikasleek item bakoitza kodetzean arreta handia jartzen dutenean. Egoera horretan itemak continuum gisa agertu ohi dira. Pixka bat aurrerago bereizketa supralexikalak azaltzen dira aditz nagusia eta laguntzailearen artean (Amona etorrída.) Bereizketa infralexikalak berriz, itemak testuinguru batean hitzak eta beste batean hitz baten silaba izan daitezkeenean azaltzen dira: (Bi deoa ikusi dut.)

Konbentzionalak ez diren bereizketak, idazketaren funtzionamenduaren ikaskuntzari dagokion urratsa da, eta alfabetizazio arrakastatsua denean, bigarren mailatik aurrera, desagertuz joaten dira.

Hona hemen kontzientzia lexikoa garatzen lagungarriak diren hainbat ariketa:

- *Letra-zopak, hitz gurutzatuak.*
- *Esaldi bateko hitzak zenbatu*, hitz bakoitzeko txalo bat edo hanka-pauso bat emanez.
- *Esaldi bateko hitzak identifikatu*. Hitz bakarra aldatzen den bi esaldi aurkezten dira. Ikasleak hitz hori identifikatu beharko du. Adibidez: "Erromatar batzuk legionarioak ziren. Erromatar batzuk gladiadoreak ziren."
- *Hitzak gehitu*. Ariketa horretan bi esaldi aurkezten dira. Bigarrean hitz bat gehitzen da eta ikasleak hitz hori identifikatu beharko du. Adibidez: "Erromatarren sandaliak marroiak eta gogorrak dira. Erromatarren sandaliak marroiak dira."
- *Hitzak kendu*. Ariketa horretan bi esaldi aurkezten dira. Bigarren esaldian lehenengo esaldian dagoen hitz bat ez da esaten. Ikasleak hitz hori identifikatu beharko du. "Maddalen eta Fermin bihar zirkura doaz. Maddalen eta Fermin zirkura doaz."

Gure ustetan egokiena, hurrek beraiek idatzitako testuetan oinarrituz, guztien artean eta arbelean horien inguruko hausnarketa eta zuzenketa bideratzea da. Har itzazue hurrek idatzitako esaldi batzuk edota beraiek proposa ditzatela eta guztien artean irakurri eta zuzendu. Denbora daukagu akats horiek zuzentzeko, baina, jada ez litzateke soberan egongo hausnarketa horri heltzea. Ikasle guztientzat izan daiteke onuragarri. Aurretik doazenek hausnarketa hori egiterakoan idatzia eta aho hizkuntzaren arteko berezitasun gehiago barneratuko dituzte eta atzeraxeago doazenak behaketa horren bidez kode eta arauaren inguruko hausnarketa eginez, hainbat irizpide barneratzen has daitezke.

- Lan-koadernoak irekiko dugu 30. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, erdian azaltzen den mezua eta idazteko marrak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Ikasleei binaka jartzeko eskatuko diegu. Irakasleak hitzak dituzten txarteltxoak prestatuko ditu, bikote bakoitzak ordena ditzan, hitzen artean tartetxo bat utziz. Eredu gisa lan-koadernoko mezua erabiliko dute.
- Hitzak dituzten txarteltxoak mahaiaren gainean ordena egokian jartzen dituztenean, lan-koadernoan kopiautuko dituzte.
- Bukatzeko, beraiek idatzitako testua baliatuz, liburuko mezuan hitzak bereizteko eskatuko diegu, hitzen artean marra bat jarritz.
- Horrelako ariketa gehiago egin nahi badituzte, liburu digitalean edo Txanela.neteko 6. unitatearen 57. jardueran, testua ordezkatzeko aukera ematen duen lan-koadernoko orrialde hau, aurkituko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

8. jarduera	IRTENALDIA: JOKABIDE EGOKIAK
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
4.1	Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.
4.3	Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete beharren premiaz ohartzea.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuek, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
4.1.1	Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.
4.3.3	Arauk balioesten ditu bizikidetzeta baketsua bermatzeko eta gatazkak saihesteko bitarteko diren aldetik.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Talde bakoitzeko DIN-A3 orria eta adosten dituzten arauak irudikatzen dituzten kartoi mehezko txarteltxoak
AZALPENA	

Parkera edo naturagunera joan aurretik, elkarrekin gustura egoteko arauak buruz hitz egin eta jokabideei buruzko adostasun batzuk lortzen saiatuko gara haurrekin. Elkarrizketaren ondoren, gai horren inguruan lan-koadernoan proposatzen zaizkizuen ariketak egin ditzakezue.

- Ikasleak eta irakasleak biribilean eserita, kalean eta parkean gertatzen diren jokabide egokiei eta desegokiei buruzko elkarrizketa aurrera eramango dute. Gai horren harira, arauen eta seinaleen beharrez ere arituko gara. Iritziak taldean egiaztatzen eta haur bakoitzaren erabakia taldean defendatzeko eta besteen ikuspuntua onartzeko agertzen dituzten gaitasunei behatuko diegu. Adibidez, zakurra parkera kaka eta pixa egitera eramatera, haur gehienek, seguru asko, desegokitzat joko dute, baina, suerta daiteke baten batek egokitzen jotzea "hobe delako zakurrek belardian kaka egitea espaloietan baino". Gogoratu egoera horretan irakaslearen lana ez dela erantzun guztiak ematea edo ebaluatzea, baizik eta elkarrizketa bideratzea, ikasleek ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleek ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea. Oro har, irakasleak badaki ikasleek zer esan dezaketean eta nora eraman nahi dituen, baina ikasleak berak hasi behar du hitzak argitzen. Hizkuntza-funtzioak aktibatzen hainbat galdera proposatzen dizkizuegu. Irakasleak, jakina, horiek erabili edo berriak asmatuko ditu ikasleek behar edo interesen arabera.
 - Parkean denok ondo pasatzeko eta gustura egoteko, bidean eta parkean bertan errespetatu behar diren arauak buruz hitz egingo dugu. Ikusten al duzue arazorik gerta daitekeela parkean edo kalean? Zer arazo? (errepidea begiratu gabe zeharkatzea, taldean joan beharrean baten bat despistatzea, parkeko eserlekuak gainera igotzea, lorategietako loreak hartzea, zabuan ibiltzeko txanda ez errespetatzea, txirristatik gora oinez igotzea, paperak lurrera botatzea...).
 - Zer hartu behar dugu kontuan irtenaldira ateratzen garen egunean?
 - Zer gertatuko litzateke errepidea begiratu gabe zeharkatuko bagenu edo taldean joan beharrean baten bat despistatu eta bakarrik geratuko balitz, edo denok parkeko eserlekuak gainera igotzeko bagina...?
 - Zer egin beharko genuke egoera horren aurrean? (Seinaleei begiratu, jokabide egokiak adostu...).
 - Zer gertatuko litzateke araurik eta seinalerik ez balego? Seinaleak errespetatu behar al ditugu? Zergatik?...
 - Arraroa irudituko al litzazuke jokabide desegokiak dituzten haurrak irakaslearen eskutik joan behar izatea? Zergatik? Zer egin dezakegu hori ez gertatzeko? Nola sentituko da bere kabuz kalean ibili, jolastu eta animaliei eta landareei behatuko diena?
 - Gogoan al duzue denak oso gustura egon zirenen irtenaldiren bat? Nora joan zirenen? Zer gertatu zen?
- Kalean eta parkean gustura egoteko eta natura zaintzeko oinarrizko arauak bilduko dituen horma-irudi bat egin dezakegu, hemen proposatzen zaizuen prozedura erabiliz:
 - Ikasleak launaka jarriko ditugu eta ikasle talde bakoitzak egoera jakin bati dagozkion jokabide egokiak edo arauak idatziko ditu. Egoera hauek izan daitezke: autobusa, kalea, jolas parkea, bazkaltzeko ordua edo hamaiketakoak hartzeko ordua, animalien behaketa, landareen behaketa...
 - Arauk idatzeko orduan jokabide egokia zein den azaldu behar dutela gogoraraziko diegu. Horrela, denok jakingo dugu zer egin behar dugun hainbat egoeratan. Adibidez, Politak iruditzen zaizkigun landareei argazkia aterako diegu. Bazkaldu ondoren hondakinak zakarrontzira botako ditugu. Kalean taldean eta poliki ibiliko gara.
 - "Arkatzak erdira" prozedura martxan jarriko dugu. Teknika horren helburua komunean dugun helburu bat betetzeko, iritzi guztiak entzutearen garrantzia azpimarratzea da. Taldekide guztiak arkatzak mahaiaren gainean utziko dituzte, lauki bat osatuz. Ondoren, moderatzaileak taldeari egokitu zaion egoera gogoraraziko die taldekideei. Denbora-kontrolatzaileak martxan jarriko du kronometroa, kide guztiak bi minutu har ditzaten erantzuna pentsatzeko. Minutua pasa denean, moderatzaileak berriz ere txanda emango die taldeko kide guztiak, norberak pentsatu duena azaltzeko.
 - Beste iritzi batzuk bururatzen bazaizkie, norberak bere iritzia defendatu beharko du, eta bozketa egingo da. Erabakia hartzeko gai ez badira, ikasle bakoitzak bere iritzia hiltzen diolako, irakasleak lagunduko die, azkeneko erabakia hartzeko irizpideak emanez.
 - Bukatzeko, idazkariak arauak idatziko ditu eta marrazki edo ikono bidez irudikatuko dituzte.
 - Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean eta talde bakoitzeko irakurleak, taldeak landu duen egoeraren arauak azalduko/irakurriko ditu.
 - Bukatzeko irakasleak talde bakoitzeko lana paper txuri handi batean itsatsiko du. Ondoren, adostu ditugun arauak betetzeko konpromisoa hartuz, guztiok sinatuko dugu horma-irudiaren azpialdean.

Parkera joateko irtenaldi dezente egin behar badituzue, kalean zehar eta parkean ikusten ditugun seinaleak eta beraien esanahia ere azter dezakegu:

- Ikusten ditugun seinaleen fitxategi edo bilduma bat osatuz taldeka: behatu, marraztu, forma eta esanahiaren arabera sailkatu... Edota gauza politagoa oraindik: kartoi mehean seinale handi batzuk egin, margotu eta makila bat ipini. Ondoren, gelako/gimnasioko zoruan zinta itsaskor zuriarekin kaleak irudikatu eta baita bertan jarriko ditugun seinale bertikalei dagozkien lurreko irudiak ere (stop, zebrabidea, eman bidea...). Guztia prest dagoenean, haur batzuk seinaleei eutsiko diete eta besteek trafikoa irudikatu eta antolatuko dute.

Gai honetan gehiago sakontzeko: Lan-koadernoko 31, 32 eta 33. orrialdeak eta Irakurgaiak 87., 88. eta 107. orrialdeak.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

9. jarduera	IRTENALDIA: JOKABIDE EGOKIAK ETA DESEGOKIAK (lan-koadernoan)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.3 Bizikidetzaren demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.6 Zuzentasun-maila onargarriarekin adierazten ditu ideiak, landutako arauak errespetatuz: fonema-grafia korrespondentzia, puntuazio-markak (puntuak, galdera- eta harridura-ikurra), hitz banaketa, letra larriak.</p> <p>4.3.3 Arauak balioesten ditu bizikidetzaren baketsua bermatzeko eta gatazkak saihesteko bitarteko diren aldetik.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 31-32-33 orrialdeak	
AZALPENA		

Orrialde horietan azaltzen diren ariketen bitartez, hor agertzen diren jokabideak beren iritziz egokiak ala desegokiak diren adierazi eta arrazoitu beharko dituzte ikasleek.

LAN KOADERNOA 31

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, binetak, globoak... Komikien hainbat ezaugarri berrikusteko aukera daukagu orain.
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Taldean istorioa aztertuko dugu. Horretarako, irakasleak landare bat eta lan-koadernoko binetan bertan azaltzen diren seinaleak gelara eramango ditu eta hainbat ikasleri egoera antzezteko eskatuko die.
- Bakoitzak istorio hori bere erara adierazi beharko du, agertzen diren globoetan idatziz.
- Bukatzeko, irakasleak ariketan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

LAN KOADERNOA 32

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, taula...
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Irakasleak, esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du: indar bereziz intonatuz, silabak markatuz...
- Hitz gako hori bilatu eta gorri edota beste kolore batez inguratuko dute ikasleek.
- Aurretik kolorez inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, esaldiak irakurtzeko, jokabidea egokia edo desegokia den erabakitzeko eta gurutzeta dagokion tokian jartzeko eskatuko zaie haurrei. Lan hori lehenbizi banaka eta gero ondoren dagoen lagunarekin erantzuna egiaztatuz egin dezakete.
- Bukatzeko, irakasleak ariketan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

LAN KOADERNOA 33

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, marrazkia, idazteko lerroak...
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Bukatzeko, lan-koadernoko marrazkiari behatu ondoren, hor agertzen diren jokabideak egokiak diren ala ez adierazi eta zergatia idatzi beharko dute. Litekeena da ikasleek hitz bakarra erabiltzea egoera deskribatzeko. Hori ez gertatzeko irakasleak talde handian lehenengo egoera deskribatuko du, adibide gisa.

IRAKASLEA: Zer gertatzen ari da?

IKASLEA: Zabua puskatu da.

IRAKASLEA: Oso ondo, zabua puskatu da, baina zergatik?

IKASLEA: Bi hurrek batera ibili nahi dutelako.

IRAKASLEA: Beraz, ez dute zabuan ibiltzeko txanda adostu ezta?

IKASLEA: Bai, zabua puskatu da, ez dutelako txanda adostu.

IRAKASLEA: Oso ondo. Beraz, hori idatziko dugu, zer gertatu den eta zergatik. "Zabua puskatu da ez dutelako txanda adostu." Ea esan dezagun esaldia/idea hatzekin, hitzen arteko tartetxoak jartzeko. Hitz bakoitzeko hatz bat goratuko dugu.

IKASLEA: Zabua (*hatz txikia gora*) puskatu (*hatz nagia gora*) da (*hatz luzea gora*) txanda (*hatz erakuslea gora*) adostu (*hatz lodia gora*) ez (*hatz lodia gora*) dutelako (*hatz erakuslea gora*).

IRAKASLEA: Zenbat hitz dira?

IKASLEA: Zazpi

IRAKASLEA: Zer jarriko dugu bukaeran ideia bukatu dela adierazteko.

IKASLEA: Puntua.

IRAKASLEA: Bikain, hasi lanean.

- Bukatzeko, irakasleak ariketan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

10. jarduera	SUTEAK: JOKABIDE EGOKIAK ETA DESEGOKIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.2	Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i> , aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i> .	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.6	Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .	
2.1	Ingurumen fisikoko oinarriko elementuak eta baliabideak pertsonen bizitzarekin duten harremana ezagutzea eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.2.2	Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuk, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.6.2	Testu genero ohikoak bereizten ditu, beren oinarriko ezaugarriak hautemanen.	
2.1.2.	Gizakiok inguru naturalaren aldaketan dugun eragina, eta harremanetik ondorioztatzen diren erabilera desegokiak identifikatzen ditu.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak 107. orrialdea	
AZALPENA		

Urtero, milioika hektarea baso erretzen da. Gauza jakina da sute gehienak gizakiaren axolagabekeriagatik (gaizki itzalitako zigarrokinetatik, kanpaleketan baimenik gabe egindako suteetatik, etab.) edo tximistaren energia handiagatik pizten direla. Orrialde horretan agertzen den testuaren bidez, haurren artean hausnarketa bultzatuko dugu. Gure helburua haurrek diotena entzutea, bideratzea eta kontraesanak sortzea da, gure iritzia geroxeago eman baitezakegu. Egoera hori, natura-ingurunearen zaintzaren ikuspuntutik bideratzea proposatzen dugu.

Suteen inguruko bi berri aurkituko ditugu oraingoan. Irakurtzen hasi aurretik, testu mota horren inguruko azterketa bat bultzatu: zer testu den, funtzioa, egilea, errealitatearekiko erlazioa, ezaugarri nagusiak... Ondoren, naturan suteek eragiten dituzten kalteei buruz eta horiek saihesteko bakoitzak egin dezakegunari buruz hitz egingo dugu.

- Irakurgaiak liburua irekiko dugu 107. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orriaren behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, argazkia, argazki-oina eta mamia.
 - *Zer ikusten dugu orrialde horretan? (BERRIA) Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak? Telebistan ere berriak ematen al dituzte? Adibidez...*
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, berriaren izenburua, argazki-oina eta mamia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte. Izenburuarekin hasiko gara: *Inork ba la daki zer gertatu den bart Jaizkibelen? Zer jarriko ote du argazkiaren azpian? Zein herritatik gertu piztu zen sutea? Nork hartu zuen parte itzaltze-lanetan? Goazen, bada, irakurtzera. Agian, berria irakurtzen badugu gehiago jakingo dugu!*
- Irakurri berria.
- Bigarren irakurketa egiten hasi aurretik, arretaz entzuten laguntzeko, ikasleak talde txikietan jarriko ditugu eta hainbat talderen erantzuna aurkitu behar dutela esango diegu: *1. Non piztu zen sua? 2. Zergatik uste dute nahita eragindakoa izan zela? 3. Zenbat denbora behar izan zuten sutea kontrolpean izateko? 4. Nolakoak izan dira suak eragindako kalteak?*
- Esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariek taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: "Gure ustez... da". Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela taldeen arteko eztabaida eta iritzia arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.
- Bigarren testua goiko urratsak emanez landu dezakezue. Hau da, lehenengo talde handian berriaren atalak landu eta esanahi ondorioztatu. Ondoren, berria osorik irakurri. Gero, ikasleek taldeka jarri eta berria berriz irakurri haurrek informazio zehatza aurki dezaten, eta, bukatzeko, testuan azalduko ideiak laburtu.
- Bukatzeko, naturan suteek eragindako kalteei buruz eta horiek saihesteko bakoitzak egin dezakegunari buruz hitz egingo dugu.
 - *Ezaguna egiten al zaizue egoera hori? Inoiz entzun al duzue sute baten inguruko berriak? Non? Nola sortu zen?*
 - *Zer gertatzen da mendian txuleta erretzeko su txiki bat piztu eta basoa erretzen den arte?*
 - *Noiz zabalduko da sua errazago, haizea dabilen egun batean edo haizerik gabeko egunetan? Zergatik?*
 - *Zer erreko da arinago, pinudi bat edo harizti bat? Zergatik?* (koniferoek —pinuek, sekuek, etab.— ur kantitate txikia gordetzen dute eta, gainera, erretxina izaten dutenez, pospoloak bezala erretzen dira. Aldiz, landare hostozabalek askoz ur gehiago dute eta, bazterrek lehor egonagatik ere, izan dezakete suari aurre egiteko adina ur.)
 - *Sua lur azpitik barreia daitekeela uste duzue? Nola? Basoa sustrai handidun zuhaitzekin osatua badago, sua lur azpitik barreia daiteke. Lur azpiko sua ez da ikusten, eta, hain zuzen ere, itzaltzen zailagoa delako kalte handiak eragin ditzake. Gainera, animalia txiki asko lurpean ezkutatu ohi dira sua itzali arte.)*
 - *Zergatik ezin da mendian surik piztu, horretarako propio eta bereziki prestatuta dauden tokietan izan ezik?*
 - *Zer egin dezakegu guk sute arriskua murrizteko? Zer hartu beharko genuke kontuan mendira joaten garen egunetan? Zer egin beharko genuke sute bat ikusten badugu?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

11. jarduera	OLERKIA: JOKABIDE EGOKIAK ETA DESEGOKIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 88. orrialdea	
AZALPENA		

- Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak erantzunak arbelean jarriko ditu.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, honako galdera hauek egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu: *Non ibiltzen zarete zuek jolasean, korrika eta ezkutaketan?* (HERRIKO PARKEETAN). *Zer sentitzen duzue parkean jolasean?* (POZA). *Nokakoa da biriketan duzuen arnasa?* (GARBIA). *Zeinek egiten dute kaka parkeetako belardietan?* (TXAKURREK). *Zer eramaten dugu etxera?* (USAIN TXARRA). *Non?* (OINETAKOETAN).
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Irakurtzen hasi aurretik, ikasleei esango diegu helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, olerkiak zer esaten digun ulertzea.
- Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- Guztion artean olerkian azaldu diren ideiak laburtuko ditugu.
- Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimek behatuz, berdinduz diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

12. jarduera	BERTSOA: JOKABIDE EGOKIAK ETA DESEGOKIAK: KAKA PARKEETAN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 87. orrialdea	
AZALPENA		

- Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta bertsoaren edo olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak erantzunak arbelean jarriko ditu.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, honako galdera hauek egingo ditugu, eta erantzunak arbelean idatziko ditugu: *Ezagutzen al duzue natura izendatzeko beste moduren bat?* (INGURUNEA). *Zeinen bizilekua da?* (LANDARE ETA ANIMALIENA). *Zerekin zikintzen ohi dugu ingurunea?* (PLASTIKO ETA PAPER PUSKETAK). *Nora bota beharko genituzke?* (ONTZIRA).
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Irakurtzen hasi aurretik, esango diegu helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, olerkiak zer esaten digun ulertzea.
- Ondoren, irakasleak irakurriko die bertsoa eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- Guztion artean bertsoan azaldu diren ideiak laburtuko ditugu.
- Azkenik, guztiok elkarrekin bertsoa abesten saiatuko gara.
- Abestu ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimek behatuz, berdina bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

13. jarduera	IRTENALDIA: GURASOENTZAKO OHARRA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA		
AZALPENA		

Behatuko duzuen parkea edo naturagunea zein izango den erabaki duzuenean, etxeok jakinaren gainean jartzeko oharra idatziko dute ikasleek. Oharra talde handian prestatuko dugu (idazketa kolektiboa arbelean) eta bakoitzak bere orrian, txukuntxukun kopiatuko du etxeok ondo uler dezaten.

KOMUNIKAZIO EGOERA AZTERTU, IDEIAK SORTU ETA ORDENATU

- Komunikazio arazoa konpontzeko zer egin dezakegun galdetuko diegu hurrei. (Adibidez: Gurasoei asteazkenean parkera joango garela adierazi nahi diegu. Zer egingo dugu?)
- Haurren ideiak arbelean idatziko ditugu. (Adibidez: telefonoz deitu, gurasoei esan, gutun bat idatzi... Ondoren gure asmoa aurrera eramateko aukera egokiena erabakiko dugu.)
- Testuaren ezaugarriak, hau da, helburua eta egitura talde handian aztertuko ditugu.

EDUKIA GARATU, HIZKUNTZA FORMA EGOKIAK BILATU ETA KODETU

- Idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioari ekingo diogu.
- Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testua arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez.

BERRIKUSI ETA EDITATU

- Arbelean taldeko aztertze-, zuzentze-, adoste-lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu.
- Bakoitzak bere orrian kopiatzeko eskatuko diegu. Ekoizpen-lana aurretik egin dagoenez, hau izan daiteke kopia proposatzeko ordua, hau da, letraren txukuntasunean arreta jartzeko ordua.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

14. jarduera	IRTENALDIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
2.1 Ingurumen fisikoko oinarrizko elementuak eta baliabideak pertsonen bizitzarekin duten harremana ezagutzea eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea. 4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
2.6.2 Kalean ibiltzeko beharrezkoak diren trafiko-seinaleak (semaforoek koloreak, oinezkoen pasabideak...) ezagutzen ditu eta errespetatzen ditu. 2.6.3 Garraibideen erabiltzaile gisa bete beharrek funtsezko arauak (segurtasun-uhala jartzea, gidariari trabarik ez egitea...) errespetatzen ditu. 2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA		Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Lan banaketarako taula, argazki-kamera(k), lupa, tximeletak harrapatzeko sarea, hostoak biltzeko sukaldeko papera eta liburu lodia, zuhaitzen enborra kalkatzeko papera eta argizariak eta zuhaitzen testura lortzeko buztinezko xaflak	
AZALPENA		

Gidaren hasieran esan bezala, ezinbestekoa izango da naturagunea osatzen duten elementuei behatzeko irtenaldia egitea. Gertu dagoen naturagune bat aztertuz gero, liburuan ikasitakoa, egunean bertan zuzenean behatzeko aukera izango duzue. Horrela lana egiten baduzue, lau bat aldiz joan beharko duzue parkera landutakoa aztertzeko. Aztertuko duzuen naturagunea gertu ez badago, irtenaldia unitatearen hasieran egin beharko duzue eta irtenaldian egindako argazkiei behatuz, azalpen-testuak idatziko dituzue.

- Irtenaldia prestatzeko garaian, zeharkako beste jarduerak egin ditzakezue: Nola joango garen erabaki (oinez, autobusez, trenez...), mapan nondik nora joango garen ikusi, zein herri edo kaleetatik pasatuko zareten aztertu, bisitatzeko eguna eta ordua eskatu behar den naturagune batera bazoazte, haien web-orrialdea gelan bertan aztertu...
- Irtenaldia(k) egin aurretik, hamaiketakoaren edo olinpiadak egin genituen egunetan bezala, egin beharko ditugun lanak aurreikustea eta taldeko kide guztien artean banatzea komeni zaigu. Horrela eginez gero, naturagunera joango garen egunean, denok lan pixka bat egin eta jolasteko aukera izango dugu.
- Irtenaldietan behatutakoa bildu eta sailkatzeko, ardurak banatzeko plan bat egingo dugu. Planifikatzeko unean, hitzez esandakoa idatziz jasotzeko ohitura bultzatzea egokia da, ikasleek eginkizunak gogoratzeko, erantzukizuna hartzera bultzatzeko, berrikusketak egiteko... Lanak sistematikoki egiteko lan banaketarako orriak lagungarriak dira. Era honetako taula bat ikasleekin adostuz eta osatuz joateak lagun dezake proiektuaren nondik norakoak errazago aurreikusten, erabakiak hartzeko unean beharrezko baliabideak eskura izaten, eta erantzukizunak baneratzeko.

IRTENALDIA: LAN BANAKETARAKO TAULA		
EGINKIZUNA	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
Loreei argazkiak atera	Lupa eta argazki-kamera	Talde gorria
Zuhaitzen enborra kalkatu	Kalkatzeko papera eta argizariak	Guztiok
Zuhaitzen hostoei argazkia atera eta zuhaitz bakoitzeko hosto bat bildu	Argazki-kamera, hostoa gordetzeko paper zuria eta liburu potolo bat	Talde urdina
Zuhaixkei argazkia atera	Argazki-kamera	Talde berdea
Animalia ornogabeei (xomorroak) argazkiak atera	Lupa, argazki-kamera eta tximeletak harrapatzeko sarea	Talde horia
Animalia ornodunei argazkiak atera	Argazki-kamera	Talde zuria
Bizigabeei argazkiak atera eta zuhaitzen testura buztinean lortu	Argazki-kamera eta buztina	Zilar koloreko taldea
Hamaiketakoak jan eta bazkaldu ondoren, hondakinak bildu		Denok

Naturagunera iristean, ikasleek taldeka elkartu eta dagokien lana beteko dute. Taldean adostutako arduren banaketak aginduko dio bakoitzari zer egin. Irakasleak berriz, ekintza planaren jarraipena egin, beharrezkoa bada desbideratzeak zuzendu eta ikasleen behaketa egingo du. Izan ere une horiek oso aproposak dira bakoitzaren ekimena, lan-eritimoa, erantzukizuna, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, lankidetzeta, parte hartzea... aztertzeko.

Irtenaldia egin baino egun pare bat lehenago material guztia gelan daukagula ziurtatzea komeni da. Irakasleak argazki-kamera autonomiaz eta arduraz erabiltzeko txikiegiak direla iruditzen bazaizue, irakasleak argazki-kamera eraman dezake eta ikasleek irakasleari zerbait interesgarria ikusi orduko, irakasleari argazkia ateratzeko eskatuko diote.

Ez ahaztu, azken erakusketarako eta baita ere auto ebaluaziorako tresna bezala erabiltzeko, interesgarria litzateke irtenaldian zehar bilduko duzuen materiala eta burutuko duzuen prozesu guztiaren dokumentazio grafikoa biltzea (argazkiak, grabazioak...).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

15. jarduera	BIZIDUNAK: LANDAREAK-ZUHAITZAK (Liburua eta bideoa)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.2.3 Bizidunetik arduratu eta jakin-mina agertzen du eta badagokio, beren zaintzan laguntzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 8. orrialdea, Birraitonaren makina DVD-a, hostoak, tenperak eta kartoi mehea	
AZALPENA		

- Zuhaitzak lantzen hasi aurretik, haurrek zuhaitzei buruz zer dakiten, zein ezagutzen dituzten, nola ezagutzen dituzten eta zer-nolako ezaugarriak dituzten adierazteko elkarrizketa bat bultzatuko dugu gelan, haurrek esandakoa arbelean idatzita utziz.
- Liburua irekiko dugu 8. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: goiko eskema, argibideak, azalpen-testua, globoa, beheko bertsoak...
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goiko eskema eta argibideen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Gero, zuhaitzari buruzko azalpen-testu txikia irakurriko dugu. *Ezer ulertzen al dugu?* Ulertzen ez diren hitzak (galdetu haurrei zein diren) hiztegiari bilatzera jo aurretik taldekoren artean argitzen ote dituzten ikusiko dugu. Ezin badute, irakasleak lagunduko die eta horrela ezin badute hiztegiari joko dugu. Guztia argitu dugunean, definizioaren lehen zatia (*Zuhaitza zurezko landare bizikorra da*) buruz ikasteko gai ote diren saiaturako dira. Galdetu beste egun batean ea nor gogoratzen den.
- Ondoren, zuhaitzen zatiak zein diren ikasiko dugu. (Ikusi lan-koadernoan 37. orrialdea, hurrengo jardueretan landuko dena)
- Beste egun batean bideoa ikusiko dugu. Bideoan natura orokorrean eta, bereziki, zuhaitzek urtean zehar izaten dituzten aldaketak antzemateko aukera izango dute haurrek.
- Entzun eta ikusiko dutena interpretatzen laguntzeko, ikasleak gaiari buruz dakiena azaleratzera eta hipotesiak egitera animatuko ditugu. Irakasleak hipotesi horiek idatziz jasoko ditu arbelean eta bideoa ikusi ondoren, gure aurreikuspena zuzendu edo osatuko dugu. Ikaslearen hasierako hipotesi zerrenda arbelean idatziz jasoko dugu.
 - *Zuek zer dakizue urtaroei buruz? Zer ikusiko dugu bideoan?*
- Bideoa lehenengo aldiz ikusten dugunean, osorik ikusiko dugu. Bukatzean, ikasleei, informazio berririk entzun ote duten galdetuko diegu. Ikasleek iritzi berriren bat plazaratzen badute, hasieran egindako hipotesien zerrenda osatuko dugu.
- Bideoa bigarren aldiz ikusten dugunean, informazio interesgarria entzutean, ikasleei eskua altxatzeko eskatuko diegu. Orduan, bideoa gelditu eta ikasleari entzundako ideia azaltzeko eskatuko diegu. Arretaz entzuten laguntzeko eskuratu nahi dugun informazioa jakinaraziko diegu.
 1. *Udaberrian zer gertatzen da zelaietan eta zuhaitzetan? Zer gertatzen zaie animaliei?*
 2. *Uda noiz hasten da? Zer gertatzen da zuhaitzetan? Zer egiten dute animaliek?*
 3. *Udazkenean zer gertatzen da zelaietan eta zuhaitzetan? Zer biltzen dugu?*
 4. *Neguan zer gertatzen zaie zuhaitzei? Animaliek zer egiten dute?*
- Bukatzeko, irakasleak bideoan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.
- Bideoan abesten den bertsoa liburuko 8. orrialdean aurkituko duzue. Ikasleek irakurri, irakaslearen laguntzaz esanahia argitu eta eta bertsoa ikas dezakete.
- Joxan Ormazabalaren olerki/bertsoa irakurri edo abestu ondoren, hostoak hartu, tenperetan busti (azulejuak edo platertxo zapalak erabili tenpera jartzeko) eta kartoi meheetan inprimatuko ditugu.
- Urte-sasoia adierazi nahi izanez gero, kartoi mehe handian egin eta bakoitzean urtaro bat adierazi:
 1. Udaberria eta uda adierazteko kolore berdeekin (hostoen neurriekin nahi bada) jokatu urdina eta horia nahastuz eta zuria horiek argitzeko erabiliz.
 2. Udazkena adierazteko kolore beroak erabili, horiak eta gorrixkak lortuz.
 3. Negua adierazteko alderantzizko teknika erabili: hostoak tindatu gabe kartoi mehean ipini (zinta eransgarri edo lagunduz) eta gaintik margotu, negatiboa lortuz, eta kolore hotzak erabiliz (urdin iluna, morea...).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

16. jarduera	URTAROAK: MEZU SEKRETUA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 35. orrialdea eta orrialde horretako piezen kopiak	
AZALPENA		

Pieza bakoitza bere lekuan jarritz, urtaroen olerkitxo bat agertuko zaie ikasleei. Oso motza denez, buruz ikastea proposatuko diegu.

- Lan-koaderno irekiko dugu 35. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, piezak, eta piezak itsasteko lekua.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu, ondorioztatu egingo dituzte.
- Beheko mezua osatzeko, goiko zatien edo piezen kopia emango die irakasleak ikasleei. Ikasleek zati horiek moztu eta beheko taulan behar bezala kokatuko dituzte, dagoeneko jarritako letretan eta laukien koloreetan arreta jarritz.
- Mezu sekretua osatu ondoren, denok batera irakurriko dugu. Oso motza denez, buruz ikastea proposatuko diegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

17. jarduera	ZUHAITZAK: HOSTOEN ETA ENBORREN BEHAKETA ZUZENA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
2.2.1 Ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak identifikatzen eta izendatzen ditu.	
2.2.2 Animaliak eta landareak emandako oinarrizko sailkapen-irizpideen arabera sailkatzeko gai da.	
2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.	
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Liburuko 9. orrialdea
AZALPENA	

LIBURU SAILKAPENA AZTERTU

- Liburua irekiko dugu 9. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, hostoen behaketarako irizpideen taula, enbor-azalen marrazkiak, informazio ikurra, globoa, proiektuaren ikurra...
- Ikasleek, irakaslearen laguntzaz, goiko eskema eta argibideen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Hostoen ezaugarriak behatzeko irizpideak aztertzen ari zaretenean, ikasleei arreta irizpide jakin batean fokalizatzen laguntzeko, aztertzen ari ez garen irizpideak paper zuri batekin estaltzeko eskatuko diegu.

IRTENALDIA EGIN

- Hostoen sailkapen orokorra ikusi dugu, parkera irtenaldi bat egiteko unea da, hango zuhaitzak ikusi eta argazkiak ateratzeko... Horrela, liburuak eskaintzen duen informazioa aztertu ostean, aukeratutako parkera joan eta hango zuhaitzen hostoak bildu eta enborren marrazkiak egingo ditugu. Enborren marrazkiak egiteko zetazko paper bat gainean jarri eta arkatz bigun batekin edo argizarizko margoekin, gaintetik kalkatuko dugu, bere testura lortuz.
- Testura lortzeko eta gerora erakusketan jartzeko beste modu bat, buztinezko xaflen bidez egitea da: buztina landu eta xafiak egin eta arrabolaz zapaldu eta berdindu (xafiak ez du derrigorrez forma geometrikoa izan beharrik), zuhaitzaren enborren kontra zanpatu eta azalaren testura jaso. Xafia zuzendu eta lehortzen denean, margotu engobeekin labekatuko bada edo tenperaz bestela. Bukatzean egurrezko xafia baten gainean ipini eta arbolaren izena ipini.
- Ez ahaztu zuhaitzaren enborra ukitzea azala leuna edo latza den jakiteko.

ERAKUSKETA ETA ALDIZKARIA OSATU

- Erakusketari begira, bildutako hostoak paper zurian itsatsi eta sailkapena egin, hosto bakoitzaren formari, ertzari, koloreari eta zurtoinean kokatzeko erari buruzko ezaugarriak adieraziz.
- Naturaren txokoan ditugun liburuak erabiliz eta hostoen ezaugarriak erreparatuz, zuhaitz bakoitzaren izena asmatzen saiatuko gara. Hau da, tokian tokiko ohiko (haritza, gaztainondoa, pegoa, pinua...) zuhaitzak identifikatzen eta izendatzen saiatuko gara.
- Hosto guztiekin osatu duzuen panela, erakusgai jarriko duzue gelan bertan edo erakusketarako erabiliko duzuen gelan. (Ikusi liburuko 16-17 orrialdeak)
- Bukatzeko, aldizkaria osatzen hasiko gara. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz.
- Hostoen ezaugarriak aztertzen laguntzeko, irizpide bakoitzeko kolore bat erabil daiteke.
- Ikasle bakoitzak hostoak edo hostoaren argazkia eta enborren marrakia itsatsi eta beren ezaugarriak X baten bitartez adieraziko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

18. jarduera	ZUHAITZAREN ZATIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozatzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Liburuko 9. orrialdea, lan-koadernoko 37. orrialdea	
AZALPENA		

Zuhaitzen zatiak ikusi eta ikasiko dugu.

- Lan-koaderno irekiko dugu 37. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, krokisa eta hitzak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Bukatzeko, ikasleek banaka izenak dagokien tokian idatziko dituzte.

Zuhaitza (etxearekin batera) irudikapen estereotipatu batez marraztu edo margotzen dugun elementu arrunt horietakoa dela esan dezakegu. Hori saihesteko modu ezin hobea, kalera irten eta zuhaitzei behatu ondoren, haur bakoitzak bat edo bi aukeratzea eta zuzenean (neurria/proporzioa, forma, kolorea, testura) begiz eta ukimenez behatu ondoren, distantzia jakin batean kokatu eta hura marraztea/margotzea izan daiteke. Arkatzak, errotulagailuak, argizariak erabil ditzatela kartoi mehe baten gainean (zuria, beltza nahiz koloretakoa) eta emaitza txalogarriak ikusiko ditugu.

Gure erakusketarako beste elementu bat nahi badugu, gelako edo basabideko horma/ertz batean, biltzeko papera erabiliz zuhaitzaren enbor, adar nahiz sustraiak egin. Papera alde aurretik edo ondoren (bolumena hartu duenean) margo dezakegu edota beste paper batzuk (zeta) itsatsiz bolumena eta kolorea hartzen lagundu. Atzean, nahi badugu, zerua, ikuspegia, etab. irudika ditzakegu. Azkenik, zuhaitzean, hostoak, fruituak, habiak, hegaztiak itsatsi eta behe aldean belarra, loreak, animaliatxoak...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

19. jarduera	ZUHAITZA NOLA LANDATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisis eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.2.3 Bizidunetik ardua eta jakin-mina agertzen du eta badagokio, beren zaintzan laguntzen du.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 89 orrialdea, sustrai lurduna duen zuhaitz-landare bat, pala, hondarra, harriak, ura eta pala	
AZALPENA		

Irakurgaiak agertzen diren pausuei jarraituz, zuhaitz bat landatzeko aukera izango duzue. Betiere, zuhaitz-landare batzuk erosi eta ikastolaren inguruan landa ditzakezue. Horretarako, sustrai lurdunak edukitzea beharrezkoa izango da gal ez daitezenean.

- Zuhaitz bat landatzeko prozesua denen aurrean irakasleak egitea izango litzateke onena, eta gertatzen denari buruz hitz egitea.
- Biribilean eseriko gara. Norberak bere liburua aurrean izango du eta irakasleak minutu batzuk emango dizkie ikasleei liburuko orriari behatzeko.
- Testua irakurri aurretik ikasleak prestatu behar ditugu aurre-egutzak aktibatzeke eta zailtasunei aurre egiteko. Izenburua irakurri eta ilustrazioak aztertu ondoren, testuaren inguruko hipotesiak egingo ditugu: *Zer esango ote digu testuak? Zuek zer dakizue prozesu horri buruz?*
- Ikasleen irakurketa-mailaren arabera, irudien azpiko testua irakurtzeko edo testuen gainean dagoen irudian gertatzen ari dena interpretatzeko eskatuko diegu. Aginduak poliki-poliki beteko ditu irakasleak ikasle guztien aurrean. *Ikasi nahi al duzue zuhaitza nola landatzen den? Goazen bada, nola egiten den irakurtzera!* Irakasleak irakurtzen duenean, ikasleak berarekin batera irakurtzera gonbidatuko ditu. Azalpen-testu gehienak bezala zail samarra denez, guztion artean interpretatuko dugu zuloa egiteko pala, harriak, hondarra, zuhaitz-landarea eta ura bertan ditugula.
- Prozesua ordenatzeko letren eta denbora-antolatzaileen erabilera azpimarratzeko modukoak dira.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

20. jarduera	ZUHAITZAK: LETRA ZOPA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.2.1 Ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak identifikatzen eta izendatzen ditu.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 34. orrialdea	
AZALPENA		

Letra-zopa horretan zuhaitzen izenak aurkitu beharko dituzte hurrek. Ariketa egiten hasi aurretik, elkarrizketa bultzatuko dugu hurrek ariketa testuinguruan koka dezaten. Hitzei erreparatu eta ezagutzen dituzten zuhaitzei buruz hitz egin.

- Ezertan hasi aurretik, hurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
- Ondoren, talde handian, elkarrizketatxo bultzatuko dugu:
 - Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan? Begiratu ondo-ondo behean dauden izenak? Ezagutzen al ditugu?
- Irakasleak goiko agindua irakurriko du zeregina argitzeko eta, ondoren, banan-banan guztion artean zuhaitzen izenak irakurriko ditugu.
- Aurreko unitatean bezala, zutabeak eta lerroak zer diren argituko dugu eta hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu.
- Ikasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkitu beharko dituzte.
- Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolasa aktibatze gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

21. jarduera	ABESTIA: NATURAREN SEKRETUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 10. orrialdea, abestien CDan 38. pista, txotxongiloak egiteko kartoi mehea eta makilatxoak	
AZALPENA		

Abestia entzun eta irakurtzeaz gain, naturak zer melodia sortzen dituen hitzez adieraziko dugu taldean.

- Abestiaren izenburua irakurri eta gero, haizea, erreka, itsasoaren olatuak, euria, eta elurraren soinua zein izan daitekeen asmatuko dugu. Ondoren, horien mugimenduak (poliki-poliki, presarik gabe) imitatuko ditugu. Azkenean, soinuak eta mugimenduak lotu egingo ditugu.
- CDa edo liburu digitaleko abestia jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldiz esaldi errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Kodearen inguruko behaketa bultzatzea dezakegu. Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: liliak, txantxangorritxoak, txitak, oilarrak, oiloak, ahateak, arrainak... *Ikusten al dituzue lerroen bukaeran berdin bukatzen diren hitzak? Nola bukatzen dira? Pentsatuko al ditugu era berean bukatzen diren beste batzuk?*
- Abestian dauden animaliak, eguzkia, loreak eta haizea irudikatuz, kartoi mehez txotxongilo erraz batzuk egin ditzakegu. Hau da, forma kartoi mehez egin, margotu eta makila bat itsatsi, eskuz erabiltzeko txotxongiloak.
- Naturaren sekretuak olerki/abestia poliki-poliki neska edo mutil batek erreztatzen duen bitartean, aipatzen diren txotxongiloak atera eta mugituko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

22. jarduera	LOREAK: BEHAKETA ZUZENA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.		
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
2.2.1 Ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak identifikatzen eta izendatzen ditu.		
2.2.2 Animaliak eta landareak emandako oinarrizko sailkapen-irizpideen arabera sailkatzeko gai da.		
2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.		
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.		
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.		
1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 11. orrialdea	
AZALPENA		

LIBURUAN SAILKAPENA AZTERTU

- Liburua irekiko dugu 11. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, loreak behaketarako irizpideen taula, lorearen krokisa, informazio ikurra, globoa, proiektuaren ikurra...
- Zuhaitzen eta belarren multzoan, landare horien zati bat aztertuko dugu: Loreak (Ikusi lan-koadernoko 37. orrialdea).
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goiko eskema eta argibideen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu dituzte. Loreen ezaugarriei behatzeko irizpideak aztertzen ari zaretenean, ikasleei arreta irizpide jakin batean fokalizatzen laguntzeko, aztertzen ari ez garen irizpideak paper zuri batekin estaltzeko eskatuko diegu.

IRTENALDIA EGIN

- Loreen sailkapen orokorra ikusi dugu, parkera irtenaldi bat egiteko unea da, hango loreak ikusteko eta argazkiak ateratzeko... Horrela, loreen kokapena, petaloen arteko tartea eta loreen kolorea bertatik bertara ikusteko, aukeratutako parkera joan eta hango lore guztiei argazkia aterako diegu.

ERAKUSKETA ETA ALDIZKARIA OSATU

- Loreen argazkiekin, zuhaitzen hostoekin egin duzuen eran, loreak sailkatu bakoitzaren kokapena, petaloen arteko tartea eta kolorea adieraziz.
- Naturaren txokoan ditugun liburuak erabiliz, bakoitzaren izena asmatzen saiatuko gara. Tokian tokiko ohiko (bitxiloreak, zitoriak, San Joan lore horiak, krabelinak...) loreak identifikatzen eta izendatzen saiatuko gara.
- Loreen argazki guztiekin osatu duzuen panela erakusgai jarriko duzue gelan bertan edo erakusketarako erabiliko duzuen gelan. (Ikusi liburuko 16-17 orrialdeak)
- Bukatzeko, aldizkaria osatzen hasiko gara. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian orrialdearen behaketa bideratuko dugu (izenburua, argazkia itsasteko laukia, argazki-oina, azalpen-testua idatzeko lerroak...), elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz.
- Ikasle bakoitzak aukeratuko lorearen argazkia itsatsi eta beren ezaugarriak (kokapena, petaloen arteko tartea eta kolorea) idatziko ditu, azalpen-testua aldeztu aurretik talde handian planifikatuz.
- Bukatzeko, ikasleek idatzitakoa irakurri egin behar dutela azpimarratuko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

23. jarduera	BELARREN ETA LANDAREEN ZATIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 37. orrialdea eta sustrai lurduna eta lorea duen landare bat eta abestien CDko 40. pista	
AZALPENA		

Zuhaixkak eta belarren zatiak ikusi eta ikasiko dugu.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 37. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, krokisa eta hitzak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Lorea duten landare batzuk erosi eta ikasleek landarea begi-bistan dutela, landarearen zatiak izendatu.
- Bukatzeko, ikasleek banaka izenak dagokien tokian idatziko dituzte.
- Bukatzeko, ikastolaren inguruan landa ditzakezue landareak. Horretarako, sustrai lurduna edukitzea beharrezkoa izango da gal ez daitezen.
- Landareak landatu ondoren Loretxin Loretxo abestia entzungo dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

24. jarduera	LOREAK: KOPLAK OSATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i>, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.7.2 Testu bati buruzko galderei erantzuteko eskaintzen zaizkion hainbat erantzunen artean zuzena aukeratu du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 36. orrialdea	
AZALPENA		

Hurrek, Mikel Mendizabalen bertsoa osatu beharko dute. Horretarako, bertsoaren inguruan agertzen diren hitzen artean bertsoari dagozkion hitzak aukeratu eta idatzi.

- Irakasleak bertsozale.com web-orrian edo liburu digitalean, bertso doinutegian *Ikusi nuenean* bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
 - Ondoren, bertsoa osorik, aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean).
 - Irakasleak bertsoa abestuko du. Gero, berriz abestuko du, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz.
 - Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
 - Esanahiari erreparatuko diogu: *Zeri buruzkoa da bertsoa? Zein hitz idatziko zenituzkete bertsoa osatzeko?*
 - Orain, orrialdearen eskuinaldean dauden hitzak aztertuko ditugu. Oinak ez direnez, ez zaigu interesatzen hitzen bukaeretan indarra jartzea, baizik eta hitzen esanahian. Beharbada, *tulipa* eta *ailegatzen* hitzak arrotzak egingo zaizkie. Tulipa lore baten izena dela azpimarratuko dugu eta lorearen irudia erakutsiko diegu. Ailegatzen hitzak heltzen edo iristen esan nahi duela esango diegu eta beharrezkoa bada, esaldi batzuk egingo ditugu hitz horrekin, esanahiaz jabetu daitezen. Gainerako hitzak ulertuko dituztela uste dugu.
 - Bertsoari hitzak jarriko dizkiogu. Kontraesanak sortzeko, hutsuneari ez dagokion hitza kokatzean zer gertatzen den ikusiko dugu.
 - Lan-koadernoan, banaka edo binaka, bertsoa osatuko dute.
 - Bigarren eta hirugarren koplekin, lehenengoarekin jarraitu ditugun urratsak errepikatuko ditugu: bertsoa aurkeztu, hurrekin batera abestu, esanahiari erreparatu, nola osatuko luketen galdetu eta azkenik esanahiari erreparatu, banaka edo binaka bertsoa osatu.
 - Bukatzeko, gela osoa elkarrekin, koplak abestuko dituzue.
- Gogoratu CD-ROMean idazketa-tailerra daukagula eta, testuak idazteko txantilo politak aurki ditzakegula. Hori baliatuz, bertsoak, abestiak, zein olerkiak, ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

25. jarduera	ABESTIA: MENDIAN LARRARTEAN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak 90. orrialdea, kartoi meheak eta abestien CDko 39. pista	
AZALPENA		

Abesti ezagun horren letra irakurri eta CDa entzunez eta abestuz buruz ikasten saiatuko gara.

- Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak erantzunak arbelean jarriko ditu.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, honako galdera hauek egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu: *Zer dago mendian larrartean?* (LORETXO BAT). *Lorearen aurrean zein dago?* (UMETXO BAT) *Larrartean harrapatuta dagoen loreak hitz egingo balu, zer esango luke?* (ASKA NAZAZU). *Zer egin behar du umeak askatzeko?* (ARANTZAK KENDU)...
- Lehenik eta behin abestia jarriko dugu, ikasleek entzuteko. Entzuten hasi aurretik ikasleei esango diegu helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, abestiak zer esaten digun ulertzea.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi/abestu nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldiz esaldi errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurri dezaten.
- Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimak behatuz, berdin bukatzen diren hitz zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz. Ondoren, kodearen inguruko behaketa bultza dezakegu:
 - *Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: MENDIAN, LORETXO, ARANTZAK, FRUITUA...*
 - *Ezagutzen al duzue -RIK bukaera duen beste hitzik?* Ikasleei bururatzen ez bazaizkie definizio errazen bidez lagunduko diegu; adibidez: *Zer egin dugu guk oraintxe bertan abestiarekin?* (ABESTU).
- Ikasleak launaka jarriko ditugu. Lau kartoi meheak erabiliz, bakoitza bineta bat izanik, kanta kontatzen duen istorioa marraztuko dute komiki moduan.
- Aurkezteko, azala egin diezaiokegu (izenburua eta egileen izena idatziz), edota erakusketan bineta guztiak ordenan ikusten direla aurkeztu (egileen izenak eta izenburua ahaztu gabe).
- Edozein formatu aukeratuta ere, abestiaren letra txertatzeko aukera ere aztertu dezakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

26. jarduera	ANIMALIEN BEHAKETA ZUZENA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.	
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.	
1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.	
2.9.3 Informazioa biltzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Liburuko 12-13 orrialdeak, argazki-kamera eta txoko zuriko baliabideak
AZALPENA	

Bizidunen artean, landareak landu ondoren animaliak lantzeko aukera izango dugu. Aukeratu duzuen parke edo naturagunearen arabera, agian animalia batzuk ikusteko aukerarik ez duzue izango, baina bi orrialde horietan agertzen den sailkapenari esker pixka bat denetarik ikusteko aukera izango duzue.

LIBURUKO SAILKAPENA AZTERTU

- Liburua irekiko dugu 12-13. orrialdeetan. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdeen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: goiko eskema, izenburua, animaliak deskribatzeko irizpideak eta beheko marrazkia.
- Hasteko, ornodunak (orrialdea urdina) eta ornogabeak (orrialdea berdea) bereiziko ditugu. Ornodunak bizkarrezurra dutenak eta ornogabeak bizkarrezurrik ez dutenak direla irakurri ondoren, lagunaren bizkarrezurra ukituko dute. Bukatzeko, 12. orrialdean azaltzen diren animalien hezurduretan, bizkarrezurra gorri margotuko dute.
- Talde bakoitzeko ezagutzen diren animaliak izendatzeko eskatuko diegu. Irakasleak arbelean taula bat egingo du eta haurrek izendatutako animalia guztiak idatziko ditugu. Gaia lantzen dugun neurrian hasierako taula erreferentzia gisa erabiliko dugu ezagutzen ditugun animaliak gehitzen joateko. Bestalde, orrialdearen behealdean dauden animaliak, goiko sailkapenarekin bat datoz. Hau da, ezkerrean ornodunak azaltzen dira (txakurra, arrainak, ahateak, martin arrantzalea eta igela) eta eskuinean ornogabeak (matxinsaltoa, marigorringoa, tximeleta eta kakalardoa). Beraz, animalia horien izenak ere taulan idatziko ditugu.
- Sailkapenari jarraituz, ornodunen artean bereizten ditugun motak zein diren irakurri eta azpian dagoen marrazkiari behatuko diogu (Lan-koadernoan 40-41 orrialdeak).
- Era berean, talde bakoitzaren izenaren ondoan, amaren sabeletik jaiotzen diren ala erruleak diren agertuko zaigunez, horren inguruan ere beste sailkapen mota bat egin dezakezue geroxeago.

IRTENALDIA EGIN

- Animalien sailkapen orokorra ikusi dugu, parkera irtenaldi bat egiteko unea da, hango animaliak ikusi eta argazkiak ateratzeko... Orain, animalia ornodunen artean aurki ditzakegun motak sakonago ikusteko parada izango dugu.
- Haurrek ikusi edota aurkitzen dituzten animalien izenak zerrendatu eta argazkiak ateratzen saiatuko gara gelan bildumarako.
- Pertsonak ere animaliak gara... bi hankako animaliak! Eta ornodunak noski! Parkeetan pertsona asko lanean, paseatzen... ibiltzen garenez, horiek denon artean zerrendatu eta bakoitzak zer egiten duen aztertuko dugu. Segidan, haurrei, liburuan agertzen diren pertsonak parkean zer egiten duten idazteko eskatuko diegu

ERAKUSKETA ETA ALDIZKARIA OSATU

- Loreen eta zuhaitzen argazkiekin egin duzuen eran, animaliak sailkatu bakoitzaren ezaugarriak adieraziz.
- Naturaren txokoan ditugun liburuak baliatuz, bakoitzaren izena asmatzen saiatuko gara. Tokian tokiko ohiko animaliak identifikatzen eta izendatzen saiatuko gara.
- Animalien argazki guztiekin osatu duzuen panela, erakusgai jarriko duzue gelan bertan edo erakusketarako erabiliko duzuen gelan (Ikusi liburuko 16-17 orrialdeak).

- Bukatzeko aldizkaria osatzen hasiko gara. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian orrialdearen behaketa bideratuko dugu (izenburua, argazkia itsasteko laukia, argazki-oina, azalpen-testua idazteko lerroak...), elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz.
- Ikasle bakoitzak aukeratuko animalia argazkia itsatsi eta ornoduna edo ornogabea eta errulea edo ugaztuna den ixa baten bidez adieraziko du.
- Animalia bakoitzak zer-nolako ezaugarriak eta ohiturak dituen aztertzeke bi aukera ditugu: txoko zuriko liburuak erabil ditzakegu edota, gaiaren inguruan dakien herriko edo ikastolako pertsona bat gelara ekar dezakegu. Gure ustez, gutxienez, testu horietako bat proposatzen den prozedurari jarraituz idatzi beharko zenukete.
- Testuen idazketarako honako urrats hauei jarraituko diegu:
 1. Ikasi nahi dugunaren gidoia eta informazio hori nork bilatuko duen idatziz jasoko dugu bilaketari ekin aurretik. Horrela, ikasleek argi edukiko dute irakurketaren helburua hasieratik (Ikusi adibidea). Ikasi nahi dugunaren gidoia eta informazio hori nork bilatuko duen idazteak, ikerketa-lana antolatzen lagunduko digu. Irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera eta xehetasunak galdera horien azpial moduan hierarkizatzea, edo haurren erara "antza duen guztia elkarrekin jartzea". Ikasleek aukeratutako informazio zehatza aurkitzea izango dute helburu.

ERLEAK	
ZER JAKIN NAHI DUGU?	NORK LORTUKO DU INFORMAZIOA?
Zentzuzko dira antzekoak?	Haur, Aholku eta Hasi
Zer iaten dute?	Goizak eta Tke
Nasa egiten dute orria?	Leire eta Ane
Zergatik ziplatzen dute?	Urtegi eta Iratxe

2. Zer jakin nahi dugun gogoratuko dugu animaliei buruzko liburuetara jo aurretik eta, gure interesekoa den orrialdean, paper bat, marka moduko bat, jarriko dugu. Paper horretan bilatzen ari garen informazioaren inguruko hitz bat idatz daiteke, zergatik aukeratu duten gogoratzeko.
3. Hasieran, ikasleek aukeratuko dituzte erantzuna egon daitekeen orrialdeak, eta irakasleak orrialde horietan dagoen informazioa irakur dezake. Horretarako, goiko mailetako ikasleen laguntza baliatu dezakegu. Hala ere, ikasleei testua emango diegu, irakasleak irakurri duena aurkitu dezaten. Izenburuak, azpituak, aurkibideak eta letrakera lodiz adierazitako hitzak irakurtzera animatuko ditugu.
4. Gai jakin bati buruzko nahikoa informazio lortutakoan, besteei komunikatzeko antolatu behar da. Haurrek dioten bezala "gai berari buruzko gauzak elkarrekin jarri eta garrantzitsua dena lehenbizi jarri". Gai bera landu duten ikasleak taldearen aurrean jarriko ditugu eta lortu duten informazioa azalduko digute. Irakasleak, bitartean, ikasleak azaltzen ari diren informazioa gogoratzeko hitz gakoak idatziko ditu.
5. Bukatzeko, ikasle guztiak binaka azalpen-testua idatziko dute. Hala ere, binaka idazten ikasten joateko, irakasleak talde handiaren aurrean, ikasleen aurrean, adibide bat egingo du (ikusi 6. unitateko adibidea). Idatzi aurretik, pentsatzea eta lan bat egitea beharrezkoa dela esango diegu. Plan horretan, informazioa nola idatziko dugun pentsatu ondoren, idatzi eta bukatzeko idatzitakoa irakurri behar dutela azpimarratuko dugu.

ARGAZKI RALLYA

- Ikastolan ere, (gela handi batean) argazki rallya egin dezakegu. Neska-mutil batzuk animaliak izango dira; bakoitzak zein animalia izango den erabaki ondoren, animalia horrek egiten dituen mugimenduak ondo imitatu behar ditu. Beste batzuk argazkilariak izango dira. Horretarako, haur bakoitzak nahi duen moduan, kortxoaz, kartoizko kaxaz eta komuneko paper-bilkariaren zatiaz, etab. egindako argazki-kamera erabiliko du.
- Halako batean, irakasleak hauxe esango du: *Hiru... bi... bat... argazkia!* Une horretan animalia guztiak geldirik geldituko dira eta argazkilariak ustezko argazki bat egingo dute: "Klik!" Horrela bi edo hiru aldiz. Azkenean argazkilari bakoitzak atera duen argazki politena zein izan den adieraziko digu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

27. jarduera	ANIMALIAK: HITZ GURUTZATUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka edo binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 38. orrialdea eta abestien CDko 41. pista	
AZALPENA		

Definizioak irakurri eta dagokion animaliarekin erlazionatu ondoren, hitz gurutzatuak osatuko ditugu.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 38. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, irudia eta hitzak idazteko laukiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden; "definizioekin" erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota definizioetatik has gaitezke. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira. Kodea behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait, eurek sortuko dute "definizio" moduko bat. Lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela; adibidez, armiarma hariarekin lot daiteke.
- Gero, talde handian, lan-koadernoko definizioak irakurriko ditugu, hitz gakoak biribilduz. Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, irudiari dagokion hitza aurkituko dute eta marra baten bidez lotuko dituzte.
- Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu beste bost definizioekin.
- Azkenik, zenbakiei erreparatuz, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute ikasleek, bakarka.
- Hitz gurutzatuekin bukatzean, *Animalien musikak* abestia entzun dezakezue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

28. jarduera	ANIMALIA BAKOITZA BERE LEKUAN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>	
1.7	Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.</i>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
1.7.2	Testu bati buruzko galderei erantzuteko eskaintzen zaizkion hainbat erantzunen artean zuzena aukeratzeko du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 39. orrialdea	
AZALPENA		

Hurrek goiko aldean agertzen diren aginduei jarraituz, beheko aldeko biribiletan animaliak marraztu beharko dituzte.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 39. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak eta marrazkiak egiteko biribiltxoak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Lanean hasteko, marrazkian ditugun biribiltxoak goiko koadroan dauden esaldiekin erlazioan jarri beharko ditugu. Talde handian, biribilak non dauden zehazten saiatuko dira: *lore baten gainean/azpian, lore altuenean, zuhaitzaren adarreak eta gorago dagoen zuhaitzaren adarreak.*
- Gero, lan-koadernoko esaldia bakarka irakurriko dute. Animalia bakoitza non marraztuko luketen erabakitzeko esango diegu. Ondoren, irakasleak esaldia berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeko.
- Ikasle bati galdetuko diogu zer aukeraketa egin duen. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu.
- Erantzun egokia zein den erabaki ondoren, animalia izena azpimarratu eta beheko biribilean izen hori azaltzen den esaldiaren zenbakia idatziko dute. Prozedura bera jarraituko dugu gainerako testuekin.
- Azkenik, zenbakiei erreparatuz, animalia bakoitza dagokion tokian marraztuko dute ikasleek.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

29. jarduera	HITZAK ORDENATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.9 Testu, perpaus eta hitzaren eremuko <i>elementuen ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak erabiltzea</i>, norberaren zein besteen testuen sortze- eta berrikuste-prozesu gidatuetan.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.9.3 Testu edo perpaus atalak behar bezala ordenatzen ditu, emandako irizpideei jarraituz.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 40-41 orrialdeak eta, behar izanez gero, hitzak dituzten txarteltxoak	
AZALPENA		

Hitzak erabiliz esaldiak osatzeko jarduera eginez, animalia ornodunen artean aurki ditzakegun motak sakonago ezagutzeko parada izango dugu.

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, irudiak, hitzak dituzten txartelak, idazteko marraz...
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Ikasleek zenbakiak erabil ditzakete hitzak ordenatzeko. Horrela, adibidez, lehenengo esaldiaren lehenengo hitzaren gainean 1 zenbakia idatziko dute eta azkeneko hitzaren gainean 4 zenbakia. Lanean hasi aurretik, puntuaren eta esaldiaren hasierako letra larriaren erabilera gogoratuko dugu. Hau da, ikasleei gogoratuko diegu ideia/esaldi bat bukatzen denean, bukatu dela adierazteko puntua erabiltzen dugula eta esaldiaren lehenengo letra larriz idazten dela. Azalpenaren ondoren, ikasleek erraz jarriko diote esaldiaren azken hitzari dagokion zenbakia.
- Ikasleen irakurketa-mailaren arabera, ariketa hau bi eratan egin daiteke:
 1. Irakasleak irakurri dezake esaldia eta ikasleei binaka zenbakiak jartzeko eskatu. Bitartean, talde osoarekin, ariketa aurrera eramateko estrategiak partekatuko ditugu; adibidez: arrastoen (indizioen) bidezko hitzen aukeraketa.
 2. Irakasleak hitzak dituzten txarteltxoak presta ditzake eta bikote bakoitzari txartelak eman ordena ditzan. Hitzak dituzten txarteltxoak mahaiaren gainean ordena egokian jartzen dituztenean, lan-koadernoan kopiauko dituzte.
- Esaldiak adierazten duen informazioari buruzko hausnarketatxoa egingo dugu talde handiarekin, hurrengo esaldiari ekin aurretik.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

30. jarduera	AZALPEN TESTUA: SUGANDILA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanetz.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak 91. orrialdea	
AZALPENA		

Irakurgaietan sugandilaren inguruko azalpen-testua aurkituko duzue. Beraz, azalpen-testua aztertuko dugu, bai mezuari dagokionean, baita egiturari dagokionean ere. Azalpen-testua aztertzerakoan izenburua, irudia eta informazioa azaltzen den paragrafoari behatuko diegu eta bakoitzaren ezaugarriak ondorioztatzen saiatuko gara.

- Irakasleak *Irakurgaiak* liburuan aurkituko duen testua irakurriko dio taldeari. Hurrei esan azalpen-testu bat irakurriko diezuela eta erakutsi orrialdea: *Ba al dakizue zer den hau? Zertarako dira horrelako testuak?*
- Beharazi goian izenburua dagoela, gero irudia eta azkenik azalpen-testuaren mamia: *Non aurki ditzakegu horrelakoak? Zuek naturaren txokorako ekarri dituzuen liburuetan horrelakoak ba al daude? Adibidez...*
- Eskatu ikasleei azalpen-testuaren izenburua irakurtzeko. Testua irakurri aurretik ikasleak prestatu behar ditugu aurrezagutzak aktibatze eta zailtasunei aurre egiteko. Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta edukia aurreikusteko eskatuko diegu. Bestalde, testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten ondorengo galderak egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu:
 - *Ornodunen zein familiatakoa da sugandila?* (narrastiak). *Beraiek baino pixka bat handiagoak diren zein animaliarekin dute antza sugandilek?* (muskerrak). *Zer kolore dute?* (arrea). *Zertaz elikatzen dira?* (intsektuz).
- Irakurri orain testua (titulua berriz eta azalpen-testua azkenik). Testua esaldiz esaldi irakurriko dugu eta ea ikasleak oinarritzko ideiak gogoratzeko gai diren ikusiko dugu. Lehen esaldia zaila da benetan, baina izaera zientifikoko testu gehienetan horrelakoak izaten dira eta gutxi gorabehera zer esan nahi duen ulertzen saiatuko gara. Bigarren esaldian animalia nolakoa den aurkituko dugu eta azkenik bizitza-ohituraz ere informazioa ematen digu.
- Bigarren aldiz irakurtzen dugunean, arretaz entzuten laguntzeko, erne egoteko esango diegu hurrei, esaldi bakoitzeko gezur bat esango baitugu. Ikasleak hiru edo lau taldetan jarriko ditugu eta paragrafo bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari "Gure ustez gezurra da.....".
- Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu; bestela, taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko ditugu. Gezurra antzeman ondoren, azalpen-testuan azaltzen den bezala irakurriko dugu. Gezurak honako hauek izan daitezke: *Lazertidoen familiako zenbait anfibiosaurioen izen arrunta. Muskerrak baino handiagoak dira. Kolore berdea dute. Intsektuz eta beste hainbat ornodunetz elikatzen dira.*
- Bukatzeko, guztion artean, testuen irakurketaren bidez lortutako informazioa laburtuko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

31. jarduera	LOS ANIMALES QUE TENEMOS EN CASA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1 <i>Ahozko azalpen</i> simple eta kontestualizatuen <i>esanahi orokorra identifikatzea</i> (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.2 Testuaren ulermen orokorrerako oinarrizko hizkuntza-elementuen esanahia interpretatzen du (lexikoa, lokuzioak...).		
1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).		
1.3.6 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz (haurraren egoera sozio-linguistikoaren arabera).		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka eta talde handian	
MATERIALA	Kartoi mehea	
AZALPENA		

- Pregunta a tus alumnos si tienen animales en casa o si les gustaría tenerlos.
- Escribe en la pizarra los animales que los alumnos nombren.
- Si lo consideras necesario, una vez completada la lista, pide a tus alumnos que dibujen en cartulinas los animales de la lista para poder hacer juegos de vocabulario.
- En un DINA5 cada alumno dibujará el animal que tiene o le gustaría tener en casa.
- Pediremos a los alumnos que formulen preguntas para obtener información acerca de los animales que sus compañeros tienen o quisieran tener. (Por ejemplo *¿Cómo se llama?* *¿De qué color es?* *¿Qué come?* *¿Qué sabe hacer?*) El profesor escribirá las preguntas en la pizarra.
- El profesor meterá todos los dibujos en una carpeta o una bolsa y con los ojos cerrados sacará un dibujo de la carpeta/bolsa. Llamará al autor del dibujo para que enseñe su dibujo a la clase y responda las preguntas de sus compañeros.
- El profesor animará a sus alumnos para que hagan las preguntas correctamente y dejará que los alumnos se ayuden unos a otros.
- Finalmente con todos los dibujos podéis completar un pequeño cuaderno o un mural con el título NUESTROS ANIMALES.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

32. jarduera	RANITAS SALTARINAS DE PAPEL	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.2.1 Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen edo jarraibideen arabera jokatzeko du. (Irizpide hau ia jardura guztietan behatzeko aukera dugunez, zenbaitetan bakarrik azalduko da analisisian).</p> <p>4.1.10 Ahal duen neurrian laguntzen die gainerakoei.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Kartoi mehea edo paper berdea (DIN A5), igela egiteko argibideak webgunean	
AZALPENA		

Seguro que a todos nuestros alumnos les gustaría tener una ranita saltarina en casa con la que jugar. En esta actividad haremos ranas de papel siguiendo instrucciones con soporte visual que encontraremos en internet (<http://es.wikihow.com/hacer-una-rana-saltarina-de-origami>) relacionado con el arte de la papiroflexia.

- Haz una rana saltarina de papel siguiendo las instrucciones y muéstrasela a tus alumnos.
- Di a tus alumnos que cada uno va a hacer una rana y que después podrán hacer carreras con las ranas de papel.
- Repasa con tus alumnos el significado de las palabras clave que les permitirán seguir las instrucciones: doblar, extender, cuadrado, triángulo, esquina, mitad...
- Antes de repartir el papel, muestra a los alumnos las instrucciones que aparecen en la página web.
- Pide a tus alumnos que busquen una pareja para que entre los dos puedan seguir las instrucciones. El profesor repartirá a cada pareja el papel necesario para hacer una rana. De esta manera los alumnos podrán ayudarse mutuamente y el profesor, a su vez, ayudará a la mitad de los alumnos a hacer su rana. En la siguiente ronda el profesor volverá a repartir papel para que cada pareja pueda hacer otra rana.
- Finalmente déjales jugar con las ranas y disfrutar de las carreras.
- Pregúntales cuál es la rana más rápida, la más lenta y modela las respuestas para que podáis llevar a cabo la conversación en castellano.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

33. jarduera	ANIMALIAK: IGARKIZUNAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i>.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 92-93 orrialdeak	
AZALPENA		

Animalien izenak eta ezaugarriak gogoratuz asmakizunetara jolastuko gara.

- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten animalien izenak esango ditugu.
- Lehenik, bakarka edo binaka irakurtzen saia daitezela ikasleak.
- Irakasleak deskribapen bat irakurri eta testuan azaltzen diren hitz gako batzuk ikusaraziko dizkie ikasleei, (adibidez: Matxin, salto, zelaian...) irakurtzen ez dakitenei pistak emateko.
- Deskribapen bakoitzari beren ustez dagokion animalia aukeratzeko esango diegu. Ondoren, irakasleak deskribapena berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeko.
- Ikasle bati galdetuko diogu beren aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu.
- Erantzun egokia erabaki ondoren, prozedura bera jarraituko dugu gainerako testuekin.
- Horiek asmatu ondoren, haurrek proposa ditzatela, ahoz edo idatziz, beste animalien inguruko igarkizunak. Horretarako irakasleak adibide bat edo beste jartzea komeni da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

34. jarduera	IPUINA: ARROTZA PARKEAN
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.1 <i>Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gai ei buruzkoak).</i>	
1.3 <i>Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>	
1.5 <i>Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</i>	
1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</i>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.1.1 <i>Azalpena arretaz entzuten du.</i>	
1.1.4 <i>Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.</i>	
1.3.2 <i>Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).</i>	
1.5.1 <i>Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</i>	
1.13.1 <i>Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</i>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak 94-97 orrialdeak
AZALPENA	

Txilikuk idatzitako ipuina irakasleak ikasleei irakurriko die. Ipuina lau zatitan banatu dugu eta zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu. Ulermena lantzeko eta hizkuntza-funtzioak aktibatzeke helburua duten galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interes eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira.
- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu: *Nor izan daiteke Arrotza Parkean? Zer uste duzue gerta dakiokoela arrotza den horri parkean?*
- Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, irakaslea ipuina lasai eta ozenki, taldeari irakurtzen hasiko zaio.

IRAKURRI BITARTEAN

94. orrialdea

- *Parkeko animalien eta landareen artean ezagutzen al duzue baten bat? Eta ezagutzen ez duzuenen bat ba al dago?*
- *Zuek ezagutzen al duzue horrelako parkerik? Ezagutzen dituzuen parkeetan ba al dira landareak eta animaliak? Zein?*
- *Zein da zuen ustez ipuin honetako narratzailea?*

95. orrialdea

- *Ikusi al duzue inoiz txantxangorririk? Nolakoak dira? Txantxan txantxangorria izan daiteke arrotza parkean? Zergatik?*
- *Zergatik etorriko ote zen beste txantxangorria Euskal Herrira?*

96. orrialdea

- *Zergatik esaten dio Txantxanek "Ez ahaztu, parkea nirea da"? Zuek zer egingo zenukete Txantxan izango bazinete? Eta Paparrot izango bazinete?*
- *Paparrot urrutitik eta gosez etorri da. Badira gure artean ere urrutitik eta gosez etortzen diren pertsonak. Ezagutzen al duzu egoera horretan dagoen inor? Imajinatzen al duzu zer gertatuko litzaizukeen jan ahal izateko zure herria utzi eta urrutira joan beharko bazenu? Zer sentituko zenuke? Bertakoek nola tratatzea gustatuko litzaizuke?*

97. orrialdea

- *Nola lortu zuten biak elkarrekin gustura egotea? Lehen Txantxanek bere zuhaitza galtzeko beldurra sentitzen bazuen, orain nola sentituko da? Elkarrekin abestu izan ez balute, zer gerta zitekeen?*
- *Zuei inoiz gertatu al zaizue horrelakorik beste haur batekin? Ezagutzen al dituzue beste modu batzuk lagunak egiteko?*
- *Ipuinaren bukaeran zer pentsatzen du parkeak bi txoriei buruz? Ados al zaude horrekin?*
- *Nork asmatuko du ikastolan beti bakarrik egon nahi zuen haur baten ipuina?*

IRAKURRI ONDOREN

- Beste egun batean, talde handiko irakurketa egingo dugu. Ikasle bakoitzak liburua aurrean duela, ilustrazioari behatzeko denbora tarte-bat emango diegu. Gero, testuaren gaineko hipotesiak egiteko eskatuko diegu eta, irakurketari ekin aurretik, horietako batzuk entzungo ditugu. Ondoren, denok elkarrekin testua irakurriko dugu. Irakurketa horretan pertsonaiak eta narratzailearen hitzak banatu gelako ikasleen artean. Hau da, gelakideen mailaren arabera, bosteko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (narratzailea, bi haur parkea, Txantxan eta Paparrot) irakurriko dute talde txikian.
- Irakurketa pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin edo norberak etxean saioak egin edo irakurri ondoren egin daiteke.
- Bukatzeko, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei; adibidez: *Zenbat aldiz azaltzen da Txantxan izena? Eta Paparrot? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetan dagoen hitzik luzeena? Eta motzena?...*
- Lantze hori egin ondoren, ikasleek liburua etxera eramango dute ipuina gurasoei irakurtzeko edo kontatzeko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

35. jarduera	SPEEDY THE SNAIL	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
To participate actively in oral activities. To enjoy with literature		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
Listen to the teacher storytelling. (1) Show interest and take part in the activity. (1) Participate in story telling, negotiating dialogues with the teacher. (2) 1- Txanela proiektua, ziklo bukaerako helburuak eta ebaluazio irizpideak 2- Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Big group	
MATERIALA	Book page 14 and enlarged photocopies of the animal pictures you will find in the appendix of the guide	
AZALPENA		

In the previous activities we have been working on animals and how to classify them. Now we are going to bring literature closer to young children, telling them a story about a snail, a fast snail.

- Ask the pupils to turn to page 14 and give them a few moments to look at it.
- Ask them to look at the animals in the page. Elicit from the pupils or work with them the names of the animals.
 - Bee *.let's all run our fingers together and make them fly and sound like a bee. Snail, let's all lie on the carpet and move like a snail. Ant. Keep the middle three fingers lined up, place them onto the carpet and pretend to make a fingerprint ant. Grasshoper. Jump like a grasshoper.*
 - Now repeat: *Bee, snail, ant and grasshoper.*
 - Invite children to play a guessing game(suffle, suffle what's this?) with the names of the animals.
- We are going to invite children to read Reddy's bubble and share meaning of the sentence with the whole group:
 - *What is Reddy saying. Let's all read.*
 - *"Ready, steady, go!"The animals are going to have a race. How fast can they move? Which one do you think is the **speediest?** (they need to understand and remember the word'Speedy' to understand the story). Which one runs **faster** than the others?'Speedy' and 'fast' is the same.*
 - *Now the animals are going to start their race.. Ready, steady, go! Who is going to win? Who is going to be first, to be number one? Who is going to be second, to be number two? And who is going to be third, to be number three? And who is going to be last, number four? What do you think? Draw the animals as they finish the race.*
- Let them draw the animals in the running track, according to the order they predicted . When they finish listen to all the answers and comment them with the whole group.
 - *Who is the speediest? who is the slowest? etc?*
 - *How many people drew the bee as the winner? And how many the grasshopper? etc. Did everyone put the snail as the slowest?*
- Choose a space for story telling, a place where the pupils can get close to you and see.
- To tell the story draw the running track in the blackboard, make enlarged photocopies of the pictures you have in the appendix of this guide and use them as puppets to tell the story moving them or making them appear and disappear.
 - *Well now I'm going to tell you a story about SPEEDY THE SNAIL.*

SPEEDY THE SNAIL

Once upon a time there was a snail called Speedy. One day Speedy was in the park when he heard a noise. "Buzzz, buzzz". It was a buzzing bee flying around the flowers. "Good morning", said Speedy. "I'm Speedy the Snail". "Ha, ha, ha, that's a silly name for a snail", laughed the bee. "Why is it silly?" said Speedy. "Because you're not speedy. You're slow. You're a snail. Now, I'm a bee. I'm speedy. Look how fast I can fly, buzz, buzz". "But I can..." Speedy started to say. But the bee had flown away.

Speedy carried on in the park. Just then he saw a grasshopper jumping along. "Hello," said Speedy. "I'm Speedy, the snail" "Ha, ha ha, that's a silly name for a snail", laughed the grasshopper. "Why is it silly?" said Speedy. "Because you're not speedy. You're slow. You're a snail. Now, I'm a grasshopper. I'm speedy. Look how fast I can jump." "But I can..." Speedy started to say. But the grasshopper had jumped off.

A little later, Speedy met an ant carrying a heavy load. "Good day", said Speedy. "I'm Speedy the snail". "Ha ha ha, that's a silly name for a snail", laughed the ant. "Why is it silly?" said Speedy. "Because you're not speedy. You're slow. You're a snail. Now, I'm an ant. I'm speedy. Look how fast I can run." "But I can..." Speedy started to say. But just then it started to rain. "It's raining. Quick, I have to fly home", said the bee. "Help, I'm getting wet", said the grasshopper. "Hurry. Run home", said the ant.

Then Speedy said. "But I'm not wet. I'm nice and dry. That's what I wanted to tell you. I can get into my house faster than any creature in the park. That is why I am called Speedy"

- This story can be easily dramatised in the classroom following the same procedure you use to dramatise Hocus and Lotus stories (See Eleanitz project Hocus and Lotus Teacher's guide)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

36. jarduera	PARKEAN DAUDEN PERTSONAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen <i>esanahi orokorra identifikatzea</i> (ezagutzeekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarritzko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i>.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.1.4 Entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Irakurgaiak 98. orrialdea	
AZALPENA		

Pertsonak ere animaliak gara... bi hankako animaliak! Eta ornodunak noski! Igarkizun horiek, parketan egoten diren pertsoneri buruzkoak dira.

- Parkeetan pertsona asko egoten da lanean, paseatzen.... Pertsona horiek denon artean zerrendatu eta bakoitzak zer egiten duen aztertuko dugu.
- Ikasleei orrialde horretan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten pertsonak zertan ari diren aztertuko dugu.
- Lehenik, bakarka irakurtzen saia daitezela ikasleak.
- Irakasleak deskribapen bat irakurri eta testuan azaltzen diren hitz gako batzuk ikusaraziko dizkie ikasleei, (adibidez: muxu, maite...) irakurtzen ez dakitenei pistak emateko.
- Deskribapen bakoitzari beren ustez dagokion erantzuna erabakitzeke diegu. Ondoren, irakasleak deskribapena berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeke.
- Ikasle bati galdetuko diogu beren aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu.
- Erantzun egokia zein den erabaki ondoren, prozedura bera jarraituko dugu gainerako testuekin.
- Horiek asmatu ondoren, haurrek proposa ditzatela, ahoz edo idatziz, beste pertsonen inguruko igarkizunak. Horretarako, irakasleak adibide bat edo beste jartzea komeni da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

37. jarduera	ARTELANA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruaren ezaugarriak buruzko jakin-mina adierazten du. 3.3.7 Naturagunean, ingurumen artifizialean eta arte-ingurumenean dauden elementuen behaketa eta zentzumen bidezko azterketa egiten du. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburua 15. orrialdea, parkeko aldizkaria eta parkean marrazkiak egiteko beharrezkoa den materiala (arkatzak, borragomak, argizariak, paperaren azpian jartzeko xafla gogorrak...)	
AZALPENA		

Hor agertzen zaigun artelana pintore euskaldun batek egindako margolana da. Anselmo Guinea Ugaldek paisaiak pintatzeari hasieratik bertatik ekin zion, errealismotik, baina azken urteetan inpresionismoaren, puntillismoaren eta modernismoaren eragina izan zuen. Inpresionismoak gai eta joera berriak ekarri zizkion euskal pinturari: bizitza modernoa islatzea, naturalismoa eta argiaren erabilera. Baldintza horiekin, paisaiak egundoko garrantzia hartu zuen. Errealitatearen eta argiaren unez uneko aldaketak irudikatu nahiak elkarganatu zituen artista inpresionistak. Haien margolanetan ez dago ez islarik ez marrarik. Beren lanetan oinarritzko koloreak (zian, magenta eta horia) eta horien osagarriak (laranja, berdea eta morea) nagusitzen dira eta koloreen arteko kontrastea baliatu zuten argitasuna adierazteko.

LIBURUKO ARTELANA AZTERTU

- Utzi haurrei denbora tarte orrialdeko elementu guztiei (artelana, izenburuak, globoak, info ikurra...) ondo behatzeko. Ondoren, bideratutako behaketa egingo dugu.
- Denon artean biografia irakurri ondoren, haurrek margolanari buruz dituzten sentsazioak adierazteko, elkarrizketa bat bultzatuko dugu:
 - Zer iruditzen zaizue margolan hori? Gustatzen al zaizue?
 - Zein uste duzue dela margolanaren gai nagusia?
 - Nola margotu ditu artistak zuhaitzak, belarrak eta loreak?
 - Zein kolore erabili ditu?
 - Nola lortu du artistak argitasuna adieraztea?
- Informazio-iturrietara joko dugu: naturaren txokora. Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu haurrei: naturaren irudikapenak ikusi nahi ditugu. Jasotako informazioa edo aurkitutako irudiak talde osoarekin partekatzea komeni da.

IRTENALDIA EGIN

- Guk ere, aztertzen ari garen natura parkea irudikatuko dugu. Aldizkarian marrazkia egiteko aurkituko duzun orrialdea hartu eta ikasleekin parkera joango gara. Norberak bere gustuko txokoa aurkituko du eta txoko hori irudikatzen saiatuko da. Horretarako, naturagunean azaltzen diren elementuen eta zentzumenen bidezko azterketa egiteko minutu batzuk hartzeko eskatuko diegu.
- Marrazkia egiteko, paisaia urrutitik irudikatzea beharrezkoa da. Izan ere, xehetasunak baztertu eta paisaia bere osotasunean azaltzea nahi dugu.

ALDIZKARIA ETA ERAKUSKETA OSATU

- Marrazki guztiekin osatu duzun panela, erakusgai jarriko duzue gelan bertan edo erakusketarako erabiliko duzun gelan (ikusi liburuko 16-17 orrialdeak).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

38. jarduera	PARKEKO BIZIGABEAK
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarrizko ezaugarriak hautemanez.	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka
MATERIALA	Parkeko aldizkarian bizigabeen orrialdea eta abestien CDko 42. pista
AZALPENA	

Hasierako sailkapenari jarraituz, parkeetako bizigabeak lantzeko unea iritsi zaigu. Hurrek, aztertzen ibili garen parkean zein elementu bizigabe dauden gogoratu eta zerrendatu egin beharko dituzte.

- Gure ikasleei bizigabeak zein diren edo zer diren galdetuko diegu. Guztion artean "bizigabe" hitzaren esanahia argituko dugu.
- Aldizkaria ireki aurretik parkean dauden bizigabeak zein diren pentsatzeko eskatuko diegu. Horietako batzuk entzungo ditugu.
- Parkean hormarik badago, harria zer motatakoa den (kare harria, hareharria...) argitzea egokia litzateke, baita horma baten inguruan egon daitezkeen bizidunak ezagutzea ere (sugandilak, barraskiloak, horma-belarrak...).
- Hala ere, parkean eskulturaren bat egongo balitz, horren inguruko hausnarketa egitea proposatzen dizuegu.

ALDIZKARIA OSATU

- Parkeko aldizkariko zerrenda idazten hasi aurretik, zerrendak nola idazten diren gogoratuko dugu. Hau da, buletak erabiliz eta lerro bakoitzean hitz bat idatziz edo zerrendan azaltzen diren elementuen artean komak erabiliz eta azkeneko elementuaren aurretik "eta" hitza idatziz.
- Ondoren, ikasleak banaka aldizkaria ireki eta parkean ikusitako bizigabeak zerrendatuko dituzte.
- Bukatzeko, elementu bizigabe horietako batzuk marrazteko eta margotzeko eskatuko diegu.
- Aldizkaria osatu ondoren, *Zabuan* jolas abestia entzun dezakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

39. jarduera	LOREZAINEN TRESNAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i>.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 42. orrialdea	
AZALPENA		

Parkeko bizigabeekin jarraituz, lorezaina eta garbitzailearen zenbait tresnen izenak idatzi beharko dituzte hurrek. Erreferentzia gisa, azpialdean hitzak agertzen zaizkie.

- Liburuak ireki aurretik, parkeko lorezainek eta garbitzaileek erabiltzen dituzten tresnak izendatzeko eskatuko diegu. Pentsatu dituzten horietako batzuk entzungo ditugu.
- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, irudia, hitzak, hitzak idazteko marrak... Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Fitxa egin aurretik hiztegia lantzea beharrezkoa baderitzozue honako jokoak egin:
 - HITZAK ASMATU. Ikasle batek tresna bat pentsatuko du eta gauza hori zer den adierazteko keinuak egingo ditu edo tresna horren erabilera hitzez adieraziko du. Besteek pentsatutako tresna zein den asmatu beharko dute.
 - PICTIONARY JOKOA. Ikasleak taldeka eseriko dira mahai baten inguruan eta talde bakoitzak arkatza eta papera izango du. Taldeko kide bakoitzak zenbaki bat izango du. Irakasleak zenbaki bat esango du eta zenbaki hori duten ikasleak irakaslearengana joango dira. Irakasleak hitz bat erakutsiko die ikasleei. Ikasleak beren taldeetara joango dira eta irakurritako hitzari dagokion marrazkia egingo dute. Taldeko kideek marrazki hori zer den asmatu behar dute eta paper batean idatzi. Hitz hori irakasleari erakutsiko diote eta asmatu badute, irakasleak taldeko beste ikasle bati beste hitz bat erakutsiko dio, jolasean jarraitzeko.
- Ikasleei marrazkiak arretaz begiratzeko eta binaka elementuak identifikatzen eta izendatzen saiatzeko eskatuko diegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

40. jarduera	TESTUA BERRIDATZI	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 43. orrialdea eta orrialde horretan laukien barruan azaltzen diren hitzen kopiak	
AZALPENA		

Idatziaren aurkezpeneko egokia den ariketa hau egingo dugu. Testuan txertatuta dauden marrazki bakoitzaren ordez dagokion hitza idatziz, testu labur horren berridazketa egingo dute haurrek.

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testua eta irudiak, hitzak idazteko marrak... Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu ezagutzen dituzten hitzak berarekin batera irakurtzera. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Testua kopiatzen hasi aurretik, ikasleek berridazketa nola egin ulertzen dutela ziurtatzea komeni da. Horregatik, talde handian, hainbat adibide arbelean ikusteaz gain, ikasle bakoitzari erdian azaltzen diren hitzen kopia bat ematea proposatzen dizuegu. Liburu digitalean daude eskuragarri. Beraiek banaka txartelak irakurri, moztu eta dagokien marrazkiaren gainean itsatsiko dituzte.
- Hitzak marrazkien gainean itsatsi ondoren, testua beheko lerroetan kopiatuko dute kaligrafian, marjinetan, hitzen banaketan eta puntuazio-marketan arreta berezia jarritz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

41. jarduera	AURKIBIDEA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanaz.		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuak (edizio eguneratua), txoko zuriko aldizkariak eta liburuak eta parkeko aldizkaria	
AZALPENA		

- Aurkibideen helburua talde handian aztertuko dugu. Hau da, orrialde asko dituen liburu batean testu jakin bat aurkitu nahi dugunean zer egin dezakegun galdetuko diegu ikasleei. Hauren ideiak entzungo ditugu eta gure asmoa aurrera eramateko aukera egokia zein den erabakiko dugu.
- Aldizkariaren aurkibidea egin behar dutenez, erreferentzi bat izan dezaten, Irakurgaiak liburuko aurkibidea behatu, irakurri eta aztertuko dugu. Talde handian Irakurgaiak liburuko aurkibidearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: testuen gaiak edo izenburuak, zenbakiak, izenburuak eta zenbakiak lotzeko puntutxoak... Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Aurkibidearen erabileran trebatzeko, ikasleak binaka jarriko ditugu. Irakasleak Irakurgaiak liburuko testu baten izenburua esan eta ikasleek testu hori zein orrialdetan dagoen aurkitu beharko dute.
- Horrez gain, naturaren txokoan ditugun liburuen eta aldizkariaren aurkibideei behatuko diete talde txikian.
- Talde bakoitzari bizpahiru aldizkari ematen badiogu, haurrak eskuartean dituzten aldizkariaren edo liburuen aurkibideak behatu eta aldera ditzakete.
- Ondoren, guztien artean elkarrizketa bideratuko dugu elementu adierazgarriak taldean aurkeztuz.
- Bukatzeko, ikasleak banaka aldizkariko orrialdeetan zenbakiak jarri eta gero, aurkibidea osatuko dute.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

42. jarduera	BIOGRAFIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea. 1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanaz. 1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka
MATERIALA	Idazlearen biografia duten hainbat liburu edo aldizkari, parkeko aldizkaria eta ikasleen argazki txikiak
AZALPENA	

Beste ezertan hasi aurretik, haur bakoitzak azalaren atzealdean bere argazkia itsatsiko du. Ondoren, idazleek egiten duten eran, beren bizitzako hainbat datu idatziko dituzte.

- Lehenengo, irakasleak hainbat aldizkari eskuratuko ditu eta talde handian aldizkarietan azaltzen diren biografiak aztertuko ditugu, eduki aldetik zein forma aldetik.
- Ondoren, irakasleak, adibide gisa, aldizkarian bere argazkia itsatsi eta bere biografian jasoko lituzkeen datuak era eskematikoan idatziko ditu arbelean
 - Izena : Miren Agirreolea
 - Adina: 35 urte
 - Urtebetetze-data: apirilaren 15
 - Bizilekua: Donostia
 - Zaletasunak: Lagunekin hitz egitea eta irakurtzea.
 - Nori eskaintzen diodan: Zaldi gelako neska-mutlei
- Irakasleak arbel zuriak banatuko ditu eta ikasle guztiek beren datuak idatziko dituzten inprimategietan azaltzen diren eran. Irakaslearen biografia adibide gisa idazteko elkarrizketaren transkripzioaren zati bat duzue honako hau:

IRAKASLEA: *(Hasieran idatzitako datuak irakurriz)* Miren Agirreolea. Nola idatziko dut? Nola esango diot aldizkaria irakurtzen duenari nire izena zein den?

IKASLEA: Miren Agirreolea naiz.

IRAKASLEA: Bikain, halaxe jarriko dut. Eskerrik asko. *(Irakasleak esaldia arbelean idazten du)*

IKASLEA: Eta... Miren Agirreolea dut izena?

IRAKASLEA: Baita ere, horietako edozein idatz dezakezue. Irati zuk nola jarriko zenuke?

IKASLEA: Irati Oiartzabal dut izena.

IRAKASLEA: Zuk Urtzi nola jarriko zenuke?

IKASLEA: Ni Urtzi Gonzalez naiz. Puntua jarri behar da.

IRAKASLEA: Oso ondo, zu bai behatzaile azkarra! Orain adina. *(Hasieran idatzitako datuak irakurriz)* Nola esango zeniokeite lagun bati zenbat urte dituzuen?

IKASLEA: Nik sei urte ditut.

IKASLEA: Nik zazpi urte ditut.

IRAKASLEA: Ederki, orduan nik zer idatziko dut nire biografian?

IKASLEA: Nik 35 urte ditut

IRAKASLEA: Bale, mila esker. Orain zer?

IKASLEA: Urtebetetzea.

- Ikasleei azalduko diegu liburutegiko edo kiroldegiko bazkide-txartelak egiteko inprimategietan esaterako, gure datuak goian dauden eran azaltzen direla. Aldizkarietan berriz, datu horiek esaldiz esaldi eta paragrafoetan antolatzen dira.
- Irakasleak adibidearekin jarraituz, bere biografia idatziko du arbelean. Idazten duen bitartean idatzi aurretik plan bat egitea eta idatzi ondoren idatzitakoa irakurtzea beharrezkoa dela azpimarratuko du (ikus adibidea).
- Orain bai, irakaslearen adibideari jarraituz, arbel zurietan idatzitako datuak esaldiz esaldi eta paragrafoz paragrafo antolatuko dituzte.
- Bakoitzak bere biografia osatu ondoren, bere buruaren aurkezpena egingo du. Ahots garbiz eta ozen, denon aurrean, ikasleek banan-banan beren biografia irakurriko dute.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

43. jarduera	ENTZUNALDIA: ERAKUSKETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.1.4 Hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizio laburrak aktiboki entzuten ditu. 3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Jardueren CDko 34. pista	
AZALPENA		

Erakusketa antolatzen ari garen unea baliatuz, Mussorgskiren *Erakusketa bateko margolanak* obraren lehengo mugimendua entzungo dugu: *paseoa*. Entzunaldi horretan proposatzen dizuegun jarduera, musika entzutean erakusketa ikusten dutela irudikatzea izango litzateke

- Hasteko, beti bezala, konpositorearen biografia irakurri eta "Gure konpositoreen txokoan" kokatuko dugu: **Mussorgski, Modest Petrovitx**. Konpositore errusiarra (Karevo, 1839 - San Petersburgo, 1881). Operak, errealismo handiko melodiak eta pianorako lanak konposatu zituen. Originaltasun eta eragin handiko konpositorea izan zen bere garaian.
- Musikari horri buruzko informazioa honako web-orrialdetan aurkituko duzue:
<http://www.epdip.com/compclasico.php?id=1068>
http://members.tripod.com/~mundoclasico/cps/MUSSO_00012.htm
- Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu izenburua eta baita bildutako informazioaren inguruan ere.
- Musika jarri baino lehenago haurrak kokatu egin beharko ditugu:
- *Musika entzutean irudikatu ate handiak dituen museo baten aurrean aurkitzen zaretela. Ateak poliki-poliki ireki eta museora sartzen zarete. Barruan zer ikusten duzuen imajinatu behar duzue: margolanak, eskulturak... eta kontuan hartu beharko duzue museoan zehar paseatzen zoaztenean nola sentitzen zaretan.*
- Bukatzean, bakoitzak irudikatu duena berbalizatzeke eskatuko diegu ikasleei: *Nolakoa zen museoa? Zer zegoen? Zer gustatu zaizu gehien?...*
- Entzunaldia nahiko laburra denez, nahi izanez gero, bi aldiz entzun dezakegu. Horren ostean, haur bakoitzak imajinatu duenaren marrazki bat egingo du.
- Ondoren, *Estatuen jolasa* egitea proposatzen dizuegu. Jolas hori asko gustatzen zaie haurrei, askorentzat irribarrea saihesten, mugimendua eragozten edota irakasle/zaintzailearen tranpetan ez erortzen erronka bat bihurtzen delako. Haurrak museo bateko estatuak izango dira eta zuek museoko zaintzaileak. Musika jartzean, zaindaria "lo" zaudeten bitartean, estatuak dantzan eta algaraka hasiko dira.
- Musika bukatzean, zaintzailea esnatu eta haurrek berriz estatuarena egiten hasi beharko dute. Antzerki pixka bat eginez, zaintzaileak esnatzean zerbait entzun duela, estatuaren artean agian lapurren bat egongo dela eta lapurra aurkitzeko "amarru" batzuk egingo dituela adieraziko die haurrei. Estatuak mugitzen ez direnez, mugitzen edo irribarrez ikusten dituzuen haurrak zaintzailearen laguntzaileak izatera pasatuko dira.
- Jolas horretan estatuak keinuak eta amarruak egitea (*Ainhoa, lurrean dagoen gozokia zurea al da?, Mikel, zu lehen mugitu egin al zara?...*) zilegi da, baina haurrak ez ukitu eta ez beldurtu.
- Bost haur gelditzen direnean, berriro has gaitezke jolasarekin.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

44. jarduera	ERAKUSKETARAKO GONBIDAPENA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Birraitonaren museoa CD-ROM	
AZALPENA		

Erakusketa antolatuta ondoren, gurasoei bidaltzeko gonbidapen bat idatzi beharko du haur bakoitzak.

- Gonbidapenaren helburua eta egitura talde handian aztertuko ditugu.
- Ondoren, edukia garatzeko, hizkuntza forma egokiak bilatu eta kodetu egingo ditugu. Horretarako, idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioa egingo dugu. Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testua arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez.
- Arbelean taldeko azterte-, zuzentze-, adoste-lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu.
- Ikasle bakoitzak orri batean kopiatuko du. Ekoizpen lana aurretik egin dagoenez, hau izan daiteke kopia proposatzeko ordua, hau da, idazketaren txukuntasunean arreta jartzeko ordua.
- Ez ahaztu Birraitonaren Museoa 1 CD-ROMean idazketa-tailerra daukazuela. Horko tresnak baliatuz, gonbidapen dotorea idatz dezakezue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

45. jarduera	ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.		
4.3 Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarritzko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du. 4.1.3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Zinta eder bat erakusketaren sarreran jartzeko, kartoi mehezko txotxongiloak, argazki-kamera, erakusketa girotzeko musika eta antzerkitxorako gidoia (eranskinetan)	
AZALPENA		

Pixkana-pixkana osatu dugun erakusketaren inaugurazioa prestatzea baino ez zaigu falta. Egun horretan neska-mutilak dotore-dotore egongo dira (paperez egindako pajaritak edo lazo batzuk, edo lepokoak... izango dituzte apaingarri).

- Zinta eder bat sarreran jarri behar da eta zinta hori moztu egingo dugu denok prest gaudenean.
- Une aproposa da, *Naturaren sekretuak* abestia ikasi genuenean prestatu genituen txotxongiloak erabiltzeko. Horrela, ikasle batzuk errezitatzen edo abesten duten bitartean, beste ikasle batzuk aipatzen diren txotxongiloak atera eta mugituko dituzte.
- Nahi izanez gero, kartoi mehezko txotxongiloak egin eta gida honen bukaeran aurkituko duzuen testua antez dezakezue.
- Ondoren, bisitariak erakusketa ikusiko dute.
- Ekintza horretarako ardurak banatzea komeni da. Inaugurazio bat baino gehiago egiten baduzue, neska-mutilek hainbat ardura har ditzakete; adibidez:
 - Txotxongilolariak
 - Zinta mozteko arduradunak
 - Argazkilariak
 - Erakusketa girotzeko musikaz arduratzen direnak.
 - Erakusketa komentatzen dutenak.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

46. jarduera	PROIEKTUAREN BALORAZIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA		
AZALPENA		

Proiektuaren balorazioa eta komunikazioa egingo dugu. Sintesi-jarduera da, hau da, egindako lana era eraikitzaile batean kritikatzeko edo balioesteko proposatzen den jarduera. Bi alderdi dira unitate honetan balioestekoak:

- Jarduerari ekin aurretik, erakusketaren eta irtenaldien eguneko argazkiak edo bideoa prest edukiko d(it)ugu. Gelako ordenagailua eta proiektagailua erabiliz, argazkiak talde handian ikusiko ditugu.
- Hausnarketa galdera hauen inguruan burutu daiteke:
 1. Norberak izan zuen esperientzia edo jarrera adostasuna lortzean eta ardurak betetzean.
 - Zer lan egin ditugu aldizkaria/txostena osatzeko?
 - Lan horiek (ongi-erdizka-gaizki) egin ditut.
 - Erakusketan (lasai-gustura-urduri-lotsatuta) sentitu naiz.
 - Hurrengo batean zer egin dezaket hobeto?
 - Zer egin dut oso gustura?
 - Zer egin dut oso erraz?
 2. Taldean eztabaidatzeko
 - Taldeko lan guztiak giro onean egin dituzue?
 - Arazoren bat sortu denean zer egin duzue?
- Argazkiak ikusten dituzuen bitartean, irakasleak goian jarritako galderak egin eta erronda bat irekiko du, bakoitzari, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz.
- Atal honekin bukatu aurretik, ondo egindakoak eta hobetu beharrekoen inguruko hausnarketatxoa bultzatuko dugu. Agian, akta moduko bat paper batean jasotzea interesgarria izan daiteke, hurrengo proiektuei begira. Bestalde, aurreko proiektuan jaso genuen aktarekin konparatu eta balorazioa egin dezakegu: *Zer egin dugu ondo bi proiektuetan? Zertan hobetu dugu? Zertan hobeto behar dugu?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

47. jarduera	ZER DAKIZU ORAIN NATURARI BURUZ?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .	
4.4	Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko..	
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
4.4.1	Prozesuan landutako ideiak, hainbat tresnen bidez era gidatuan biltzeko gai da.	
4.4.2	Aprentizaia prozesuaren hainbat uneetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 18. orrialdea eta ikasleekin batera osatutako ikasnorabidea	
AZALPENA		

- Kontzeptu-mapa erabiliz gaiaren sintesi bat egitea proposatzen dizuegu. Hala ere, gure helburua ez da haur bakoitzak naturari buruz zenbat ikasi duen neurtzea, baizik eta unitatean zehar landutakoa era eskematikoan adierazita ikustea, kontzeptu-maparen osaketan parte hartzea eta ikaskuntza-prozesuaren balorazio positiboa egitea.
- “Zer ikasi nahi dugu?” izenburuko jardueran, ikasnorabidea osatu genuen. Ikasleek egin zituzten galderak baliatuko ditugu kontzeptu-mapa egiteko.
- Irakasleak ikasnorabidean dauden galderak banan-banan irakurriko ditu. Ikasleen lana arretaz entzutea eta hitz gakoa identifikatzea izango da. Irakasleak hitz gako hori azpimarratu edo biribildu egingo du.
- Kontzeptu-mapak osatutako ikasnorabidearen arabera, atal gehiago edo gutxiago eduki ditzake eta baita atal bakoitzetik gai berriak sortu ere.
- Galdera kopuruaren arabera ikasleak talde txikietan (2-4 kide) jarriko dira. Erantzungo duten galdera aukeratuko dute, hitz gakoaren irakurketa baliatuz. Galderaren erantzuna irakasleak alde aurretik prestatutako paper zurian edo post-it batean idatziko dute. Talde bakoitzak edo batzuetan bi taldek, galdera bati erantzuteko ardurak izango dute. Horretarako, gelan ditugun informazio-iturriei ondo begiratzeko eta ikasitakoa gogora ekartzeko eskatuko diegu.
- Irakasleak arbelean kontzeptu-mapa osatzeko biribilak marraztuko ditu edo alfonbraren gainean koloretako uztaiak jarriko ditu. Uztaiak erabiltzeak prozesu erabat abstraktua irudikatzen laguntzen du.
- Ikasnorabidea osatzen zuten galderak moztu eta uztaien arteko loturak egiteko erabiliko ditugu.
- Erantzun guztiak idatzita daudenean, irakasleak kontzeptu mapan azaltzen den galdera irakurriko du eta ikasleek beren post-it-ean edo paper zatian idatzi dutena irakurriko diote talde osoari. Azkenik, erantzuna dagokion uztaiaren barruan itsatsiko dute. Pauso horiek galdera guztiekin egingo ditugu.
- Jarduera bukatzerakoan, irakasleak DIN-A3 batean mapa kopia edo post-it-ak edo paper zatiak ordenaturik jarriko ditu. Ondoren, ikasle bakoitzarentzat kopia bat egingo du, ikasleek, erditik tolesturik, liburuan itsasteko.
- Liburua itxi aurretik, hasierako kontzeptu-maparekin alderatzeko eskatuko diegu, zenbat ikasi duten aipatuz.
- Beste egun batean, elkarrekin irakurriko dugu. Irakasleak loturak edo galderak irakurriko ditu eta ikasleek berriz, beraiek idatzitako testuak. Kontzeptu-mapa berrian, informazioa biltzeko formaren bidezko ezaugarriak aipatuko dira (gaia erdian, kontzeptuak letra larriz, loturak xehez...).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

48. jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburuko 19. orrialdea
AZALPENA	

- Aurreko komikietan zer gertatu zen gogoratuz hasiko gara.
 - Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko komikietan? Zertan ari ziren Maddalen eta Fermin? Zer bururatu zitzaizkien Maddaleni eta Fermi birraitonaren paperak irakurtzen ari zirela?
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei:
 - Zer egingo dute Maddalenek eta Ferminek parkean? Aurkituko ote dute piezaren bat museorako? Zer izango ote da pieza hori?
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - Zer dugu orrialde horretan? (Komikia). Zertan ari dira Maddalen eta Fermin?
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren balibideetan (binetak, onomatopeiak, narratzailearen eta pertsonaien hitzak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsua iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - Zertan ari dira Maddalen eta Fermin lehenengo bi binetetan? Nola begiratzen dio Urdintxok Fermi argazkia ateratzen ari den bitartean? Zergatik? Zer gertatuko litzateke Ferminek arrautza horietako bat bere etxera eramateko hartuko balu? Nola sentitzen da Maddalen zuhaitza ukitzen ari den bitartean? Zergatik? Zuek ere horrela sentitu al zarete zuhaitza ukitzerakoan?
 - Fermin hamaiketakorik gabe geratu denean, Maddalenek beretik hartzeko esan dio. Zer egingo du Ferminek orain, haserre jarraituko du edo Maddalenek eskainitakoa hartuko du? Zuei gertatu al zaizue inoiz horrelakorik? Haserre zaudetenean erraz onartzen al dituzue konponbideak edo denbora pixka bat behar duzue haserre desagertzeko eta konponbideak onartzeko?
 - Zergatik erabaki dute Maddalenek eta Ferminek makila bat museoan jartzea? Zuek egon al zarete inoiz museo batean? Zer-nolako gauzak egoten dira museoetan?
- Haurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanaz (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rolak txandatu bi irakurketa eginez.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - Maddalenek eta Ferminek, naturagunearen azterketa egin ondoren, muserako pieza guztiak eskuratu dituzte. Zer gertatuko da hurrengo komikian. Pieza horiek erakusgai jarriko al dituzte? Zer esango diete urtearen hasieran denboraren makinak ez zuela funtzionatuko esaten zuten kazetariei?
- Maddaleni eta Fermi gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (PARKEA, HAMAIKETAKOA, LAPURRA, MAKILA, MUSEOA...) bilatzeko eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzeko). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

49. jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburuko 20-21 orrialdeak
AZALPENA	

- Ikasturtearen hasieran gertatu zena gogoratuz hasiko gara.
 - Gogoratzen al zarete ikasturte hasieran Maddalen eta Fermin egunkarian azaldu zirela? Zer gertatu zen orduan? Orain ere gauza bera gertatuko al da?
 - Gogoan al duzue Maddalenek eta Ferminek bidaia bakoitzetik zer pieza ekarri duten?
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei:
 - Nork egin die barre Maddaleni eta Fermini? Zer gertatuko ote da komiki honetan?
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - Zer dugu orrialde horretan? (Komikia). Zertan ari dira Maddalen eta Fermin? Zer kontatzen digu komikiak?
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren balibideetan (binetak, onomatopeiak, narratzailearen eta pertsonaien hitzak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuek iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - Zer gertatu ote da Maddalenek eta Ferminek birraitonaren makila museoan jartzea erabaki zutenetik kazetarien aurrean jarri diren arte?
 - Noiz uste duzue sentituko direla hobeto gure lagunak, ikasturtearen hasierako prentsaurrekoan edo oraingoan? Zuei ere horrelakorik gertatu al zaizue inoiz?
 - Imajinatzen al duzu zuk prentsaurreko bat eman beharko bazenu? Zertaz hitz egingo zenuke?
- Haurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanaz (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu eta bi irakurketa egin.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - Maddalenek eta Ferminek hilabete hauetan eskuratu dituzten museorako pieza guztiak hartu eta ikasturte hasieran denboraren makinak ez zuela funtzionatu esaten zuten kazetariei, oker zeudela azaldu diete.
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan, gogora ekarriko ditugu.
 - Piezak ikusi ondoren zer esango dute kazetariei? Maddalenek eta Ferminek zerbait gehiago esango diete kazetariei?
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (KAZETARIEI, BARRERIK, MAKINA, HEZURRA, IRUDIA, SUHARRIZKO LABANA, PITXERRA, TXANPONAK, MAKILA...) bilatzeko eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue. Saia zaitzete antzeko maila duten haurrak elkartzen. Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

50. jarduera	BERRIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarriko ezaugarriak hautemanaz.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak 99. eta 100. orrialdeak eta ikasleek testu mota honen funtzioari buruz dakitena behatzeko eranskinetan aurkituko duzuen fitxa	
AZALPENA		

Maddalenek eta Ferminek egindako prentsaurrekoaren ondoren kazetariak idatzitako berria irakurriko dugu oraingoan.

- Irakurgaiak liburua irekiko dugu 99. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Testua irakurri baino lehen, testu mota honen ezaugarriak (funtzioa, egitura...) elkarrekin gogoratuko ditugu.
- Testuaren funtzioa eta komunikazio-asmoari buruz ikasleek dakitena behatzea helburu baduzue, gida honen eranskinetan galdetegia aurkituko duzue. Irakasleak galderak banan-banan ozenki irakurriz bidera dezake hori guztia, eta ikasleei bakarka edo talde txikian hartuz gero, ahoz eska dakieke erantzuna.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, berriaren titularrak eta mamia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte. Titularrarekin hasiko gara: *Inork ba la daki HISTORIA zer den? Agian berria irakurtzen badugu jakingo dugu!*
- Irakurri orain berria paragrafoz paragrafo eta saia zaitzte guztion artean irakurritakoaren esanahi orokorra argitzen. Bukatzean, HISTORIA hitzaren esanahiaz arituko gara. Gogoratu, ikasleek dakitena partekatzeke unea dela. Egoera horretan hipotesiak trukutzen dituzte eta ezagutzak birformulatu egiten dira, beraz, hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna garatzen da. Oro har, irakasleak badaki ikasleek zer esan dezaketean eta nora eraman nahi dituen, baina ikasleak berak hasi behar du bere hitzak argitzen. Irakaslearen lana ez da erantzun guztiak ematea edo ebaluatzea, baizik eta elkarrizketa bideratzea, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea.
- Bigarren irakurketa egiten hasi aurretik, arretaz entzuten laguntzeko, ikasleak talde txikietan jarriko ditugu eta hainbat talderen erantzuna aurkitu behar dutela esango diegu:
 - *Non elkartu zituzten Maddalenek eta Ferminek kazetariak? Zer frogatu zieten Maddalenek eta Ferminek Orioko kultur etxera joan ziren kazetariei? Zertarako frogatu nahi izan dute makinak funtzionatu duela? Zer egin zuten Maddalenek eta Ferminek makinarekin duela bederatzi hilabete? Zertarako erabili dute Maddalenek eta Ferminek birraitonaren denboraren makina? Nola frogatu dute denboraren makina badabilela?*
- Esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatutakoan, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: *"Gure ustez... da"*. Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela, taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

51. jarduera	HISTORIAREN HORMA IRUDIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
2.5	Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	
4.1	Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
2.5.6	Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkioten onurak balioesten ditu.	
4.1.1	Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 22-23 orrialdeak, orrialde horietan azaltzen diren irudien hainbat kopia eta urtean zehar egindako proiektuen argazkiak.	
AZALPENA		

Berrian azaldu den HISTORIA hitzari helduko diogu oraingoan. Horma-irudi horrekin, landutako gaiak gogoratzeaz gain, haurrek gure historiaren garai esanguratsuen kronologia bisualki pixka bat barneratuko dute, garai bakoitza beste garaiekin batera kokatzen laguntzeko. Kokatze horretan interesgarria iruditzen zaigu haurrak azken bi mila urteak munduaren historian ezer gutxi direla "konturatzea". Horregatik utzi dugu hain tarte handia dinosauroen garaitik lehen gizakiak agertu ziren garairaino.

- Ikasleak talde txikian jarri (3 edo 4 lagun) eta liburuan azaltzen diren irudiak eta irudi horiek ordenatzeko kartoi mehe bat eman talde bakoitzari. Liburua ireki aurretik, irudiak ezkerretik eskuinera ordenatzeko eskatuko diegu. Blu-tack erabiliko dute argazkiak kartoi mehearen gainean itsasteko. Horrela, eztabaidaren ondorioz, irudien ordena erraz aldatu ahal izango dute.
- Talde guztien lanak arbelean jarriko ditugu. Haurrek taldean erabakitakoa denen aurrean agertuko dute. Prozesu baten adierazpena denez, gogoratu denbora-antolatzaileen erabilera bultzatzea beharrezkoa dela. Erantzunen zergatiak adierazterakoan, eztabaida bultzatuko dugu.
- Talde handiko elkarrizketaren bitartez, denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz eta horiek gaur egungo bizimoduari egin dizkioten onuraz arituko gara. Gogoratu, ikasleak dakitena partekatzeko unea dela. Egoera horretan hipotesiak trukatzeko dituzte eta ezagutzak birformulatu egiten dira, beraz, hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna garatzen da. Oro har, irakasleak badaki ikasleek zer esan dezaketean eta nora eraman nahi dituen, baina ikasleak berak hasi behar du bere hitzak argitzen. Irakaslearen lana ez da erantzun guztiak ematea edo ebaluatzea, baizik eta elkarrizketa bideratzea, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea.
- Gai bakoitzeko kanta abestuz, bideoa ikusiz, jolasen bat eginez... hainbat garai gogora ekarriko ditugu.
- Bukatzeko, horma-irudiaren inguruko elkarrizketan landu diren ideiak laburtuko ditu irakasleak.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

52. jarduera	HITZ GURUTZATUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian edo banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 45. orrialdea	
AZALPENA		

Urtean zehar ikusitakoa neurri batean erreparatu ari garen sekuentzia honetan, landu ditugun gaien inguruko hitz gurutzatuak osatuko ditugu. Jarduera honen bidez, deskodetzea, oinarriko hiztegiaren interpretazioa eta esaldi sinpleen ulermena beha daitezke.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 45. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, irudia eta hitzak idazteko laukiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Ikasleek bakarka lan egin behar badute, hitz gurutzatuak osatzen hasi aurretik, landu ditugun gaien inguruko hitz gurutzatuak osatuko dituztela esatea eta osatzeko prozedura talde handian gogoratzea komeni da.
- Ikasleek talde handian lan egin behar badute, hitz gurutzatuak osatzeko honako urrats hauek egin daitezke:
 1. Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden; "definizioekin" erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota definizioetatik has gaitzake. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira ikasleak. Kodea behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei.
 2. Gero, talde handian, lan-koadernoko definizioak irakurriko ditugu, hitz gakoak biribilduz. Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, irudiari dagokion hitza aurkituko dute eta marra baten bidez lotuko dituzte.
 3. Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu definizioekin.
 4. Azkenik, zenbakiei erreparatuz, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute ikasleek, bakarka.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

53. jarduera	TESTUAK ORDENATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoa 44. orrialdea	
AZALPENA		

Testu horiek ordenatzeko, horma-irudian landu dugun ideia berbera landuko dugu, hau da, aurrean landu ditugun historiaren garaien kronologia.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 44. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, zenbakiak idazteko biribilak... Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Gero, banaka eta ondoren ondoko lagunarekin egiaztatuz, esaldiak irakurtzeko eta hitz gakoak biribiltzeko eskatuko diegu.
- Ikasleek arteko eztabaida sustatuko dugu. Ikasle bati galdetuko diogu bere aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia erabaki ondoren, prozedura berari jarraituko dugu hurrengo testuarekin.
- Testuak ordenatuko dituzte, bakarka eta hitz gakoaren irakurketa baliatuz, dagokien zenbakia jarri.
- Bukatzeko, irakasleak ariketan azaldu diren ideiak laburbilduko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

54. jarduera	LETRA ZOPA: HILABETEA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 46. orrialdea, Abestien CDa, 44. pista	
AZALPENA		

- Ikasturtearen hasiera eta opor garaiak gogora ekarriko ditugu, ikasturtearen hasieran osatu genuen hilabeteen trenan baliatuz, ikasturteko laburpena egiteko.
- Ikasleen urtebetetze-egunaren arabera taldeak egingo ditugu eta ordenan jartzeko eskatuko diegu, urtebetetze trenan eraikiz.
- Trenean goazela, *Hilabeteak* abestia abestuko dugu. Abesti horren bidez esku jolasak ere egin ditzakegu.
- Bukatzeko, hilabeteen izenak letra-zopan aurkitzeko eskatuko diegu ikasleei.
- Ezertan hasi aurretik, haurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
- Ondoren, talde handian, elkarriketatxoak bultzatuko ditugu:
 - Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan? Begiratu ondo-ondo behean dauden izenei? Ezagutzen al ditugu?
- Irakasleak goiko agindua irakurriko du zeregina argitzeko. Ondoren, zutabeak eta lerroak zer diren gogora ekarri, hitzak bilatzeko estrategiak partekatu eta gero banan-banan hilabeteen izenak irakurriko dituzte.
- Ikasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkitu beharko dituzte.
- Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolasa aktibatzeke, gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

55. jarduera	ABESTIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Abestien CDa, 43. pista, liburuko 24. orrialdea	
AZALPENA		

- Abestia entzun aurretik, galdetu haurrei ikasturte honetan nondik nora ibili garen, eta, saiatu guztien artean, arbelean gaiak ordenatzen.
- Beraien iritzia eskatu. Asko ala gutxi ikasi duten, gustura ibili ote diren, gai guztien artean gustukoenak zein izan dituzten... Nahi izanez gero, izenburuak arbelean idatzi eta haur guztien artean banan-banan puntuatu ditzakete gaiak. Gehien gustatu zaienari 10 puntu, bigarrenari 9, hirugarrenari 8... Azkenean, puntuak batu eta gelako iritzia ezagutuko dugu.
- Esan ikasleei hainbat garai gogora ekartzeko abestia ikasiko dugula.
- Lehenik eta behin, abestia entzungo dugu.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldiz esaldi errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuta, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Ikasleei testuan arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu, liburu digitalean ikusi edo arbelean idatz dezakegu.
- Ikasleei tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurtzeko.
- Kodearen inguruko behaketa bultzatuko dugu. Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: oporrak, historia, dinosauroek, ehiztari, leize-zulo, Olinpo, Erroma...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

56. jarduera	KOMIKIA: TXALO ZAPARRADA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .
1.6	Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.
1.6.3	Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburuko 25. orrialdea
AZALPENA	

- Lehen mailan gure istorioaren ardatza izan den komikiaren azken orrialdera iritsi gara. Lehen eta bigarren unitateetako komikiekin aldera dezakezue. Egoera zertan eta zergatik aldatu den aztertu.
- Tarteko komikiak atera eta istorioaren haria berrikusi.
- Galdetu hurrei gustura ibili diren, abentura beren gustukoa izan ote den...
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei:
 - *Zer dela eta txalo zaparrada? Kazetariak sinetsiko ote dute Maddalenek eta Ferminek prentsaurrekoan esandakoa?*
- Hurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orrialde horretan? (Komikia). Zertan ari dira Maddalen eta Fermin? Zer kontatzen digu komiki horrek?*
- Ondoren, talde handian egingo dugu irakurketa, binetaz bineta xehetasunetara joz. Hizkuntzaren eta komikiaren balibideetan (binetak, onomatopeiak, narratzailearen eta pertsonaien hitzak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuek iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zertarako dituzte kazetariak argazki- eta bideo-kamerak? Zertarako du Maddalenek ura eta edalontzia bere aurrean? Zertarako dira mahaiaren gainean jarrita dauden grabagailuak?*
 - *Zer egingo dute kazetariak eskuratu duten informazioarekin?*
 - *Hitz egin al duzue inoiz mikrofono batekin? Zer moduz pasa zenuten? Inoiz atera al zarete egunkarietan edo telebistan? Nola sentitu zineten?*
 - *Zer egin beharko dute kazetariak Maddaleni eta Fermine galderarik egin nahi badiete? Zer gertatuko litzateke denek aldi berean hitz egingo balute? Guri gelan gertatu al zaigu inoiz horrelakorik?*
 - *Kazetari batzuk ikastolara etorriko balira aurten zer egin duzuen jakin nahian, zer kontatuko zeniekete?*
 - *Zer adierazten dute Maddalenen eta Ferminen aurpegiek? Zergatik?*
- Hurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu). Gelakideen mailaren arabera, hiruko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanaz (Fermin, Maddalen eta kazetariak) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu bi irakurketa egin.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Maddalenek eta Ferminek, hilabete hauetan eskuratu dituzten museorako pieza guztiak hartu eta ikasturte hasieran denboraren makinak funtzionatu ez zuela esaten zuten kazetariak oker zeudela azaldu diete. Kazetariak liluratuta geratu dira, hurrek denboraren makina konpontzea lortu dutelako. Maddalen eta Fermin pozaren pozez oportetara joango dira eta oporrak Euskal Herrian egingo dituztela esan dute. Beraz, udan adi-adi egon eta ikusten badituzue, agurtu!*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (MUSEOA, DENBORAREN MAKINA, OPORRAK, EUSKAL HERRIA...) bilatzeko eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, hurrek binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten hurrek elkartzeko). Galdetu hurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

57. jarduera	BERTSOA: LAGUNTASUNA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.5.1 Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 52. orrialdea	
AZALPENA		

- Oporretara joateko prestatzen ari garen une honetan, gelakide eta lagun izan diren haurren artean bakoitzaren alde onak adierazteko proposatuko diegu.
- Gelako haur guztiak beren lagunen laudorioak entzun ondoren, haur bakoitzari entzundakoari buruzko sentipenak adierazteko aukera emango diogu: zer izan den gehien gustatu zaiona, zer gutxien, zer sentitzen duen entzundakoa jaso ondoren...
- Irakasleak adi egon beharko zarete haur konkretu batzuei beste haurrek zer esaten dieten jasotzeko eta beste mezu batzuk bidaltzen saiatzeko. Adibidez, egon daiteke haurren bat, lagunen eta irakaslearen artean deituegatik beti tontakeriak egiten ibiltzen dena gelan, eta beste haurrek, "oso jatorra zara zurekin barre asko egiten dugulako" edo antzekoren bat esanez jarrera hori indartzea. Horrelako kasuetan zuen parte hartzea ezinbestekoa da haur horri beste mezu batzuk emateko edota puntutxoak jartzeko: *Jakina,k batzuetan tontakeriak egiten ditu guri barre eginarazteko eta maitatua sentitzeko, baina nik uste dut hori egin gabe ere denok maitatuko dugula. Ez al duzue uste?*
- Lan-koaderno irekiko dugu 52. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, bertsoak osatzeko hitzak eta bertsoa. Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Irakasleak bertsozale.com web-orrian edo liburu digitalean, bertso doinutegian lan-koadernoan azaltzen diren doinuetako bat bilatuko du eta haurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Ondoren, irakasleak bertsoa aurkeztuko die ikasleei (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean). Irakasleak bertsoa abestuko du, oraindik zehaztu gabe dauden oinak ahopeakatuz.
- Gero, berriz abestuko du, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz.
- Haurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Orain, laukian dauden oinak aztertuko ditugu. *Zer dute berdina?* Grafia-fonema erlazioan jarriko dugu indarra.
- Bertsoari poltsan dauden oinak jarriko dizkiogu. Kontraesanak sortzeko, hutsuneari ez dagokion oina kokatzean zer gertatzen den ikusiko dugu.
- Banaka eta ondoren egindako lana ondoko lagunarekin egiaztatuz, bertsoa osatuko dute.
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?*
- Bukatzeko, irakaslea guztiok ditugun gauza onez mintzatuko da, bertsoan azaldutako ideien garrantzia azpimarratzeko.
- Gogoratu, CD-ROMean idazketa-tailerra daukagula eta, testuak idazteko txantilo politak aurki ditzakegula. Hori baliatuta, bertsoak, abestiak, zein olerkiak, ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

58. jarduera	ENTZUNALDIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.		
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.		
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
2.3.4 Emozioak eta sentimenduak (amorrue, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.		
3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu.		
3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Jardueren CDan, 39. pista eta lan-koadernoko 54. orrialdea (marrazkia egiteko)	
AZALPENA		

Entzun behar dugun doinu musikala Aita Donostiaren *Bat batian* da. Pieza hori *Uso zuria errazu* abestiaren bidez ezagutzen dugu.

Liburu digitalean eta Txanela.neteko 8. unitateko 50. jardueran, Aita Donostiari buruzko aurkezpena aurkituko duzu.

Aita Donostia (Jose Gonzalo **Zulaika Arregi**), konpositore gipuzkoarra (Donostia, 1886 - Lekaroz 1956). Lekarozen ikasi, kaputxino sartu eta Iruñean apaiztu zen. Lekarozko irakasle zela musika-ikasketak egin zituen eta 1918-56 bitartean musika-konposizio asko egin zituen. Musika-ikertzailea izan zen eta herri-kantak (Euskal Herrikoak nahiz kanpokoak) aztertu eta bildu zituen; horren ondorio izan zen *Gure Abendaren Ereserkiak* bilduma (499 abesti eta 24 melodia). Euskaltzain urgazlea eta Europako zenbait musika-erakundetako kide izan zen.

- Hasteko, beti bezala, gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu, aurre-ezagutzak aktibatuz eta hizkuntza-funtzio batzuk martxan jarri. Obraren izenburua eta konpositorearen biografia irakurtzeaz gain horien inguruko elkarrizketa izango dugu. Bukatzean, bai biografia eta baita argazkia ere txokoa kokatuko ditugu.
- Bisualizazioa.** Ikasturtearen bukaera dela eta ikasturtean zehar bi minutuko bidaia bat egitea proposatuko diegu haurrei. Horretarako, lurrean etzanda eta begiak itxita jartzeko eskatuko diegu. Bidaia hori egiteko gidoiaren proposamen bat hau liteke:
 - *Gogoratzen al duzu zer sentitu zenuen ikasturte berria hastean, gela berrian sartzean? Beldurra, kuriositatea, poztasuna...*
 - *Gogoratzen al duzu nolakoa zinen orduan? Zertan uste duzu aldatu zarela?*
 - *Gogoratzen al duzu lehen egiten ez zenekien zerbaitekin eta aurten ikasi duzuna? Zer? Beste zerbaitekin?*
 - *Eta gelako lagunak? Zer moduz moldatu zara haiekin?*
 - *Ikasturtea bukatzen ari da, laster agur esango diogu elkari. Zer sentitzen duzu? Pentsatu hitz bat ikasturte bukaera honetan nola sentitzen zaren adierazten duena.*
 - *Bukatzeke, eta musika amaitzen den bitartean, zer esango zenioke ikasturtea bukatzen ari delako tristura sentitzen duen lagun bati?*
- Erreferentzi gisa, galdera bakoitzari 20 segundo emanaz gero, goian proposatu dizuegun gidoiak musikaren iraupenarekin bat etorriko zaizue.
- Berbalizazio-hausnarketa.** Musika bukatzean, bidaiaren galderen inguruko taldeko elkarrizketa bat bultzatuko dugu, haur bakoitzak zer sentitu duen, zer hitz aukeratu duen edota triste dagoen lagunari zer esango liokeen adierazteko.
- Bukatzeke, lan-koadernoaren azken orrialdean, ikasturte bukaera dela eta, sentimenduei buruzko marrazkia egiteko eta, sentimendu hori idatziz definitzeko proposatuko diegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

59. jarduera	IKASTURTEAREN BALORAZIOA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
2.5	Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.
2.9	Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.
4.4	Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
2.5.1	Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.
2.9.2	Erregistroak egiten ditu; grafiko errazak, krokis sinpleak egin eta interpretatzen ditu.
4.4.2	Aprentizaia prozesuaren hainbat uneetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo talde txikian
MATERIALA	Proiektuetako argazkiak edo bideoak eta liburuko 26-27 orrialdeak
AZALPENA	

Ikasturtea bukatzen ari da eta balorazio txiki bat egitera bultzatu nahi ditugu haurrak. Ikasleek euren ikuspegitik, aurrerapenak, ikasitakoak, hutsuneak... baloratu eta adieraziko dituzte.

- Sintesi-jarduera da, hau da, egindako lana balioesteko proposatzen den jarduera. Hainbat alderdi dira unitate honetan balioestekoak:
 - Aurten ikasitakoak: gogoia, gozamina, zailtasunak, ongi egindakoak, hobetu beharrekoak... (26. orrialdeko lehenengo bi galderak).
 - Harremanak, bai gelako kideekin bai irakaslearekin (26-27. orrialdeetako 3., 4. eta 5. galderak).
 - Urtean zehar aurrera eramandako proiektuak (27. orrialdeko grafikoa).
 - Liburuan adierazita ez badago ere, ikastolaren inguruko komunikazioetan eta eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskaren erabilerari buruzko hausnarketa, balorazioa eta konpromisoak hartzea ere bultzatuko dugu.

Liburuan dagoen galderen ordenarekin bat ez badator ere, balorazioa egiteko ikasleentzat esanguratsuagoa izan daitekeen honako bide honi jarraitzea proposatzen dizuegu:

- Lehenengo, proiektuak aztertuko ditugu, ikasleek erraz gogoratuko dituzten esperientziak direlako. Horretarako, argazkiak edo bideoak prest edukitzea komeni da. Argazkiak ikusten ditugun bitartean, orduan egindakoa gogora ekarri eta ikasleek gai bakoitza puntuatzeko grafikoa osatuko dute.
- Grafikoak bukatu ondoren, ikasturtearen ikuspegi orokorra izango dute eta, orduan, Maddalenekin eta Ferminekin komikien bitartez bizi izandako abenturak gogora ekarriko ditugu. Orain bai, erantzun ahal izango diote lehenengo galderari (*Zer moduz pasa duzu gurekin?*). Minutu batzuk bakarka pentsatzeko aukera eman ondoren, erronda bat irekiko dugu, bakoitzak, labur, zer pentsatu duen esateko.
- Bigarren galderari erantzuteko (*Zer iruditzen zaizu, asko ala gutxi ikasi duzula?*), ikasturtearen hasieran idatzitako testuren bat, adibidez, oporretako argazkiaren azpian idatzi zuten oporrei buruzko argazki-oina eta ikasturtearen bukaeran idatzitako beste bat, adibidez, naturaren aldizkarian idatzitako azalpen testuren bat, aurrean izatea komeni da. Testuak behatu eta konparatuko ditugu (kodearen erabilera, letra mota, testuaren luzera, puntuazio-marken erabilera...) eta ikasle bakoitzak bere balorazioa egingo du. Ondoren, erronda bat irekiko dugu, bakoitzak, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz.
- Azkeneko galderak, ikasleen arteko eta ikasleen eta irakaslearen arteko harremanei dagozkienak, ikasleekin banan-banan edo talde txikian egitea proposatzen dizuegu. Jasoko duzuen informazioa gelako soziograma osatzeko balia dezakezue. Izan ere, harremanei buruzko galderak talde handian eginez gero, adin horretako ikasleek elkarri esaten dizkieten erantzunak, banakakoen erantzunak baldintza ditzakete, eta soziogramaren emaitzak desitxuratu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

60. jarduera	AGURRA: MEZU SEKRETUA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 53. orrialdea eta ikasleek mezu sekretua osatzeko zatiak,dagokien tokian jar ditzaten	
AZALPENA		

Pieza bakoitza dagokion lekuan jartzerakoan, Maddalen, Fermin, Urdintxoren eta Poxen agurra aurkituko dute hurrek. Hura irakurtzea izango da gure erronka.

- Denok argibideak isilean irakurriko ditugu. Ondoren, irakurle on batek argibideak ozen irakurriko ditu eta esanahiari erreparatuko diogu: *Zer egin behar dugu?*
- Barrenean dagoen mezua osatzeko, goiko zatien edo piezen kopia emango die irakasleak ikasleei. Ikasleek zati horiek moztu eta taulan behar bezala kokatuko dituzte, dagoeneko jarritako letrak eta laukien koloreetan arreta jarrita.
- Azkenik, banaka, mezu sekretua irakurriko dute.
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio mezuak?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

61. jarduera	IPUINA: ON JOSEPE INVENTATOREK OPORRAK BEHAR DITU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiak buruzkoak).</p> <p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.</p> <p>1.1.4 Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.</p> <p>1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderari erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 100-103 orrialdeak, liburuko 31. orrialdea	
AZALPENA		

Mitxel Muruak idatzitako ipuina irakasleak ikasleei irakurriko die. Ipuina lau zatitan banatu dugu eta zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu, gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin ditzaten. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesen eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu. Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu: *Zergatik beharko ditu oporrak On Josepek? Zer egingo du oporretan On Josepek? Nora joango ote da?*
- Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, irakaslea ipuina lasai eta ozenki, taldeari irakurtzen hasiko zaio.

IRAKURRI BITARTEAN

- Lehenengo zatia irakurri ondoren, ikasleei irakurritakoaren inguruan hipotesiak egiteko, hainbat galdera egingo dizkiegu:
 - Zuek sentitu al zarete inoiz On Josepe bezala? Zer sentitu zenuten? Lana egiteko gogorik eta indarririk ez badugu eta oporretara joateko aukera ez badugu, zer egin dezakegu?*
 - Zein uste duzue biziko dela alaiago lagunetan eta irudimenean aberatsa dena edo dirutan aberatsa dena? Zergatik? Nora joango ote da On Josepe oporretara, dirurik ez badauka?*
 - Zer da irudimena? Nola bidaiatzen da irudimenearekin? Zuek bidaiatu al duzue inoiz irudimenearekin? Nola egiten da? Imajina ezazue oporretara joaten zaretela. Nora joango zinatekete?*

IRAKURRI ONDOREN

- Beste egun batean, talde handiko irakurketa egingo dugu. Ikasle bakoitzak liburua aurrean duela, ilustrazioari behatzeko denbora-tarte bat emango diegu. Gero, testuaren gaineko hipotesiak egiteko eskatuko diegu eta, irakurketari ekin aurretik, horietako batzuk entzungo ditugu.
- Ondoren, denok elkarrekin testua irakurriko dugu. Irakurketa horretan pertsonaiak eta narrazioaren hitzak bana daitezke gelako ikasleen artean. Hau da, gelakideen mailaren arabera, taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol edo zati bat emanez irakurriko dute talde txikian. Irakurketa pertsonaia edo zati bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin edo norberak etxean saioak egin edo irakurri ondoren egin daiteke.
- Bukatzeke, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei; adibidez: *Zenbat aldiz azaltzen da protagonistaren izena? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetan dagoen hitzik luzeena? Eta motzena?*
- Eranskinetan aurkituko duzue ipuinaren ulermen orokorraren inguruko galdetegiak. Irakasleak galderak banan-banan ozenki irakurri bidera dezake hori, eta ikasleei, bakarka edo talde txikian hartuz gero, ahoz eska dakieke erantzuna.
- Liburua irekiko dugu 31. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, argibidea, informazio ikurra, marrazkia egiteko laukia...
- On Joseperi etorri zitzaion ideia kontuan hartuta, hurrei, oporretara joateko amesten duten tokia marrazteko eskatuko diegu.
- Marrazkia bukatu ondoren, haur guztiek txandaka hainbat egunetan, beren marrazkiaren berri emango dute. Irakasleak galderak eginez lagunduko dio haur bakoitzari ahalik eta deskribapen osatuena eta informazio gehiena eman dezan. (Zer toki den, zer dagoen bertan, zergatik aukeratu duen toki hori...).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

62. jarduera	LASTER OPORRAK ABESTIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i> 3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko. 1.3.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handia	
MATERIALA	Abestien CDa, 45. pista	
AZALPENA		

Oporrekin jarraituz, *Laster oporrrak* abestia ikasiko ditugu.

- Lehenik eta behin CDa (edo liburu digitala) jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldiz esaldi errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz gero, dantza polif bat egin genezake. Horrela, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Ikasi berri dugun abestia aitzakia hartuta, oporrei buruzko elkarrizketa bultzatuko dugu hurren artean: nora joaten diren, norekin igarotzen dituzten, aurten nora joan behar duten, nola joaten diren (garraioak), zer gustatzen zaien gehien egitea oporretan, zer gutxien, ea ikastolako lagunak faltan botatzen dituzten edo ez...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

63. jarduera	LETRA ZOPA: MUNDUKO HERRIALDEAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 50. orrialdea	
AZALPENA		

Oporretara leku eta herrialde askotara joan gaitzake, letra-zopa honetan munduko hamar herriren izenak aurkitu beharko dituzte haurrek.

- Ezertan hasi aurretik, hurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
- Ondoren, talde handian, elkarrizketatxo bultzatuko dugu:
 - Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan? Begiratu ondo-ondo orrialde barrenean dauden izenei, ezagutzen al ditugu?
- Irakasleak agindua irakurriko du zeregina argitzeko eta, ondoren, banan-banan guztion artean herrialdeen izenak irakurriko ditugu.
- Gero, munduko mapan kokatuko ditugu, herrialde bakoitzari buruzko gogoeta xume bat eginez: gertu edo urruti dauden, hara iristeko erabili daitezkeen garraioak, hitz egiten duten hizkuntza...
- Beraiek ezagutzen dituzten beste herrialde batzuk ere mapan kokatuko ditugu.
- Lan-koadernoan berdin bukatzen direnak kolore berarekin margotuko ditugu. Nahi izanez gero, berdin bukatzen diren beste batzuk izenda ditzakegu.
- Zutabeak eta lerroak zer diren gogoratu ondoren, hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu.
- Ikasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkitu beharko dituzte.
- Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolasa aktibatze gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

64. jarduera	OLERKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.7.2 Testu bati buruzko galderei erantzuteko eskaintzen zaizkion hainbat erantzunen artean zuzena aukeratzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handia
MATERIALA	Liburuko 30. orrialdea eta lan-koadernoko 48. orrialdea
AZALPENA	

Oporrak direla eta Euskal Herriko hiriburuak eta garraioak aipatzen Joxan Ormazabalena olerkia irakurriko dugu.

- Talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, olerkia, marrazkiak, argibideak eta olerkia.
- Olerkia irakurri aurretik, ikasleak prestatu behar ditugu aurre-ezagutzak aktibatzeke eta zailtasunei aurre egiteko. Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu ikasleei, eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak hitz hori arbelean idatziko du.
- Euskal Herriko mapa bat gelara eraman eta olerkiak aipatzen digun ibilbidea seinalatuko dugu. Irakasleak olerkian azalduko diren hirien izenak arbelean idatziko ditu. Ikasleek hitz horiek (Gasteiza, Bilboraino, Donostiara, Baionaraino, Garaziko hirira eta Maulera) beren liburuetan azpimarratuko dituzte eta guztion artean irakurriko dituzte.
- Ikasleei hiri batetik bestera nola joan gaitzkeen galdetuko diegu, eta irakasleak erantzunak arbelean idatziz jasoko ditu.
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- Berriz ere, Euskal Herriko mapari helduko diegu. Hiri batetik bestera joateko olerkiak aipatzen dituen erak mapan irudikatuko ditugu, liburuan nola joan adierazten dituzten hitzak azpimarratu (hanketako minez, autostop eginez, hegazkinez, traktorez, trenetan eta autobusean) eta ikasleek hasieran egin dituzten hipotesiekin alderatuko ditugu.
- Testua irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimek behatuz, berdin bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.
- Irakasleak olerkia arbelean idatziko du edo proiektatuko du. Irakasleak hitz bat ezabatuko du eta ikasleek hitz hori zein den igarri beharko dute. Ondoren, irakasleak beste hainbat hitz ezabatuz prozesu berari jarraituko dio, ikasleek olerkia ia ia buruz ikasten duten arte.

LAN KOADERNOA

Liburuan irakurritako olerkia aurrean dutela, lan-koadernoko fitxa honetan agertzen den hieroglifikoa asmatu eta galderei erantzungo diete hurrek. Ariketa hori ikasleek bakarka egin dezakete, baldin eta liburuko 30. orrialdeko olerkia ondo ezagutzen badute, hau da, baldin eta ikasleek testua ulertzeko eta informazio zehatza aurkitzeko aurrez nahikoa lana egin badugu.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 48. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, hieroglifikoa, galderak, erantzuteko marrazkiak... Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Ikasleei lan-koadernoko galderen erantzunak liburuan aurkituko dituztela esango diegu. Horretarako, isilik, poliki eta arreta handiz irakurriko dute testua.
- Ikasleek bakarka egingo dute lana eta binaka egiaztatuko dituzte erantzunak.
- Bukatzeko, ikasle bati galdetuko diegu bere erantzunak. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diegu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia zein den erabaki ondoren, prozedura berari jarraituko diegu gainerako galderekin.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

65. jarduera	GARRAIOAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 49. orrialdea	
AZALPENA		

- Irakasleak ikasleei oporretara joateko ezagutzen dituzten garraioak izendatzeko eskatuko die. Irakasleak berak edo ikasle batek idazkari lanetan, ikasleek aipatzen dituzten garraioen izenak arbelean, hiru zutabetan (airean, lehorrean eta uretan dabilzanak) idatziko ditu.
- Munduko mapan gure herria zein beheko galderetan azaltzen diren Donostia, Australia eta Amerika kokatuko ditugu. Ondoren, toki bakoitzera iristeko erabili daitezkeen garraioak aipatuko ditugu.
- Beraiek ezagutzen dituzten herrialde batzuk ere mapan kokatuko ditugu eta haietara iristeko garraioak izendatuko ditugu.
- Lan-koaderno irekiko dugu 49. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, garraioak sailkatzeko laukiak eta galderak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Aurretik aipatutako urratsei ikasleek arretaz jarraitu badiete, ikasleek ariketak bakarka egin ditzaketela uste dugu. Beraz, denbora-tarte bat emango diegu isilean, multzoak osatu eta galderei erantzuteko.
- Bukatzeko, ikasleak binaka jarriko dira, bakarka egindakoa lagun batekin egiaztatzeko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

66. jarduera	NORA JOAN DIRA LAGUN HAUEK OPORRETAN?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka edo talde handian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 51. orrialdea	
AZALPENA		

Oporrei buruz ari garen sekuentzia honetan, lan-koadernoko orrialde honetan azaltzen diren pistei jarraituz, ikasleek haur bakoitza oporretara nora joan den asmatu beharko du. Ariketa honen bidez, deskodifikazioa, oinarrizko hiztegiaren interpretazioa eta esaldi sinpleen ulermena beha daitezke.

- Lan-koaderno irekiko dugu 51. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, irudia eta galderak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioak aterako dituzte.
- Ikasleek bakarka lan egin behar badute, galderei erantzuten hasi aurretik, lan hau egiteko prozedura talde handian gogoratzea komeni da: marrazkiei arretaz behatu, esaldiak irakurri eta hitz gakoak biribildu, esaldiak eta haurrak lotu marra edo zenbaki baten bidez eta galderei erantzun.
- Ikasleek talde handian lan egin behar badute, hitz gurutzatuak osatzeko honako urrats hauek egin daitezke:
 1. Lanean hasteko, haurren marrazkien izenak goiko koadroan dauden esaldiekin erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, marrazkietatik edota esaldietatik has gaitzke. Marrazkietatik hasiz gero, lehenbizi, bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira. Kodea behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei (Maddi Iruñera, Jokin mendira...).
 2. Gero, talde handian, lan-koadernoko esaldiak irakurriko ditugu, hitz gakoak biribilduz. Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, esaldiari dagokion haurra aurkituko dute, eta marra baten bidez lotuko dituzte.
 3. Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu lau esaldiekin.
 4. Azkenik, marrei erreparatuz, galderei erantzun gaitzke bakarka.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

67. jarduera	OLERKIA: HELIAUTOTRENBUSKIN
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Irakurgaiak 104. orrialdea eta abestien CDa, 47. pista
AZALPENA	

Gertu izango diren oporrak direla eta, oporretara nola joaten gara pentsatzen hasteko eta literaturaz gozatzeko olerkia/abestia irakurriko dugu. Joxan Ormazabalaren oso ezaguna den olerkia irakurri ondoren, egileak egin duen moduan, garraio motak asmatzera jolas dezakegu:

- Olerkia irakurri aurretik ikasleak prestatu behar ditugu aurre-ezagutzak aktibatzeke eta zailtasunei aurre egiteko. Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak hitz hori arbelean idatziko du.
- Orrialdean azaltzen diren marrazkiei begira, olerkian aurkituko dituzten hitzak asmatzera jolastuko gara.
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Irakurtzen hasi aurretik, ikasleei esango diegu helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, abestiak zer esaten digun ulertzea. Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzera, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzuteko. Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi/abestu nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikariek gabe ikasleek hitzak esaldiz esaldi errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan berriz irakurriko dugu.
- Bukatzeko, garraio motak asmatzera jolas dezakegu: itsastren, bizikoptero...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

68. jarduera	MEANS OF TRANSPORT BOARD GAME	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
To participate actively in oral activities. (Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide)		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>Gives personal information in classroom conversations Understands and follows instructions. Produces language appropriate to supplementary activities Interacts in a simple way playing a game. (Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide)</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Big group first and then in groups of four	
MATERIALA	Book 28-29, an already made dice, models of the dice and counters.	
AZALPENA		

In the previous activities we have been working on holidays and means of transport. Now we are going to learn how to play a board game related to these issues.

- Remind the pupils that Reddy is very happy because he is going away on holiday. Ask them where they are going and how.
- Elicit from the pupils or teach them the vocabulary they need to tell you how they are going on holidays.
 - *So you are going to Menorca, are you? And how are you going to get there? By plane. O.K.*
 - *And you are going to Asturias, are you? And how are you going to get there?, by train, by car, by bus.*
 - *And you are going to stay here, are you? How are you going to get around? On foot, by bike.*
- Repeat and make the pupils repeat the names of the means of transport, using gestures or flashcards.
 - *On foot, by bike, by bus, by car, by train, by plane.*
- Tell them that they are going to learn how to play a new game and show them the board.
 - *Reddy says "Hooray! It's the holidays. Let's go to the beach". So we have to start at the school and throw a special dice to get to the beach.*
 - *Look at the dice. We need to make one for each group. Let's all make one. Then you can play whenever you want.*
- Show them an already made dice and the template they need to make the dice.
- Elicit from the pupils or teach them the essential vocabulary they need for the activity they are going to do.
 - *We need a template of the dice, scissors and glue.*
 - *First, cut out the model of the dice. Then, put glue on the flaps. Finally, stick them down to make a cube.*
- Make different pupils responsible for the different materials. Every time the others need something they have to go to the relevant monitor and ask for what they need. Exemplify, taking a person, going with them and bringing all the scissors to their desk. Take another pupil, go with them to the scissors monitor and role-play the dialogue they need. When the session finishes each monitor must collect all the items they are in charge of and make sure everything is in order.
- When they all finish show them the board again and teach them how to play.
 - *Now how do we play?*
 - *We can play in groups of 4. We each need a counter. We put them here at the start, on 'School'.*
 - *The first person throws the dice. It's 'the bus'. So I look at this chart. How many squares can I move with the bus? Three. So you must say "By bus, I move three squares" One, two, three. What does it say here? 'Short cut'. Good I have found a fast route, a quick way. Look I can move to this square.*
 - *Now the second person throws the dice. It's the 'car'. So he looks at the table. How many squares can he move? Four. So you must say "By car I move four squares" One, two, three, four. Oh Oh What's this? Let's look at the chart. 'Traffic jam'. Oh dear, too much traffic. So if you throw the 'car' or the 'bus' and you land on 'traffic jam', you miss a turn.*
 - *Let's look at the chart. You miss a turn if you throw the 'foot' or the 'bike' and land on 'tired'. You miss a turn if you throw the 'bus' or the 'car' and land on 'traffic jam'. And you miss a turn if you throw the 'train' or the 'plane' and land on 'delayed'. Yes, you have to wait in the station or the airport a long time.*
 - *O.K. Are you ready to play? Let's just practise the sentences.*
 - *On foot, I move one square*
 - *By bike, I move two squares*
 - *By bus, I move three squares*
 - *By car, I move four squares*
 - *By train, I move five squares*
 - *By plane, I move six squares.*
 - *Traffic jam! Miss a turn.*
 - *Tired! Miss a turn.*
 - *Delayed! Miss a turn.*
 - *Don't forget the 'Short cuts' and look out for the 'crash'. If you land on 'CRASH!', you have to go back to the start, back to school!*
 - *O.K. Off you go.*

Volunteers can take it in turns to throw the dice and move the counter around the board following the instructions in the table Once they get an idea of the game, not before, leave them to play in groups of 4.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

69. jarduera	CURRO SE VA DE VACACIONES	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak). 1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.2 Testuaren ulermen orokorrerako oinarritzko hizkuntza-elementuen esanahia interpretatzen du (lexikoa, lokuzioak...) 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA		
AZALPENA		

Como las vacaciones de verano están cerca, os proponemos leer una poesía sobre el tema y hacer un dibujo y una pequeña exposición oral, acerca de lo que a los alumnos les gusta hacer en vacaciones.

- Los alumnos estarán sentados en círculo cuando el conserje, la secretaria, otro profesor... llame a la puerta de clase para entregar una carta dirigida a nuestro grupo.
- El profesor leerá la dirección y el nombre de la persona a quien va dirigida la carta, para asegurarse de que es para nosotros y preguntará a sus alumnos cómo averiguar quién nos la envía. Tal vez algún alumno voluntario quiera leer el remitente.
- El profesor pedirá a sus alumnos que hagan hipótesis sobre el mensaje de la carta *¿Qué querrá decirnos Curro?*
- A continuación el profesor o algún alumno(s) leerán la carta, aclarando poco a poco y entre todos su significado.

Mis querido amigos:

Ha llegado el momento de despedirnos hasta después de vacaciones. ¡Qué bien os lo vais a pasar! ¡Qué penita me da despedirme de vosotr@s! Es que no he conocido ningún grupo tan majo, tan simpático, tan alegre, tan trabajador, tan-tan-tan... Pero bueno, el curso que viene seguiré visitándoos y lo pasaremos muy bien.

Vayamos al grano *¿Qué solemos hacer en vacaciones? ¿A dónde solemos ir? ¿Con quién?* Escuchad esta poesía a ver si os da ideas:

Estas vacaciones no pienso parar: del monte a la playa, del río, al mar.	El lunes, pescando; el martes a nadar; el miércoles danza; el jueves a saltar; el viernes escalada; el sábado a bucear; el domingo descansando... y el lunes, vuelta a empezar.	Estas vacaciones... ¡Cómo lo voy a pasar! Del monte a la playa, del río, al mar.
---	--	---


- El profesor copiará/proyectará el texto en la pizarra y algún alumno voluntario se la leerá al grupo.
- A continuación buscaremos en la poesía las palabras que nos indiquen los planes que tiene Curro para el verano: pescar, nadar, danzar, saltar, escalar, bucear, descansar...
- Después haremos un listado en la pizarra con las cosas que los alumnos suelen hacer durante las vacaciones: viajar, ir de campamento, jugar, comer helados, hacer manualidades...
- El profesor comprobará primero si sus alumnos conocen el significado de las palabras escritas en la pizarra y después propondrá el juego de las adivinanzas. El profesor explicará a sus alumnos que a través de gestos él o algún alumno escenificará una acción y los alumnos deberán adivinar de qué acción se trata.
- Después de realizar algunos ejemplos en grupo grande, los alumnos seguirán jugando en grupo pequeños (3-4 alumnos).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

70. jarduera	NUESTRA ACTIVIDAD FAVORITA EN VACACIONES	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.4.2 Gutxieneko koherentziaz (denbora sekuentzia errespetatuz) adierazten ditu ideiak. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA		
AZALPENA		

Siguiendo con el tema de las vacaciones, cada alumno elegirá su actividad favorita, la ilustrará a través de un dibujo y explicará a sus compañeros el porqué de su elección.

- En primer lugar el profesor escribirá en la pizarra la lista de actividades para las vacaciones que Curro mencionaba en su poesía, así como aquellas actividades que los alumnos propusieron.
- El profesor elegirá una de las actividades, hará su dibujo y explicará a sus alumnos qué le gusta hacer en verano y por qué.



“En vacaciones de verano me gusta mucho bañarme en el mar, porque el agua está templada. Yo nado en la playa de la Concha, voy al gabarrón, me tiro por el tobogán y salto desde el trampolín.”

- En grupo grande analizaremos el ejemplo del profesor para que cada alumno prepare su presentación oral. Dependiendo de la capacidad comunicativa de vuestros alumnos en castellano, sus presentaciones seguirán el modelo del profesor o los alumnos podrán improvisar más y aportar más datos, dejando a un lado el modelo ofrecido.
- Los alumnos dibujarán su actividad favorita para las vacaciones y harán una pequeña explicación oral acerca de su ilustración. Mientras dibujan, el profesor comentará los dibujos con sus alumnos, preguntando qué actividad han elegido y por qué, al tiempo que solucionen las dudas que surgan en torno al uso de la lengua.
- Los alumnos presentarán sus dibujos al grupo y explicarán qué actividad les gusta hacer en vacaciones y por qué. En vez de hacer todas las exposiciones en un mismo día, cada día 3-4 alumnos harán su presentación. Dejaremos a los alumnos tímidos o con más dificultades con la lengua para el final y el profesor ayudará a aquellos que tengan dificultades para expresarse a través de preguntas.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

71. jarduera	AGURRA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.6 Mugimenduen, segida soinudunak dituzten joko motorren eta dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzeko ditu.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 32. orrialdea	
AZALPENA		

Agurraren bertsoa doinuarekin ikas dezakegu.

- Liburua irekiko dugu azken orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: bertsoak, pertsonaien argazkia eta globoak.
- Irakasleak bertsozale.com web-orriari edo liburu digitalean, bertso doinutegian *Airetun txikitun*, *airetun laire* (Haurrak ikas ezazue) bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Ondoren, bertsoa osorik, aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean). Irakasleak bertsoa abestuko du. Gero, berriz abestuko du, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz.
- Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?*
- Bukatzeko, guztiok elkarrekin biribil bat osatuz eta eskutik helduta, bertsoa abestu eta dantzatuko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

ERANSKINAK

4. jarduera: NATURAREN TXOKOA

Udaberri on, gure laguntzaile zintzoak:

Hemen gara berriz ere laguntza eske! Ez zineten dagoeneko aspertuko ezta? Lasai, ia-ia ikasturtea bukatu da eta... laster oporrak! Gainera, ziur gaude gure lantxo hauek berriro egiteko desiratzen izango zaretela iraila hasieran. Bi hilabete eta erdi gure berririk gabe izan ondoren.

Oraingoan, alferkeriak jota edo, ez goaz urrutira. Birraitonaren paper artean parke edo naturagune baten ikerketarako plana aurkitu dugu eta guk ere horixe bera ikertzea erabaki dugu. Beraz, parkeetan edota mendian aurki ditzakegun bizidunak (landare eta animaliak) eta bizigabeak (harriak, altzariak -aulkiak, zabuak, argiak...- eskulturak...) aztertzeotan gara. A! Natura, natura...

Beti bezala, gai honen inguruko edozer gauza baldin baduzue, lehenbailehen ikastolara bidaltzeko eskatu nahi dizuegu: hostoak, harriak, liburuak, posterrak, argazkiak, ipuinak, olerkiak...

Betiko moduan, txukun-txukun zainduko ditugu eta bueltan jasoko dituzue. Eta ez zaitzte kexa! Laster hartuko baititugu ondo merezitako "oporrak" eta!

Besarkada bat

Maddalen, Fermin, Urdintxo eta Pox.

¿Qué tal estamos?

Ahhhhh! La primavera la sangre altera... y esta vez, hemos decidido no salir de viaje. ¿Hay cosa más bonita que la primavera? Hemos encontrado un manuscrito del bisabuelo de Maddalen donde parece que quería estudiar un parque natural o algo parecido y hemos pensado que sería interesante hacer de exploradores. Por ello hemos decidido quedarnos aquí. Pero no penséis que así os vais a librar de trabajar un poquito. ¡No os quejéis eh! Falta poco para terminar el curso y... ja, ja, ja nos tomaremos unas merecidas "vacaciones".


Bueno, al grano. Nos gustaría que mandarais a la ikastola, libros, vídeos, posters... sobre la naturaleza (fauna, flora, paisaje...) y también si tenéis algo de información sobre parques, tanto naturales, como urbanos (planos, fotos...).

Cuidaremos de todo como de costumbre.

Nos despedimos con un florido abrazo.

Maddalen, Fermin, Urdintxo eta Pox.

35. jarduera: SPEEDY THE SNAIL



45: jarduera: ERAKUSKETAREN INAUGURAZIORAKO ANTZERKIA

- AHATE AMA: (*deika*) Ahate txuritxoak, non sartu zarete? Zatozte. Bainua hartzeko ordua heldu da eta.
- AHATETXO 1: Ez, ez, ama, gaur ez naiz bainatuko.
- AHATETXO 2: Ez, ez ama. Ezta pentsatu ere.
- AHATETXO 3: Ez, ez eta ez ama. Bainua gaur? Ez, ez eta ez.
- AHATE AMA: Eta zergatik ez?
- HIRURAK: Hotz handia egiten duelako.
- AHATE AMA: Hotza? Maiatzean gaude eta.
- HIRURAK: Baina eguzkia ez da atera.
- AHATE AMA: Egia da. E! Eguzki! Atera zaitez! Gure ahatetxoak hotzez daude.
- EGUZKIA: Ezin dut. Ez al duzu nire aurrean zenbat laino dauden ikusten?
- AHATE AMA: Bai, egia da. E, lagunok! Denok artean putz egingo dugu, ea lainoek alde egiten duten. Fuuuuuuuuu! Fuuuuuuuuuu! Fuuuuuuuu!
- EGUZKIA: (*azaltzen da*) Eskerrik asko. Hemen nago zuekin.
- AHATETXOAK: Eta gu bainatu egingo gara. (*urtegian sartzen dira abestuz*)

50. jarduera

Ohar garrantzitsua. Jarduera hau egiterakoan kode idatziaren garapenari behatzea ez da helburu, testuen funtzioa eta komunikazio-asmoari buruz ikasleek dakitenaz jabetzea baizik. Ondorioz, kodearen garapenean atzera samar dabilzan ikasleei irakasleak lagunduko die deskodifikazio lanetan.

Ireki Irakurgaiak 1 liburua, 99 eta 100. orrialdeetan. Beha iezaiezu arretaz bi orrialde horiei, honako galdera hauei erantzun beharko baitiezu.

1. Irakurgaietako 99. orrialdeko testuan, goialdean, hitz hauek agertzen dira: **Martxoaren 20a**. Zer adierazten dute?

- a) Eskutitza idatzi zen eguna.
- b) Berria agertu zen egunkariaren eguna.
- c) Maddalen eta Ferminen urtebetetze-eguna.

2. Zein da 99. orrialdeko testuaren izenburua?

.....

.....

3. Zein da 100. orrialdeko testuaren izenburua?

.....

.....

4. Irakurri arretaz bi izenburuak, eta esan egia ala gezurra diren honako esaldi hauek:

	EGIA	GEZURRA
Bi hurrek denboraren makinarekin bidaiatu dute.		
Bi haur oporretara joan dira.		
On Josepe Inventatore historian zehar ibili da.		
On Josepe Inventatore oporrak hartzeko beharrean dago.		

5. Irakurgaietako 100. orrialdeko testua hitz hauekin hasten da: “On Josepe Inventatore pattal zebilen aspaldian, ez zeukan gauzak asmatzeko ez indarrik, ez gogorik.” Zer etorriko da hitz horien ondoren?

- a) Oporrei buruzko kanta bat.
- b) Nekearen kontrako janari bat prestatzeko errezeta.
- c) On Josepe Inventatoreren ipuin bat.

61. jarduera.

Ohar garrantzitsua. Irakasleak, ikasleei ipuina irakurri ondoren, ahozko testuaren ulermen orokorraren inguruko galdetegi hau bidera dezake. Irakasleak ipuinaren zatia eta galderak banan-banan ozenki irakurriko ditu eta ikasleei erantzuna idatziz eskatuko die. Kodearen garapenean atzera samar dabiltzan ikasleak irakasleak bakarka hartuko ditu, eta ahoz eskatuko die erantzuna.

On Josepe Inventatore pattal zebilen aspaldian, ez zeukan gauzak asmatzeko ez indarrrik, ez gogorik. Halakoetan oporrak hartzea izaten da onena, eta horixe egitea erabaki zuen On Josepek.

1. Zergatik erabaki zuen On Josepek oporretara joatea?

- a) Gauzak asmatzeko indarrrik gabe eta gogorik gabe zebilelako.
- b) Lagunekin egon nahi zuelako.
- c) Dirurik gabe zegoelako.

Lagunengana joan zen eta albistea eman zien:

–Oporretara noa, lagunok.

–Oporretara, zu? –harritu ziren lagunak.

Izan ere, On Josepe Inventatore aberatsa zen lagunetan, aberatsa irudimenean, aberatsa gauza askotan; gauza bakar batena zen pobrea: dirutan.

–Nora joango zara dirurik gabe? –esaten zioten lagunek–. Dirurik gabe ezingo zara inora joan oporretara.

2. Zergatik ezin zuen oporretara joan?

- a) Gauza askotan aberatsa zelako.
- b) Ez zeukalako dirurik.
- c) Lagunek ez ziotelako uzten.

3. Irakurgaietako 101. orrialdeko marrazkian, On Joseperen buru gainean bonbila bat ageri da. Zer esan nahi du horrek?

.....

4. Irakurri 101. orrialdeko ipuin zatia eta erantzun: Nola lortu zuen bidaiatzea?

- a) Marrazkia egin, saldu eta dirua lortu zuen.
- b) Marrazkia egin eta barrura sartu zen.
- c) Marrazkiak egin eta egin, lo hartu eta amets bat izan zuen.

5. Nork pasatu zituen hamabost egun oporretan?

.....

6. Zerbait gustatzen ez zitzaionean zer egiten zuen?

- a) Beste marrazki bat egin eta han sartzen zen.
- b) Itsasoan bainatzen zen.
- c) Marrazkitik atera, borragoma hartu, eta gustatzen ez zitzaiona ezabatu egiten zuen.

Marrazkitik irten zenean, On Josepe erabat indarberrituta eta lanerako prest zegoen. Hala ere, kezka bat zuen...

7. Zer esan nahi du hor "indarberritu" hitzak?

- a) Atsedeen hartuta eta lanerako gogoz.
- b) Kezkatuta.
- c) Arropa berriarekin.

–Ez daukazu erremediorik, On Josepe –errieta egin zion bere buruari–. Oporretan ere ez dakizu lanik egin gabe egoten. Oso asmakuntza ederra egin duzu orain ere.

8. Nork esaten ditu letrakera lodiz idatzitako hitz horiek?

- a) On Joseperen lagunek.
- b) On Josepek berak.
- c) Jenio petraleko atorrante batek.

9. Zer asmatu zuen On Josepek?

- a) Indarberritzeko errezeta.
- b) Oporretara joateko sistema berria eta merkea.
- c) Lanik egin gabe egoteko modua.

10. Azaldu ezazu On Josepek oporretara joateko asmatu zuen sistema, honako galdera hauei erantzunez:

Zer behar da?

.....

Nola bidaiatzen da?

.....

.....

Zer egin daiteke zerbait ez gustatuz gero?

.....

.....